




ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



2016ko urtarrilaren 14a | XXXVI. urtea | 653. zenbakia

Kirol izendegia
2015ari errepassoa → 52-53

ESKUALDEA → 10-11
Abenduko hauteskundeen
laburpena eta datu-bilduma

LEKAROZ → 42
Aroztegiko egitasmoaren
inguruan adostasunik ez

BAZTAN → 43
Kultur elkarteek 24.800
euroko laguntza jasoko dute

ARANTZA → 17
Eskola zabalteko
eskaria egin dute Iruñean



Heldu da mozorro aro eroa!

Lotsak aire! Lau trapu xahar soinean jantzita, karrikak umorez betetzeko garaia da. Heldu dira kolorez jositako egunak, irudimenak eta eromenak bat egiten dutenak. Ondokoari xirika ibili,

joareak dantzarazi, baserrietara bisita egin edo gurdi dotoreak karriketan erakutsiz... Ongi pasa nahi duenak, ez du aitzakiarik izanen!

GEHIGARRI BEREZIA → 25-34



AZPIEGITURAK → 45

7,5 milio euro bideratuko dituzte N-121A errepideko tune-lak hobetzeko



Baztan beltzez jantziko duen literatur astea

Euskal nobela beltza ardatz hartuta egitarau oparoa antolatu du Baztango irakurle taldeak. Ilbeltzaren 18tik 24ra arte euskaraz eta beltzetik, gozatzeko aukera izanen da
ELKARRIZKETA → 3

Keinu ttikien garrantzia handia

Abiadura azkarrean doan bizimoduan, bigarren mailan geratzen da aunitzetan gorputz eta emozioen ezagutza. Horiek lantzeko beharra azpimarratzen du Teresa Martinez psikologoak.
ERREPORTAJEA → 4-5

ZOKKETAK → 60



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatziz **info@ttipi.eus**-era

URTARRILAREN 16AN 17:30EAN LESAKAKO HARRIONDOA ARETOAN

Nafarroako

II. TRIKITI JAIALDIA

IÑAKI MENDINUETA ETA IRUNE AGIRRE · KRISTINA ETA AMAIA · EPELDE ETA LUTXURDIO
AGUS BARANDIARAN (KORRONTZI) ETA XABIER BERASALUZE (LETURIA)
EDURNE ITURBE ETA OIHANA IRASTORZA · JON OSTOLAZA ETA ARNÓ · GARI ETA IÑAKI

AURKEZLEAK: IKER ZUBELDIA ETA IBAN URDANGARIN

SARRERAK ESKURAGARRI ZIALDO ETA ONINART-EN EDO ERRESERBA BIDEZ: nafarroakotrikitixaelkarte@gmail.com 12€
ONDOTIK AFARIA IRUBIDEN 20€

Tenpora Taldea

Urtarrilaren 16a, larunbata

Lekua: Berako Kultur etxea

Ordua: 20:00

Sarrera: 6€

Antolatzailea:  berako kultur etxea



Ilbeltzaren 18tik 24ra ospatuko da aurtengo Euskal Nobela Beltzaren astea Baztanen. Iaz lehen aldiz ospatu ondotik eta izandako arrakasta ikusita «arras kontent» daude

antolatzaileak. «Egitarau zabala» antolatu dute aurtengorako, «mundu guziari» bertaratzeko gonbitea luzatuz. Euskaraz idatzitako nobela beltzak «literaturazaleen artean

bere lekua» baduela argi geratu zen iaz eta aurtengoan bisitari guztientzako berrikuntzekin datoz. «Liburutegi beltza» sortu dute, bertzeak bertze.

Ilbelta taldea | Baztango Euskal Nobela Beltzaren asteaz

«Baztan aukeratu dute idazle aunitzek nobela beltzen kokaleku izateko»

Garbiñe ALTXU |

Zer da nobela beltza?

Ez da erraza definitzen. Iaz hasi ginen genero honen ezaugarriak eta nondik norakoak aztertzen eta oraindik bidean gaude; ikasten. Erraten ahal da hala ere, nobela beltza krimen bat argitzetik abiatzen dela eta bere bereizgarria dela. Egiten duen jendartearen disezio eta analisi zorrotzak, munduaren alde ilun hori azalerraten du.

Zer du Baztanek beltzetik?

Zerbait duela garbi dago! Idazle aunitzek aukeratu izan dute Baztan beraien nobela beltzen kokaleku izateko. Aspalditik gainera, hau ez da hain gauza berria. Agian Baztango giro umel eta laino itxiaren erdian, aise irudikatzen ahal da gertakari misteriotso bat. Baita baztandarren izaera estereotipatua, kontrabandoaren tradizioa... Halako giroan, nobela beltzaren neurriira egindakoa iduri du agertokiak. Hala ere, erran beharra dugu gaur egun giro beltza nonahi ikusten ahal dugula, baita hiri bateko bulego batean ere.

Nolako harrera izan zuen iazko egitarauak?

Egia errateko, arras kontent gelditu ginen izandako arrakastarekin. Baztandik eta Euskal Herriko bertze txokoetatik ere hurbildu zen jendea eta interes handia nabaritu genuen. Ohartu gi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ilbeltzaren 18tik 24ra ospatuko da aurtengo Euskal Nobela Beltzaren astea.

nen nobela beltzak baduela publiko fidel bat, jendeak gustuko duela, eta hala, euskaraz idatzitako nobela beltzak ere baduela bere lekua literaturazaleen artean.

Zer aurkituko dugu aurtengo Euskal Nobela Beltzaren astean?

Mahai-inguruak, liburu aurkezpenak, solasaldiak, zinema beltza, kronika beltzak, irakurraldi musikatuak... izanen dira bertzeak bertze Baztango herri eta gunedeberdinetan. Egitaraua osatzerakoan esparru ezberdinak jorratu nahi izaten ditugu eta aurtengo berrikuntza nabarmenenak hortik joanen dira. Zinema beltzarekin loturikoa bat eta nobela beltza eta

BAZTAN BELTZA AL DA?

«Baztanek beltzetik zerbait baduela argi dago. Agian Baztango giro umel eta laino itxiaren erdian, aise irudikatzen ahal da gertakari misteriotso bat. Baita baztandarren izaera estereotipatua, kontrabandoaren tradizioa... Halako giroan, nobela beltzaren neurriira egindakoa iduri du agertokiak. Hala ere, erran beharra dugu gaur egun giro beltza nonahi ikusten ahal dugula, baita hiri bateko bulego batean ere».

musika uztartzen dituen bertze. Aurtentertze proiektu bati ere ekin diogu, gaia literatura beltza izan den «(H)ilbelta Beltza» web-aldizkaria sortzen gabiltza eta datozen egunetan aurkeztuko dugu.

Gainera liburutegi beltza ere sortu duzue...

Iaz argitaletxe ezberdinek beraien euskal nobela beltzak bidali zizkiguten Euskal Nobela Beltzaren astean zehar jendeak ikusgai izan zitzen. 100 bat ale bildu genituen. Astea akiturik argitaletxeek guretako eskaini zizkiguten. Hala, nobela horiek guztiak Baztandarrekin partekatu behar genituela garbi genuen eta horrela sortu

zen liburutegi beltza. Liburuak Arizkongo medikuaren etxean egokitutako gela batean daude eskuragarri. Hala ere, erabilpen handiagora eman nahiko genioke eta hortaz, jendea bertara animatu eta liburutegia ezagutarazteko, aurtengo asteo ekitaldi bat bertan egingen dugu.

Zein publiko motarako eskaintza egonen da?

Egitarau zabala egiten saiatu gara eta hala, publiko anitz batengana ailegatzen ahal dela pentsatzen dugu. Literatura-zalea bai, baina baita bertze alor batzuetan interesa izaten ahal duena ere. Mundu guzia ongi etorria izanen da!

Nobela beltza ezagutzen ez duenari, zein arrazoi emanen zenez zizkiokete irakurtzen hasteko?

Nobela beltza erakargarri egiten duen alderdi bat bizitza errearekin antzekotasun handia duen genero bat dela da, nahiz eta erraten den moduan aunitzetan errealtateak fikzioa gainditzen duen. Gaurkotasan handia duten gaiak jorratzen dira normalean eta pertsonaiak antiheroia izan ohi dira, egoera pertsonal eta iragan jakin batekin azaltzen zaizkigunak, baina era berean irakurlea beraiekin enpatizatzea lortzen dutenak. Inrriaz sortzen du eta erraza da nobela beltzak irakurlea harrapatzea.



Teresa Martinez: «maite dituzunak besarkatu eta musukatu behar dira, gure zonaldean badugu non entrenatua».

BIOENERGETIKA ETA AHALDUNTZEA → TERESA MARTINEZEKIN EMOZIOAK LANTZEKO BEHARRAZ

«Irribarre egin eta maite dituzunak besarkatu eta musukatu»

Egunerokotasunean lasai eta zorientsu bizitzeko, emozioak antzeman eta haiek kudeatzen ikastea ezinbestekoa da. Bioenergetika eta ahalduntze tailerretan taldean

egindako ariketek hausnartu eta kontzientzia lortzen laguntzen dute, gorputz osoko atalak landuz. Teresa Martinez psikologoarekin bildu da TTIPI TTAPA gaiari buruz solasteko.

Garbiñe ALTXU

Egoera zailetan emozioak kontrolatzeko arazoak izaten ditugu maiz; haserrea, tristura, inbidia,... Gure izaeraz hausnartu eta geure jarrerak kudeatzen ikasteko, ariketa ezberdinak lantzea proposatzen digu Teresa, Bioenergetika eta ahalduntze tailerretan lantzen dituztenak, hain zuzen.

Alexander Lowen medikuak sortu zuen psikoterapia humanista-bibentziala da bioenergetika. «Gorputz-ariketak

dira, gorputza indartzeko batzuetan, eta arintzeko, besteetan». Tailer hauetan «erlajazioa, masajeak, dantzak,... egiten dira. Kontaktuaren bidez, espresioaren bidez edo isiltasunaren bidez konfiantza eta autoestimua lantzeko». Bertalde, ahalduntzeak ere sekulako onurak dakartzela «gai sentitzea, egoeraz ailei aurre egiteko gaitasuna eta ingurua ongi egon ez arren, lasaitasunez eta zentzuz jokatzela. Azken finean, pertsona bat ongi sentitzen dene-

an, bere familia eta bere ingurua ere hobekiago sentitzen da».

GOZATZEN IKASTEKO

Egiten dituzun gauzetan «kontzientzia eta atentzio guztia jarri behar duzu». Gauza onak erreparatzeko gai izan behar duzu eta gorputzarekin emozio horiek adierazi «irribarrea, arnas sakona, besoak luzatu, maite dituzunak besarkatu eta musukatu». Azken hau «gure zonaldean ez da ohikoa, badugu non entrenatua».

GORPUTZA: OINETATIK BURURAINO

Gorputza oinetan hasi eta bururaino dauzka atal guztiek osatzen dute. Bioenergetika eta ahalduntze tailerretan guztiak lantzen dira.

Oinak eta hankak. Gure sustraiak dira. Oin eta hanketan gorputzaren pisua eta oreka sentitzen dugu.

Beso eta eskuak. Gure adarrak dira. Beso eta eskuekin zenbat gauza egin ditzakedan! Hartu, eman, laztandu, besarkatu, kilimak egin, eskatu, mugak jarri...

Bizkar eta sorbaldak. Karga eramaten dute, bizitzaren motxila dira. Kontzientziarekin askatzen ditugunean, motxila arintzen dugu.

Pelbisa. Sexualitatea, bizitzaren motorra da. Zonalde hau kargatzen badugu, gure erabakiak aurrera eramateko indar gehiago edukiko dugu.

Burua. Zuzendaria da. Ezinbestekoa da burua askatzea, «uztea».

TERESAREN AHOLKUAK

«Emozioek gu ez kontrolatzea lortu dezakegu»

Nola antzeman eta landu daitezke emozioak?

Emozioak eragiten. Adibidez, egoera triste bat kontzientziara ekarriz eta triste aurpegia jarriz, edo haserrearena edo irribarre egin. Aurpegi hori asko esajeratu eta ondoren beste emozio baten keinua ipiniz emozioez jabetu gaitzke eta aldi berean emozioek gu ez kontrolatzea lortu dezakegu. Esate baterako beldurrak gu ez gailentzea. Irriterapia saioetan, adibidez, irria askatzea lortzen da.

Tentsioak askatzeko era egokiena, lau oihu botatzea al da?

Modu bat da, eta oso efikaza gainera, baina ez dago oso onartua. Badira errazagoak edo onartuagoak diren moduak: eskuoihal bat bihurtzea, paperak puskatzea, kojinari kolpeak ematea, abestea, bertze batekin solastu eta entzuna sentitzea...

Zure egunerokotasunean falta ezin den ariketa bat?

Modu lasaian arnasa hartu eta masail ezurra eta begiak erlaxatzea. Bizkarra luzatu eta eserlekuan kokatu, denbora dezente pasatzen baitut eserita.

Gorputza indartzeko zein ariketa egin behar dira?

Oinak eta hankak sustraiak balira bezala,

lurraren kontra estutu, pelbisa aurrera, atzera edo lurraren norabiderantz mugitu...

Gorputza arintzeko zer egin daiteke?

Burua kolokan utzi, sorbaldak atzeraka bota, motxila bat kenduko bagenu bezala, masailezurra eta begiak askatu...

Ariketa hauek praktikatzera koan zer hartu behar da kontuan?

Arnasketa hagitz garrantzitsua da, momentu oro kontrolatu behar da.

Nori zuzendutako ikastaroak dira?

Gorputz lanketan ez dago sexurik. Normalean emakume taldeekin aritzeko ohitura dago, emakumeek erraztasun handiagoa dutelako hitz egiteko edota elkar laguntzeko. Baina gizonen horrelako tailerretan eta modu honetan gorputza lantzen dutenean ere, alderdi emozionala lantzen ikasten dute. Adin txikikoekin ere landu daitekeela ziur nago. Oraindik ez dut frogatu, baina aurtan animatuko naiz.

TENTSIOAK ASKATZEKO, ZER?

- Lau oihu bota.
- Eskuoihal bat bihurtu.
- Paperak puskatu.
- Kojinari kolpeak eman.
- Abestu.
- Bertze batekin solastu eta entzuna sentitu.



Teresa MARTINEZ PEÑALBA, psikologoa

ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

«Egunerokotasuna bizi beharrean, beti geroan pentsatzen pasatzen dugu denbora»




Iosune SAGASTIBELTZA EZKURRA,
Teresaren ikaslea

Iosune Sagastibeltza leitzarria Teresaren ikaslea da Bioenergetika eta ahal-duntze tailerrean. Lan istripu baten ondorioz bere bizitzan «aldaketa handi bat» gertatzen ari zela nabaritu zuen, «ezinegona, antsietatea eta haserrea» ziren momentu hartako sentimendu nabarmenak eta guzti hura nola kudeatu ikasteko asmoarekin, bioenergetika eta ahal-duntze ikastaroan izen ematea pentsatu zuen. Bioenergetika zer zen oso ongi ez zekien, «baina probatzea pentsatu» zuen eta gauregun bere burua «hobeiki ezagutzeko» balio izan diola argi dauka. Tailerreko saioetan «ariketa

fisikoak» egiten dira, baina «arnasketaren bidez emozioak bideratzen ikasten da baita ere». Arras gustura joaten da saioetara eta «edozein pertsonari» gomendatuko lioke horrelako tailer batean izen eman eta parte hartzea. Teresarekin bertan ikasitako ariketak egunerokotasunean hagitz baliagarriak direla dio eta saioetatik kanpo ere praktika daitezkeela. Iosunek, adibidez, egunerokotasunean maiz praktikatzeko duen ariketa bat kontatu digu: «hankak lurrean finko jarri, belaunak pixka bat flexionatu eta burua eta besoak zintzililik utzi, hilda, indarrik gabe».

Emozioak eta gorputza lantzerako orduan, «bakoitzak zaindu edo landu beharreko atala desberdina izaten da». Iosunek gehien zaintzen duena eta arrera nabarmena eskaintzen diona, «burua» da.

Egungo jendarteak agenda eta bizimodu azkarra daramala gauza jakina da eta maiz gure gorputzari eta sentitzen ditugun emozioei ez diegu behar duten arreta eskaintzen, ahaztu egiten ditugu. «Orainean bizi dugun momentuari ez diogu duen garrantzia ematen, egunerokotasuna bizi beharrean, beti geroan pentsatzen pasatzen dugu denbora».

**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

Urte berri... Asmo berri?

Egutegi gregoriotarraren arabera urte berria hasi dugu. Bertzelakoa litzateke egutegi juliotarra edota erromatarra erabiliko bagenu. 2016a omen dugu aurtengoa.

Urte berriarekin bat, berriz ere kirola egiten hasiko dugu urtea.

Berriz ere erretzeari utziko diogu.

Berriz ere asteburuetan parranda egin ordez mendira joanen gara.

Berriz ere telebista guttiago ikusi eta gehiago irakurriko dugu.

Berriz ere geurekoiak izateari utzi eta lagun hurkoarengandik hurbilago egonen gara.

Berriz ere elkartasuna, berdintasuna edota askatasuna aldarrikatuko ditugu.

Berriz ere ezintasanari aitzin eginen diogu?

Berriz ere jendarteari gure izanaren errua leporatuko diogu?

Edo behingoan erantzukizunez jokatu eta etorkizun desberdin baten parte aktibo bilakatuko gara?

Berriz ere? Edo behingoan bai?

«Berriz ere? Edo behingoan bai?»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Normaltasunarekin segituz

Bufanda eta txanoa jarri ordez, kamixeta mauka motzarekin (*maukarik ez, nik axolik ez*), pirata eta sandaliek eman ditugu Eguberriak; tximiniko sua piztu beharrean mendietako suteak ezin itzaliz ibili da jendea; betunez beltzatutako Baltasar errege zuria, irinez txuritutako Gaspar errege beltza eta Meltxora erregina ibili dira Kabalgatan; eta orain, normaltasunarekin segitzeko, Inauteriak!

NabarmentzekoakIsabel JUANIKORENA
Zilarrezko Titarea

Santa Luzia egunean Doneztebeko herriaren omenaldia eta Malu Alvarezek egindako Zilarrezko Titarea jaso zuen Zubietan sortu baina aspaldian Donezteben bizi den jostunak.

Donato LARRETXE
Apustua irabazi

Aizkora saio bikaina eskaini zuten Donato Larretxeak eta Arria V.ak abenduaren 20an Tolosako zezen plazan. Azkenean 56 segundu lehenago moztu zituen 20 kanaerdikoak Donatok.

Xanta SOUSA
Euskadiko txapelkun berriz

Lesakarrak laugarren aldiz irabazi du Euskadiko txinga eramate txapelketa. Abenduaren 20an Asteasun 35 plaza pasatxo egin zituen, bere errekorretik urrun baina irabazteko aski.

Atzera begira → 2006-I-05 / TTIPI-TTAPA 413 zk.

**Bi doneztebar Ipar Amerikako gailurrik altuenean**

Duela hamar urteko Doneztebeko Mendiaren Egunean eman zuten Patxi Zamorano eta Zarbo Ibarrolak McKinley mendira egin zuten igoeraren berri. McKinley edo Denali inuit-en hizkuntzan (Garaiena erran nahi du), 6.194 metroko altuera duen mendia da Alaskan, Ipar Amerikako garaiena. Zarbo Ibarrolak aipatu zigunez, «mendia teknikoki ez da zaila, hori bai oso oso hotza. Mendi altu guztietan bezala, eguraldia garrantzitsua da». Igotzen baino jausterakoan lan gehiago izan zituztela aitortu zigun: «35 graduko maldan, trineoa aitzinean lotua daramazu eta alde batetik bertzera tiratzen dizu, arriskutsua da».

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Jesus Jaimerena, sagarrondo emankorra

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Pena handiarekin eman genion azken agurra Jesus Jaimerena jaunari (Don Jesusi), abenduaren 12an, Lekunberriko parrokiari.

Nabarmena da Don Jesusek egindako lan ikaragarri handia, bere bizitza osoan zehar, eta bera hurbiletik ezagutzeko zorte ona izan dugun guztiok, uste dut zalantzarik gabe, denok edo gehienok behintzat, aitortuko dugula bere aspektu positibo hori: beti lanean, besteen alde, jendearen onerako, interes ekonomikorik gabe, dohainik, kobratu gabe. Eta, gainera, apaltasunez, bere burua nabarmendu gabe; beti umilki.

Horrek burura ekarri dit, behin batean, On Joxe Miel Barandiarani bere amak esandakoa, semea artean gaztetxoa zela.

On Joxe Miel itzuli omen zen ikastetxetik etxera, oporrek pasatzera edo, eta gainera, nota eta kalifikazio on-onekin. Orduan, amak, ikusita arriskua egon zitekeela semea harrotu zedin ateratako nota on haiengatik, badaezpada ere, honako hauxe bota omen zion:

-Joxe Miel, ikusten al duk ongi gure etxeko sagarrondo hori?

-Bai.

Sagarrondo hura fruituz leporaino beteta omen zegoen urte hartan, alegia, sagarren pisu ikaragarriarengatik adarrak eta arbola bera ere makur-makur eginda omen zegoen. Hori horrela, amak hauxe esan omen zion:

-Bueno, ba, errepara iezaioke ongi bere itxura eta jarrerari. Hara, begira, hik ere zenbat eta fruitu gehiago eman, orduan eta apalagoa izan behar duk bizitza honetan.

Dirudenez, On Joxe Miel Barandiaranek ongi go-goan hartu zuen amaren ikasgai hura, bere bizitza osoan zehar, eta neronek esanen nuke, Don Jesusek ere beste horrenbeste egin duela bere bizitza osoan. Hona hemen Jaimerena jaunaren fruitu eta emaitzak: parrokiari, komentuan, abesbatzan, solfeoan, txistuan, euskarari, latinean, armonionean, antzerkian, dantzetan, pilotan, itzulpenetan, eta abarrean.

Nik uste dut, Jesus Jaimerenaren sagarrondo emankor eta apalaren itzal handiak, luzaro iraunen due la gure oroimen bizietan; hala beharko luke behintzat.

Besarkada bero, eskumuin eta goraintziak Don Jesusen senide, familiako, lagun eta ezagun guztiei. Eta, bukatzeko, kontu bakar bat: Jesus Jaimerenak euskararen alde, ekintzez, hainbeste lan egin ondoren, iruditzen zait, hiletako mezan, homilia ere euskaraz ongi merezia eta irabazia zuela.

«Jesus Jaimerenaren sagarrondo emankor eta apalaren itzal handiak luzaro iraunen du gure oroimenean»

Euskara batua

Esteban IRUSTA MALLEA

Hizkuntza bat ez da sortzen egun batetik bestera. Ez da norbaitek, ikerketa baten bitartez lortu duen asmaketa. Ez dauka ondorioz, asmatzailerik. Hizkuntza bakoitza etengabeko garapen oso luze eta motel baten ondorioa da. Eta garapen desberdinek hizkuntza desberdinak sortu dituzte. Baina ez dira denak paraleloki garatu. Kasu askotan, hizkuntza batetik beste batzuk jaiotzen dira. Euskara adibidez, hizkuntzalari batzuen esanetan, Europako hizkuntza batzuen edo askoren sorburu edo iturburu da. Teoria honen defendatzaileen artean, besteak beste, Jorge Maria Ribero Meneses dago. Bere ideia garbia da; latina ez dela romantze hizkuntzen sorburu. Bera baino aintzinagoak, lehenagokoak direla. (...) Iritziak iritzi, gaur hizkuntza desberdinak ditugu, eta historian zehar buruhauste asko eman die Estatu agintariei. Gutxi batzuk onartu dituzte ofizialki hizkuntza bat baino gehiago. Horietako bat Suiza da. Bertan 4 dira ofizialak. Frantzian, alderantziz, bat bakarra; beste guztiak ez daukate onarpenik. Espainiak ere antzeko ahaleginak egin ditu baina ez du lortu. Gaztelaniaz aparte, nolabait onartu behar izan ditu euskara, kataluniera eta galiziera. Baina hizkuntzen jatorriak eta ofizialtasunak alde batera utziz, beste arazoa, ez txikia, hizkuntza bakoitzaren barruan dauden ezberdintasunak dira. (...) Nazio hauek aspaldi egin zuten hizkuntzaren batasuna gramatika bakarra eta lege bakarrak aplikatuz. Euskal Herriaren euskararen batasuna beranduago egin zen: 1968an. Baina ahaleginak aspalditik datoz. Batasun baten behararen aipamenak XVI. mendean agertzen dira (...) 1918an pauso handia ematen da Euskaltzaindia sortzean. "Akademia" guztiek helburu berdina dute: Hizkuntzaren batasuna. Euskal Herriaren kasuan egoera politikoak ez zion laguntzen eta 50 urte gehiago behar izan zituen euskara batuaren oinarriak adosteko. 1968an Arantzazun izan ziren bilerak Koldo Mitxelena eta Luis Villasanten zuzendutuzten. Euskalkien artean nola aukeratu bat. Aukeraketa zaila, benetan. Alde batetik, hor zeuden Iparraldeko idazleak, Hegoaldekoak baino ugariagoak eta antzinagokoak. Beraien eredu Axular jartzen zuten. Baina ideia hori baztertua izan zen, une horretan herritar gutxiak hitzegiten zutelako euskalki horretan. Beste aldetik, bizkaiera edo mendebaldeko euskalkia zen gehien hitzegiten zena. Baina, bere kontra literatura aldetik idazlan gutxien zuena zen. Aukera hau ere baztertua izan zen. Azkenean, nafarro-labortanoa eta gipuzkeran oinarritu ziren gaur ezagutzen dugun euskara batua osatzeko. Beste eztabaida gogorra H hizkiak sortu zuen. Hegoaldean ez zen erabiltzen, baina Iparraldeko idazleak betidanik erabiltzen zuten, onartua izan zen, gaurko ikasleen atseka berako.

Euskara batuak zeresan asko eman zuen bere denboran, munduan kasu bakarra izango balitz bezala. Askok hizkuntza berri bat, asmatua, artifizia bezala hartu zuten. Bere aurrean deseroso sentitzen dira asko. Dena den, euskara batuak ez ditu, nahitaez euskalkiak baztertu behar. Hizkuntza bat zerbait bizia da, dinamikoa. Beti aldatzen doa, eta hitzunik eta idazleek eguneroko praktikan hizkuntza egiten ari dira. (...) Eztabaida guztien gainetik, garrantzitsuena euskaraz hitzegitea eta irakurtzea da.

Irakurleak mintzo

Patronatua?
Eta hori zer da hori?Francisco Joaquin Iriarte Zahar
Etxeko Langileen Asanblada

Aunitzetan gure buruari egiten diogun galdera bat da hau. Definizio posible aunitz ditu, eta gehiago oraindik, historia polit bat gibelatik, Francisco Joaquin Iriarte berbera izan zelarik bertako protagonista. Zadanik 1793an Baztanen Etxe bat sortzeko behar soziala ikusi zuen; Misericordia, momentuko beharrak aseko litzuzkeena, hala nola eskola eta Zahar etxea bertzeak bertze.

Etxe honen funtzionamendu egoki baterako Patronatua osatu zuen, bertan pertsonai politiko, elizaren ordezkari eta Balleko kuartel bakoitzeko ordezkariak parte hartzen zutelarik, eta beraien helburua erresidentziako erabiltzaileen ongizatea eta erresidentziarentzat hoberena bilatzea zelarik.

Horretarako zuzendari batzuen laguntza izaten zuten, baino 2009an kontuak gaizki zeudela iruditu zitzaizenean zein izan zen Patronatuak hartu zuen erabakia? Gestioa pribatizatzea.

Pribatizatu bai, erresidentziako aitaxi eta amatxi bakoitzaren zentzua eta diru sarrera bat izatera pasa zen, ez gehiago eta ez guttiago, nahiz eta nola ez enpresari atentzio pertsonalizatua, ISO kalitatea eta antzeko hitzekin ahoa bete, baino aitaxi eta amaitxiei asteroko dutxa bermatu gabe, otorduetarako ordutegi egoki-

rik bermatu gabe, dolu protokolo egokirik gabe, enpresaren interesen arabera eten gabeko gela aldatzeekin, beraien kriterioen arabera balorazioak egiteko moduak aldatzen eta ondorioz baita tarifak ere (asteroko dutxaren prezioa 100 eurotara pasatuz) eta abar luze bat.

Ba bai, Patronatua aitaxi eta amatxiek bizitako egoeraren jakitun izaki eta gure keaxak aditu eta gero zerbait errateko izanen zuela uste genuen, baino gure harridurarako ez dugu erantzunik jaso, ez erresidenteek ezta langileek ere.

Ez zuten zalantzarik izan Misericordia pribatizatzeako ordutan, enpresari baldintza ezin hobeak utziz, hori bai gastu publikoarekin denok ordaintzen dugun diru publikoarekin.

Horrelakoxea da Patronatuko errealitatea; Patronatua ez da demokratikoki aukeratzeko, beraien artean aukeratzeko, beraien artean aukeratzeko, beraien solasten dute bertatik pasatu gabe kide gehienak behintzat eta abar luze bat, ai ama! Ahaztutako etxe bat da, ahazte samina.

Hau da langileen borroka, gure aitaxi eta amatxien alde.

Euskal kantu
zaharren eguna 2015

Jon BARANDIARAN (Elgoibar)

Iragan azaroaren 21ean, larunbatez, ospatu genuen Urdazubiko Dantzarinea auzoan, Venta Peioko Lugarana jatetxean, 2015eko "Euskal kantu zaharren eguna". Honakoa, hamabigarrena.

Han elkarretaratu ginen guzkiek gozatu ederra hartu genuen berriz ere, sei orduz kantu eta dantza, bazkari eder baten inguruan. Festa hau berezietan berezia da, hutsegini ezinezko ospakizun bilakatu delarik jarraitzaile gaituenen egutegietan. Gorriz markatu beharrekoa urte hasieratik.

Beren ahaleginenez festa are eta ederragoa egin zuten guztiak txalotu nahi nituzke, Zubietako joaldunak eta Leitzaiko dantzariak, besteak beste. Ezin aipatu gabe utzi aurten goan leku berezia ukan duten Bankako "Menditarrak" taldea.

Eskerrik beroenak Lugarana jatetxeko langile eta arduradunei, beren eraginkortasun eta jarrera adeitsuarengatik. Merezimenduz bilakatu dira hauek ere kantuzaleen familiarako partaide.

Eskerrik beroenak, nola ez, festa honen prestaketa eta garapenean buru-belarri aritzen diren musikari eta teknikariek: Aitor Ibarra, festa umore eta aldarte onez betetzen duenari (aurten, uste gabeko omenaldia jaso du Sunbillako tronpeta jotzaile trebeak; uste gabekoa bezain merezia); Joxe Angel Elizalde, Amaiurko akor-

deoilari fina, jendearen dantza eskakizunei beti adi, beti adeitsu; Cristian; Txema;... barkatuko didate denen izenak oroitzeko gai ez izatea.

Azkenerako utzi dut arduradun nagusi ez ezik, festa egun honen buru, bihotz eta arima ere baden Angel Mariezkurrena, jaialdi honen sortzailea. Lan bikaina burutu du berriz ere. Merezimendu handiena, lagun artean kantatzearen plazeraz inor baino lehenago oihartzu du, hala ere, eratsundarrak. Gure kultura herrikoian hain errotua zen usadioa, bizitza modernoaren zurrunbiloan itoa zirudien unean, berreskuratzen eta eguneratzen jakitea. Kantu egunak han eta hemen indartzen ari diren garai honetan, aitortu beharrekoa da bidegile izan den Angelen ekimena eta lana.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**
Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Prentsatik bildutakoak



«Aiton-amonek Fonda Benito jarri zuten Leitzan eta gurasoek Basakabin bihurtu zuten. Han egon gara ia 40 urtez. Amarengandik asko ikasi dut. Gero, ikasten hasi eta sukaldeen munduan murgildu nintzen, Donostiako Rekondo jatetxean lehenik. Gero, 5 urtez Madrilén izan nintzen, Euskal Etxea zeukan Luis Irizarrekin lanean».

Alex MUGICA
Leitzako sukaldaria
GARA • 2015.12.11



«Beste urtebete eskaini didate, eta ez dut uste arazorik izango dugunik jarraitzeko. Gorputza ondo dago, martxa eskatzen dit, eta pilotan jokatzeari. Urteekin erabakiak hartu behar dira. Nik uko egin nien lau t'erdikoari eta buruz burukoari, eta ondo nago, minik gabe eta ilusioarekin. Gorputzak eta buruak jarraitzeko eskatzen didate».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
BERRIA 2015.12.11

11 galdera labur

Nor da Olatz Baleztena?

Erdi Mailako modulotik Goi Mailakora pasatzeko Prestakuntza ikasketetan dabilen 20 urteko Zubietako neska saltsera.

Inauterietatik zer gustatzen zaizu gehien?

Dena. Bereziki otorduen ondotik estalpean sortzen den giroa.

Eta gutxien?

Asteazkeneko eguna, inauteriak akitu egiten direlako.

Joareak edo mozorroa?

Bakoitza bere momentuan, egunaren arabera. Joareak eta mozorroa barrubarrutik bizitzen ditudan arren.

Nola erabakitzen duzu mozorroa?

Momentuan, inprobisazioa eta imajinarioa erabiltzen ditut eta etxeko traste edo

arropa zaharrekin mozorrotzen naiz..

Eguneko edo gaueko parranda?

Dudarik gabe eguneko giroa! Nahiz eta gauez ere giro ederra egoten den.

Inauterietan galdu ezin den ohitura...

Joareak jotzea, mozorrotzea eta nola ez, elkartean biltzea..

Aurpegia tapatuta ausardi handiagooa izaten al da?

Bai, ez zaituelako inork ezagutzen.

Inauterietan 24 ordu-tatik zenbat pasatzen dituzu etxetik kanpo eta zenbat etxean?

Etxean ahalik eta ordu gutxien.

Inauterietarako planik idealena?

Gosari ederra hartu, joareak jo eta bazkari bikain baten ondoko juerga.

Zubietako txokorik politena?

Makilipurdi eta bertatik ikusten diren bistak.



Olatz BALEZTENA ELIZALDE → Zubietako gaztea

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxes. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ERROTARZAR
harategia

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TIP: 948 625 474

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSTATUA
PINTXOK
BOCHAK
TFNoA: 948 630 259 BERA

BERTAKO PRODUKTUAK
Eztegarra, 3 · BERA
T./F. 948 630 088
info@errotazar.net
www.errotazar.net


FRANTZIAKO ESQUALDEETAKO HAUTESKUNDEAK | 2015/12/13

HAUTESKUNDEAK 2015/12/13 → ESQUALDEETAN

Alain Rousset sozialista izanena da Akitaniako eskualde berriko buru


Sara eta Senperen, ordea, Virginie Calmels eskuindarrak irabazi zituen bozak

Urte berriarekin, eskualde berrien mapa indarrean jarri dute Frantzian. Joan den udazkenean erabaki zuen Frantziako Asanbleak lehengo 22 eskualdeetatik hamahirutara pasatzea, eta, horretarako, batzuk elkartu egin zituen. Sara eta Senpereri bete-betean eragin die aldaketak Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes elkartu eta guzien baturak osatzen duen Akitaniako eskualde berriaren parte baitira orain.



Abenduaren 6an eta 13an egin zituzten hain zuzen, eskualde berrietako kontseilariak aukeratzeko bozak. Alain Rousset sozialistak irabazi zituen eskualdean hauteskundeak eta bera hautatu dute lehendakari datozen sei urteetarako. Sara eta Senperen baina, bigarren izan da sozialista: ezker anitzeko zerrendaburuak bozen %38,76 lortu zuen Senperen eta %40,29 Saran. Virginie Calmels zentro eskuinteko hautagaiak berriz, bozen %46,50 eskuiratu zuen Saran eta %42,08 Senperen.

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ESQUALDEKA




ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK | 2015/12/20

HAUTESKUNDEAK 2015/12/20 → ESPAINIAKO GORTEAK

2.217 boto galduta ere, EH Bildu da alderdirik bozkatuena

Bigarren indarra **Geroa Bai** da 554 boto irabazita 2011koekin alderatuz. **Podemos** indartsu sartu da, hirugarren indar bilakatuz (2.476 boto). **UPN-PP** bigarren indar izatetik laugarren izatera pasatu da, 944 boto galdu ondotik.



	Zentsoa	Partehartzea	Abstentzioa	Balioab.	Zuriak	EH Bildu	GeroaBai	UPN-PP	PSOE	Orain batera	C s	Podemos	UPyD	Besteak
ARANO	102	52	50	0	0	21	9	5	0	0	0	17	0	0
ARANTZA	526	344	182	3	3	133	118	21	13	2	3	46	0	2
ARESO	221	141	80	1	0	59	33	23	6	0	1	18	0	0
BAZTAN	6.058	3.902	2.156	52	64	931	862	879	287	34	121	637	4	31
BEINTZA-LABAI.	208	93	115	0	3	13	24	21	4	1	4	17	1	5
BERA	2.832	1.921	911	22	20	429	398	227	156	36	91	527	4	11
BERTIZARANA	460	308	152	7	4	83	67	52	28	3	9	54	0	1
DONAMARIA	342	239	103	0	2	72	81	30	12	1	2	27	0	12
DONEZTEBE	1.211	844	367	19	4	198	157	166	84	20	19	165	3	9
ELGORRIAGA	169	131	38	4	2	40	25	22	5	3	4	25	0	1
ERATSUN	146	81	65	1	3	6	35	18	1	1	1	14	0	1
ETXALAR	615	398	217	5	6	119	94	55	23	2	5	87	1	1
EZKURRA	146	66	80	0	1	22	14	11	3	1	2	12	0	0
GOIZUETA	620	390	230	5	1	257	78	11	6	1	0	27	0	4
IGANTZI	485	325	160	1	3	81	107	41	26	3	5	54	3	1
ITUREN	393	265	128	4	2	122	65	13	27	0	4	26	0	2
LEITZA	2.338	1.534	804	9	16	676	340	161	73	10	13	226	1	9
LESAKA	2.172	1.463	709	15	10	421	372	138	116	24	46	312	1	8
OIZ	111	70	41	0	1	18	24	7	3	0	4	12	0	1
SALDIAS	105	70	35	0	0	24	18	7	3	0	2	15	0	1
SUNBILLA	585	346	239	2	1	86	102	43	31	5	5	69	0	2
URDAZUBI	310	223	87	3	5	29	69	72	11	0	5	27	0	2
URROZ	156	87	69	3	1	14	27	16	4	0	4	17	1	0
ZUBIETA	236	142	94	0	2	67	33	13	4	2	0	21	0	0
ZUGARRAMURDI	179	117	62	2	5	31	25	20	3	4	2	24	0	1
Denetara	20.726	13.552	7.174	158	159	3.952	3.177	2.072	929	153	352	2.476	19	105

BERA

GIZARTEA → 1,6 MILIOI EUROKO AURREKONTUA

Ur-hornidura proiektua aurten gauzatuko da Lesakarekin bat

Auzotarrekin egindako bileren balorazio hagitz ona egin du Udalak

TTIPI-TTAPA

2016 urtearen barrenean egin ahal izanen da azkenean Lesaka-Bera ur hornidurako proiektua. 2009-2012 planaren barrenean zeuden obrak bukatzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak aurten eta lan hauen barrenean sartuko omen da proiektu hau. 1.600.000 euroko aurrekontua du eta %90 Nafarroako Gobernuak jarriko du.

Ur kontuekin segituz, «poliki-poliki ur sarean berrikuntzak eginez eta kontsumo ohiturak hobetuz, lortzen ari gara Lesaka-Bera ur kontsumoa jaustea» jakinarazi dute Herriko Etxetik. Iaz berriro zen Bidasoa kaleko ur sareak galerak tikitzea lortu du eta urte berrian bide horretan segitu nahi dute. Ur sare sektoretan ari da

udala eta sektore bakoitzaren hasieran kontagailua jartzen, modu honetan ur sarearen adar bakoitzean zein kontsumo den aztertuz eta ur galerak non dauden zehaztuz, gero moldaketak egiteko lehentasunak jarritz. «Horrela jakin dugu adibidez, Berako plazatik, plaza zaharrena joaki den adarrean 66 metro kubiko galtzen direla egunean».

AUZO BATZARRAK

Udazkenean egindako auzo batzarren balorazio hagitz positiboa egin du Udalak. Parte hartu dutenei eskerrak ematearekin batera, orain udalak bildutako eskaera guztiak antolatu eta lehentasunen eta udalaren ahalmenen arabera egiten joanen da. Prozesu honek jarraipena izatea nahi du Herriko Etxeak eta behar duenean berriz ere deituko ditu auzo batzarrak. Gainera, auzotarrek udalari proiektu edo asmo baten berri eman nahi badiote esker onez hartuko dute la ere jakinarazi dute.

Udazkenean eginda-



UTZITAKO ARGAZKIA

Larun Haizpek 200 euroko hiru erosketa bono banatu ditu

Larun Haizpe komertzio eta zerbitzuen elkarteak Eguberrietako erosketa kanpaina egin du bazkide diren establezimendutan, herriko komertzioa mantendu eta bezeroak fidelizatzeko helburuarekin. Horretarako, bazkide diren dendetan urtarilaren 31 bitarte erabiltzeko 200na euroko hiru erosketa bono zozketatu dituzte abenduaren 28an. Maria Jesus Yanci, Juan Manuel Portu eta Ane Otamendi izan dira saridunak. Larun Haizpe elkartetik hiruak zoriontzeaz gain, aitzinera begira ere euren helburua betetzeko lanean segituko dutela adierazi dute, hau da, beratarrek eta bisitan joaten zaien jendea atenditzen, eta bere konfiantza bereganatzen.

ko bertze lanen artean, liztor beltzaren kabiak kentzeko egindako lanak ere azpimarratu ditu Udalak. Aurten liztor aunitz ikusi da berandu arte, udazkena goxo joan baita. Guztira Beran 28 kabiri eman zaie pozoia. Batzuk suhiltzaile boluntarioek tratatu dituzte eta bertzeak berako mendi batzordeko kide, erlezain eta boluntarioek.

Udaberri aldera tranpak jartzea ere hagitz garrantzitsua da liztor beltzaren aurkako borrokan. Udaberriaren atzetan dira erreginak eta ahalik eta gehien harripatu nahi dituzte. Erlezainen artean tranpak banatzea aurreikusiko du Udalak, baita barrenean jartzeko edaria ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguberrietako ospakizunak

Musika Eskolaren Eguberrietako emanaldiak, Olenzeroren etorrera eta Zahar Etxeko emanaldiak, Urtezahar eguneko Glin-Glan (argazkian) eta Diostesalbe kantuak... Eguberri garaiko ospakizunak izan dira protagonista egunotan eta beti bezala, Errege bezperako Kalgatagarekin bukatu dira.

Ba al zenekien

Tenpora taldeak emanaldia eskainiko duela urtarilaren 16an, larunbat arratseko 8etan Kultur Etxean. Emanaldira sartzeko 6 euroko sarriera ordaindu beharko da.

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

SMAZIZOR
edariak
T./F. 948 631 557
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: mazizorsenper@gmail.com

**EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA**

Saragueta aholkularitza
abokatu bulegoa

Felipe Saragueta. Abokatua
· Zuzenbide administratiboa
· Hirigintza
· Sozietateak
· Nazioarteko zuzenbidea
fsaragueta@abokatua.com

Borja Mujika. Abokatua
· Komunitateak
· Herentziak
· Familia zuzenbidea
· Erreklamazio zibilak
bmujica@abokatua.com

Iparralde karrika 5, behea · 31780 BERA · 948 625 162

KULTURA → URTARRILAREN 16AN

Nafarroako II. Trikiti Jaialdia egingen dute herrian

Zazpi bikote ariko dira larunbat arratsaldean Harriondoan

Aitor AROTZENA

Nafarroako bigarren trikitixa jaialdia egingen dute larunbatean Harriondo Kultur Etxean, 17:30ean hasita. Iker Zubeldiak eta Iban Urdangarinek aurkeztuko duten emanaldian zazpi bikote ariko dira: Iñaki Mendinueta eta Irune Agirre, Kristina eta Amaia, Epelde eta Lutxurdio, Agus Barandiaran (Korrontzi) eta Xabier Berasaluze (Leturia), Edurne Iturbe eta Oihana Irastorza, Jon Ostolaza eta Arnó eta Gari eta Iñaki. Euskal Telebistak ere grabatuko du emanaldia.

Nafarroako Trikitixa Elkartek eta Lesakako trikitixa taldeak antolatu dute jaialdia, udala-

ren eta bertze zenbait erakunderen laguntzaz. Sarrerak eskura daitezke Zialdo ostatuan eta Oninart-en edo erreserba bidez nafarroakotrikitixaelkartea@gmail.com helbide elektronikoan 12 euroren truke. Ondotik aforia izanen da Irubiden (20 euro).

San Anton Eguna

Igandearekin suertatu da aurten urtarrilaren 17a, San Anton Eguna. Hori dela eta, Endara auzoan dagoen San Anton basilizara erromeria egingen da igande honetan. Bertan, goiz eguerdi partean, besta giroa izanen da, postuak, musika, mezak orduero (10:00, 11:00 eta 12:00) eta arratsaldeko 5etan, herriko plazan dantzaldia.

Ospakizuna dela eta Beti Gazte elkarteak, goizean, San Antonera mendi irteera antolatuko du.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Txondorra Saria Olentzeroren ohitura mantentzeagatik

Olentzero eta jaiotza lehiaketa egin zen egunean, herriak sari berezia jaso zuen Iruñeko Udaletxean: hiriburuko udalak eta Olentzeroren Lagunak elkarteak emandako Txondorra saria jaso zuen Jose Luis Etxegarai alkateak herriaren izenean, olentzeroren ohitura bizi mantentzeagatik. Hain zuzen, 1959an Lesakatik jasotako ohituraren lekukoa eraman zuten Iruñera eta hori eskertu nahi izan zuen Iruñeko Udalak, «Frankismoaren garaian ere, ohiturari eutsi ziotelako», Joseba Asiron alkateak azpimarratu zuenez. Bien bitartean, lehiaketan 3 jaiotza eta 21 olentzero atera ziren eta lehiaketaz kanpo, olentzero biziduna, presoekin elkartasuna adierazi zuena eta Beti Gazte elkartearen 75. urteurrenekoa atera ziren.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Ba al zenekien

Xanta Sousa herritarrak laugarren aldiz Euskadiko txinga eramate txapelketa irabazi duela. Abenduaren 20an Asteasun 35 plaza eta 3,70 metro egin zituen.



Eguberrietako nesken I. Frontenis txapelketa

Abenduaren 26an jokatu zen lehen aldiz Lesakan Eguberrietako nesken frontenis txapelketa. Sei bikote aritu ziren eta txapelketako partida guztiak irabazita, Bera-ko Irantzu Etxebeste eta Jone Zelaieta suertatu dira txapelkun. Final estuan 25-23 irabazi zieten Olaia Elizalde eta Alaitz Nuñez baztandarrei.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

LESAKA

KULTURA → URTARRILAREN 21EAN, 20:00ETAN

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Harriondoan joko du

Lesakako Abesbatza eta Doneztebeko Mendi Abesbatzarekin batera

Aitor AROTZENA

Nafarroan barna egiten ari den biraren barnean Nafarroako Orkestra Sinfonikoak, Jesus Etxeberriaren zuzendaritzapean kontzertua eskainiko du, Lesakako Abesbatzarekin eta Doneztebeko Men-

di Abesbatzarekin batera urtarrilaren 21ean, ortzegun arratseko 8etan Harriondoa Kultur Etxean. Sarrera 6 euro kobratuko da. Marisol Perezek zuzenduko du Lesakako Abesbatza eta Jon Irazokik Doneztebekoa.

Biharamunean, hiru musika talde hauek Tallako Kulturgunean eskainiko dute emanaldia.

Taldekako bertso txapelketa

Zazpi hirukotek hartu zuten parte Bortzirie-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Bigarren ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek

Elkartearen 75. urteurreneko ekitaldien baitan, bigarren aldiz ipuin lehiaketa antolatu du Beti Gaztek, Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleei zuzendua. Lehiaketaren gaia kirolariaren esfortzuan oinarriturik zegoen. Erran bezala, parte-hartze handia izan zen eta horregatik, «bai Irain Eskola publikoko baita Tantarumairu ikastolako irakaslegoari lehiaketa izan duten konpromisoa» eskertu die Beti Gaztek eta ehuna euroko saria eman diete bi ikastetxeei. Sarietako dagokienez, 3. eta 4. mailan, lehenbiziko saria Janire Otxandorena Mitxelenak eskuratu du, bigarrena Maitane Erkizia Arburuak eta hirugarrena Maider Mitxelenak. 5. eta 6. mailan lehen saria Naroa Garbisu Etxabidek eskuratu zuen; bigarren saria Sara Txopereña Lacarrentzat izan zen eta hirugarren saria *ex aequo* jaso zuten Ibon Urroso- lo Elgorriaga eta Oihana Arruti Terrerosek.

tako taldekako 17. bertso txapelketa eta Arranon egin zen finalean, *Egarrittuk* taldea (Josu Sanjurjo eta Iban Garro lesakarrak eta *Itturri* zubitarrak osatua) nagusitu zitaion *Fashion Te-*

am taldeari (Eneko Fernandez eta Ioar Tainta lesakarrak eta Manu Goigana irundarra).

Alazne Untxalo iturrendarrak eskuratu zuten bertso onenari emandako Kotto Saria, ob-

jektu bezala sorgin bat emanda egin zuen bertsoari. Bertsolariak ez ezik, gai-emaileak, epai- leak eta musikariak ere Bortzirietako Bertso Eskolak jarri zituen (30 bat laguntzaile).

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA LESAKAN



Ezaugarriak:

- 75 m², distribuzioa bezeroak aukeran
- Oztopo arkitektonikorik gabekoa
- Etxebizita bakoitzak berezko garajea izanen du

135.000€

S AROBE
ERAKUNTZAK

info@sarobe.eus

www.sarobe.eus

639 623 473

mmstudio-k diseinatua
www.mmstudio.info · 651 776 998

ETXALAR



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE

Giro polita izan zen irekiera ekitaldian.

GIZARTEA → ABENDUAREN 12AN

Herriko Ostataua ireki dute berriz ere

Ekitaldiz gainezka joan da abendua

Irune ELIZAGOIEN

Abenduaren 12an ireki zuten berriz ere Herriko Ostataua eta jende aunitz hurbildu zen irekierara. Astelehenetan itxita egonen da eta bertze egun guzietan menuak, plater konbinatuak eta bokatak eskainiko dituzte.

Andre Mari Dantza taldearen alde zozketa

Abenduaren 24an egin zen Altxatak eguberrietarako antolatua zuen zozketa. Honela geratu zen sari banaketa: Lehenengo saria, Izabako Txapatera landetxean 8 lagunendako asteburuko egonaldia, Akokako Milagrosi tokatu zitzaion. Bigarren saria Zalain jatetxean 2 lagunendako otordua, Manuel Retegierentzat izan zen. Hirugarren saria herriko produktuen saskia, 500 zenbakiari

egokitu zitzaion. Zenbaki hau plazako janari dendan saldua da eta saria biltzeko epea hila bete batekoa izanen da 689042621 telefonora deituz.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

80 urtekoei omenaldia Larraburuan

Abenduaren 3an Bazkidearen eguna ospatu zuten Larraburuan eta aurten 80 urte bete dituzten bazkideak omendu zituzten: Francisco Aranburu, Jose Ramon Berroeta, M^a Teresa Irigoien, M^a Asun Iparagirre, Gastone Lestuzzi eta Jose Luis Arretxea.

Pasa dira Eguberriak

Eguraldi ederra lagun, eta aurreikusitako ekintza guziak beteta, datorren urteko eguberri besten esperoan gelditu dira herritarrak. Azken urteetan bezala, aurten ere Olentzero eta Mari Domingi bizidunak hurbildu ziren ilunabarrean eliza eta frontoi ingurura. Eguberrien aitzinetik ere, hainbat ekitaldi egin ziren. Abenduaren 18an Azkoitiko Gurutz Garmendiak *Urola aldeko kontuk eta komerixek* liburua aurkeztu zuen kultur etxean. Hurrengo egunean, herri merkatura zegoela aprobetxatuz, ipuin kontaketa eta gaztain-jatea izan ziren plazan. Haucez gain, azken urteetan bezala, jostailuen truke-azoka eta gozo-eltzeen leherketa egin ziren abenduren 26an.

ARGAZKIA: JON MITXELTORENA

Haur txokoa

Bortzirietako Gizarte zerbitzuak eta Dindaia Fundazioak antolatuta,

eguberrietako oporretarako haur txokoa antolatu zen eskola zaharretan. Abenduaren 23-

tik urtarrilaren 7ra arte izan zen eta Nerea Iparagirre eta Jone Bizen- te egon ziren begirale.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Mus eta partxis txapelketa

Abenduaren 27an egin zuten Larraburuan mus eta partxis txapelketako sari banaketa. Musean irabazleak Santiago Olasagasti eta Joxemari Olagarai izan ziren eta bigarren postuan Jose Luis Arretxea eta Periko Berrueta. Partxisean lehen postua Isabel Berrueta eta Mertxe Santestebanek eskuratu zuten eta bigarrena Juli Elizalde eta Mariester Bereauk.

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak • Burdin tresnak
- Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA
ETXEZ ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
E-NEEK
NEKAZARITZA BILKIDURIA
E-NEEK
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
INSTRUKZIO ZENBAKIA
1435

Goieko **DESINBERA**
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deituz Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

ARANTZA

GERTAERAK → ABENDUAREN 24AN PIZTU ZEN

Suteek gogor astindu dute herria urte akabailan

Arbadi inguruan hasi zen sua eta handik bertze bazterretara hedatu zen

Nerea ALTZURI

Urte akabera mugitua izan da herrian. Egu-berrietako aroko ohiko ekimenak izan dira eta urtero bezala.

Baina, gabon arratsean piztutako sutearen ondorioz, kezka berteriko egunak ere izan ziren. Giro haizetsu eta idorra oztopo izan ziren. Sua kontrolpean izan arren, berpiztu ere egiten zen eta itzaltze lanetan egunak igaro zituzten Nafarroa osoko parkeetatik etorritako suhiltzaileek eta eurekin batera, mendian laguntzen ibilitako hain-

bat herritar eta boluntariok.

Abenduaren 24an piztutako sua kontrolpean zuten larunbaterako. Igandean su ttikiak bakarrik gelditzen ziren baina, arratsean berri ere sua indartu zen haize bolada zakarren ondorioz eta hiru frontetan zabaldu zen: Artikutza aldera, iparralderuntz Lesaka aldera eta Bagatxar-Oilargata ingurura. Abenduaren 28an, bortz eguneko amets gaiztoari akabaila eman zitzaion.

Suak berekin egoeira beltza dakar... kalte handiak eragin eta guztia bereganatzen, desagertarazten baitu. Tartean, ametz, haritz, pago... aunitz erre dira.

Arantzako I. Trikitixa Jaialdia
Ilbeltzaren 23an, larun-



ARGAZKIA: MIKEL LARRETXEIA

Mendiak eta basoak erre zituen urte bukaerako sute handiak.

Ba al zenekien

Urtezahar ilunabarreko Elkartasun Zozketan bertako produktuekin osaturiko gurditxoak, Mari Jose Alzuriri egokitu zaiola eta bildotsa berri, Ana Larretxearentzat izan dela. Zorionak!



ARGAZKIA: AMAIA APAOLAZA

Takoak jartzen ikasten Aratzekin

Oporretan, ikasteko tartea ere izan dute herriko pilota eskolako gaztetxoek. Abenduaren 30ean, takoak paratzen ikasteko ikastoro ttiki bat egin zuten pilotari profesionala izan den Aratz Mendizabalekin. Goizean goiz jeiki izan behar bazuten ere, ederki estimatu zuten ikasitakoak.



Trento, 8 · DONOSTIA | T. 943 316 944
info@dentaltrento.es www.clinicatrento.com

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info



GIZARTEA → ABENDUAREN 15EAN

Eskola zabaltzeko eskaria eraman dute Iruñera

Eskolako eta Herriko Etxeko ordezkariak joan ziren

TTIPI-TTAPA

Eskola ttiki gelditu zaie bertan ari diren ikasle eta irakasleei eta handitze premia azaltzeko, eskolako eta udaleko ordezkariak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuan eta Parlamentuan izan ziren abenduaren 15ean.

Aitor Elexpuru zuzendariak aipatu digunez, «eskolaren arazo handiena espazio falta da. Zazpi ikas talde edo unitate sei gelatan daude. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko 17 ikasleak elkarrekin daude, legez bikoiztuak egon behar ko lirateke, baina ez du-



ARGAZKIA: D. NOTICIAS

Ttikienek ere gogotsu ekin zioten 'Euskaraz bizi nahi dut' lasterketari.

gu gelarik». Hezkuntza -ren kalitate galeran eragiten duten bertzehar batzuk era badituzte eskolan. «Espazio faltagatik ez dugu liburutegirik, hizkuntza eta musika gelarik, Hezkuntza Laguntza Unitateak ere ez du espazio

propiorik» dio Elexpuru-ruk.

Udalak eskolaren handitze integralerako proiektu bat aurkeztu du, 630.407,91 euroko aurrekontua duena eta horren arabera, behe-tiko solairuan dagoen patioa goitikora pasa-

tuko litzateke. «Honek arazoari behin betiko konponbidea emanen lioke, eta gainera Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte Pelle Txiki ludoteka gaur egun) eskolako eraikinean txertatuko genuke», dio zuzendariak.

GIZARTEA

Bai Euskarari zozketako zenbaki saridunak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, urtero bezala, Bai Euskarari zozketa egin du. Lehenbiziko zenbakia, **4.133a**, Etxalarako Herriko Okindegiak banatu du eta Lesakako Mendegia harategiak emandako urdaiazpiko bat izan du saritzat. Bigarren zenbakia, **4.726a**, Igantziko Tania Gonzalez farmaziak banatu du eta Arantzako Aterpe jatetxean bi lagunendako afaria izan du saritzat. Urtarrilaren 29ra arteko epea dute irabazleek saria jasotzeko. Ordurako ez bada inor agertu saria eman gabe geldituko da. 7.000 boleto banatu ditu Mankomunitateak, 70 ziuirta-giridunen artean



bai euskarari zozketa BIZI EUSKARA!
SARIDUNAK 2015eko abenduaren 16an, 09:00etan, Arantzako Herriko Etxean eta udal idazkariaren aitzinean, saritu beharreko 2 zenbakiak zozketatu dira

Saridunek mankomunitatera deitu behar dute (948 634 125 tel.) **2016ko urtarrilaren 29a baino lehen.** Ordurako ez badira zenbaki saridunak agertzen, sariak eman gabe geldituko dira.

1.- Mendegia Harategiak (Lesaka) URDAIAZPIKO BAT
4.133 zenbakia, Etxalarako Herriko Okindegiak banatua

2.- Aterpek (Arantza) BI LAGUNENDAKO AFARIA
4.726 zenbakia, Igantziko Tania Gzlez Ayestaran Farmaziak banatua

Sustatzaileak:

ziurtagiriaren elkartea



baleuskarari.org



Babesleak:

MENDEGIA
harategia



aterpe
albergea jatetxea ostalua



SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → URTE BUKAERA ETA URTE BERRIA

Eguberrietako ospakizunak giro onean

Abesbatzarekin batera herriko haurrek bi abesti kantatu zituzten Eguberri eguneko mezan

Maider PETRIRENA

Abenduaren 22an, eskolako azken egunean, eskolako irakasle eta ikasleek antolatuta goiz polita izan zen. Festa giroan sartzeko 9etan eskolara baserriarrez beztituta joan ziren ikasleak. Ondoren, 09:15 aldera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehendabiziko mailakoek ipuin kontalariaren saioa ikusteko aukera izan zuten Udaletxeko ganbaran. Bukatutako an lehen hezkuntzako gainon -

tzeko ikasleen txanda izan zen. 11:00etan frontoian taloa jateko aukera izan zen. Taloa jan ondoren haur guztiek musikako irakasle den Axunekin ikasitako gabon kanten emanaldi polit bat eskaini zuten: *Kanpaiak*, *Din dan don*, *Elurra mara mara*, *Ole olentzero* eta *Nik maite dut neguan* kantatu zuten. Ondoren Olentzero bizkarrean hartuta herrian barna kalejira egin zuten.

Abenduaren 24an, bertze herrietan bezala, Sunbillan ere ongi etorria egin genion Olentzerori. Menditik heldu zela bere bila joan ginen. Ttikienek auzo bat egin zuten eta haundienek berriz bertze auzoa, errepidearen auzoa. Guztiak Iturbururitik abiatu eta denek frontoian akitu zuten ibilbidea.

Han Olentzerori txoko polit bat jarria zioten, txondorra eta guzti, haur, koxkor, eta nahi zuen guztiak Olentzerori eskutitza, muxuak, argazkiak ateratzeko aukera izan zuten.

Eguberri egunean berriz, goizeko 10etan meza izan zen. Bertan herriko abesbatzak kantatu zuen eta aurtan berrikuntza moduan haurrek bi kanta kantatu zituzten. Bata abesbatza guztiarekin, *Mesias*, eta bertzea berriz, Nieves Biurarenarekin (*Erraiguzu Maria*). Zorionak denei, hurrengo urtean berriz.

Arratsaldean eta ohi-turari jarraituz, gazteak *Eguberri gabean* kanta kantatuz herrian barna egin zuten buelta. Ondoren Iturburur afaldu eta gauz baserrietako buelta egiteko txanda tokatu zitzairen.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Olentzerori ongi-etorria egin zioten herriko haurrek.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Urte zaharrari agurra kantuz

Abenduaren 30ean etxeetan daudenei gabon kantak kantatzera joan da haur eta heldu kuadrilla bat. Kantuarekin batera turroi bana eraman diete. Berdatsi etxeetan kantatzeko aukera izan zuten. Epetxenean, Paskula eta Mañularekin haurrek argazkia atera zuten pasa den urtean bezala.



ARGAZKIAK: BIDAD IBARRA

Urte zaharra eta berria mendian

Abenduaren 27an Ulibeltzak Mendi Taldeak irteera polit bat egin zuten. Trinidad de Irurzun, monte Erga eta Mirador de los Buitres. Urtarrilaren 3an, berriz, Mendaurrera irteera egin zuten.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA, ESTHER EZKURRA, LOURDES INDAKOETXEA ETA ENEKO HERRERA

Eta urte berriari ongi-etorria urtaskekin

Urtarrilaren 1ean urtaskek egin dira urtero bezala urte berri onak emateko. Hemen ere auzoka banatzen dira haurrak bai herrian baita baserrietan ere. Bidasoa ugaldeak banatzen dituen bi auzoetan urtaskek kantatu ziren, herrian eta baserrian. Eguraldiak lagun, urte berria kantuan eta goxoki, intxaur, urra, mandarinak eta hainbat gauza gehiago biltzen hasi zuten. Urte berri on denei.

LITERATURA → ABENDUAREN 23AN BANATU ZITUZTEN SARIAK

Eskualdeko egileen euskarazko lanak saritu ditu Iruñeko Udalak

Dani Martirena legasarrak narrazio laburretan eta Jon Barberena elizondarrak olerkietan lehen sariak lortu dituzte



UTZITAKO ARGAZKIA

Egile berriendako euskarazko literatur lehiaketako saridunak, Asiron alkatearekin.

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Udalak hogeita bosgarren aldiz antolatutako egile berriendako euskarazko literatur lehiaketako sariak banatu dituzte eta oraingoan ere eskualdeko zenbait egile sarituak suertatu dira. Dani Martirena legasarrak narrazio laburrean, Jon Barberena elizondarra olerkietan eta Julio Sotok bertso-paperetan lortu dituzte lehen sariak.

Denera 30 idazlan aurkeztu dituzte Iruñeko Udalak antolatutako lehiaketara, horietatik 20 narrazio laburrak, 6 poesia lan eta 4 bertso-paper. Kategorია bakoi -

tzean lehen saria 2.500 eurokoa da, bigarrena 1.000 eurokoa eta hirugarrena 500 eurokoa.

Narrazio laburrean, aipatu bezala, Legasako Dani Martirenak lortu du lehen saria, *Asteazken hark arrunta behar zuen* idazlanarekin. Historia hurbileneko bizi-zen eta gertakariak biltzen dituen mosaikoa da idazlana. Bigarren saria Xabier Agurruzak eta hirugarrena Raul Morenok eskuratu dituzte.

Olerkietan, lehen saria Elizondoko Jon Barberenak eskuratu du

() *utsunea* lanarekin. Barberenak poetaren hutsunea, maitasunaren hutsunea, hutsune existentziala eta heriotzak etxeko atea jotzean sorrarazten duen hutsunea ditu solasgai. Izenburuari H-a kendu dio eta horretarako Oteizaren solas batzuetan oinarritu da: *Estas haches fónicamente borran, ocultan la imagen visual que contienen, falsifican la escritura*. Bigarren saria ere eskualdeko etorri da, Iban Garro lesakarrak eskuratu baitu *Omar* lanarekin. Inmigrazioaren gaia lan-

du du Garrok olerkietan. Hirugarren saria Odei Ruizek lortu du.

Bertso-paperetan, Julio Sotok lortu du lehen saria, anai baten heriotzak sortzen duen oinazea biltzen duen *Odoletik* xortarengatik. Bigarren saria Eneko Fernandez lesakarrak lortu du, memoria historikoaren oihartzunak biltzen dituen *Larragako loretxoa* lanarekin eta hirugarren saria Julen Zelaientzat izan da, eskolako oroitzapenak umorez lantzen dituen *Ze denbOHOrak* bertso-xortarekin.

BERTSOLARITZA

Bardoak txapelketa eskualdean abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimenak, hirugarren edizioa izango du aurten. Urtarrilaren 22tik martxoaren 19ra bitarte 23 saio antolatuko dira. 16 taldek hartuko dute parte, 121 parte-hartzaileekin. Guztira, 71 bertsolari aterako dira plazara, inoizko kopururik handiena.

Lehen fasea urtarrilaren 22tik otsailaren 7ra bitarte jokatu da, 16 saioekin. Bigarren fasea berriaz, otsailaren 19tik martxoaren 6ra, 6 saio antolatuz. Eta finala, martxoaren 19an izanen da Etxarri-Aranazko frontoian.

Eskualdeko saioei dagokienez, hona hemen lehen fasean izango ditugunak:

• **Urtarrilaren 22an**, ostirala 19:30ean Donamariako herriko ostatua: *Iluminatiums* (Malerreka/Baztan) / *Pirini Bardó* (Pirinioak).

Berako Katakua ostatuan, 21:30ean: *Larungo antenak* (Bera) / *Larraun da Araitz* (Bi dozena).

• **Urtarrilaren 29an**, ostirala, 22:00etan Leitzako Atekabeltz gazetxean, 22:00etan: *Atekaberts* (Leitza) / *Barañetak* (Barañain)

• **Urtarrilaren 31n**, igandea 12:00etan Lesakako Arrano elkartean bertso-saioa: *Unibertsolariak* (Lesaka) / *Bota lasai* (Altsasu)

Lesakako Arrano elkartean, 15:30ean: *Tantirubertso* (Lesaka) / *Atekaberts* (Leitza).

Haurrentzako arropa
0-12 urte

YPAPU

Jaunartzeak

PETRITAS

BERAKETA 15, IRUN
943 02 97 54
ypapuirun@gmail.com

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

TXOTX DENBORALDIAREN
IREKIERA:
URTARRILAK 17

ola

SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

Meaka auzoa z/g · 20304 IRUN · T. 943 623 130
www.olasagardotegia.eus

DONEZTEBE

GIZARTEA → EKITALDI UGARI

Abendu emankorra izan da urtea akitzeko

Ixabel Juanikorenak jaso zuen Zilarrezko Titarea

Marga ERDOZAIN

Abendua hagitz emankorra izan da eta protagonista aunitz izan dira gainera. Abenduaren 2an Tiburtzio Arraztoak Nafarroako Gobernuak ematen duen Kiroli Merezimenduaren Zilarrezko Domina jaso zuen laxoa eta pilotaren aldeko lana sarituz. Abenduaren 5ean Doneztebeko karriketan Malerrek Euskaraz Bizitza Nahi Dut lempaean lasterketa ederrak 105 korrikalari bildu zituen. Egun berean Malerreak Kantuz ekimenak lekuko hartu zion lasterketari, karrikak euskal kanteekin betez. Santa Luziako feriak ere protagonista anitz utzi ditu: Ixabel Juanikorenak ilusioz jantzi zuen 2015eko zilarrezko titarea, bizi osoa josi eta josi pasa ondotik, egun horretan bere bizitzako oihal zatirik ederrena josi zuen herriak egindako omenaldia jasoz. Santa Luzia eguna ere Saharako herriaren aldeko elkartzan egun hunkigarria bilakatu zen. 700 euroko ekarpen ederra

bildu zen herritarrek, udalak, guraso elkarteek eta DBHko ikasleek egindako elkarlanari esker. Honi esker, Saharako basamortuko kanpamenduetaraino ilusioa eraman da dagoneko.

Abenduaren 18an berriz, bi protagonista nagusi izan ziren. Bateatik, Enrike Juanena, Errekak zozketatzen duen saski potolo eta eder- ra eskuratu zuena eta bertetik, musika. Mendi Abesbatzak, Donostiako Txistulari Bandak eta Agorreta Musika Eskolako ikasleek bat eginda Eguberrietako pregoia burutu zuten, kontzertu itzela eskainiz, urtero bezain hunkigarria eta txalogarria. Abenduaren 19an Mendien Eguneko ospakizun- en baitan goi mailako mendizalearen solasaldia arrakastatsua izan zen. Carlos Soriak zinema bete zuen, Soriak bere ibilbide emankor eta bitxiak gozarazi zituen bertaratu zirenak.

Herri txiki infernu handi

Abenduaren 23ak ere argazki ederra utzi digu. Ezkurra pilotalekua lepo bete zen ETB1eko Herri txiki infernu handi saioaren grabazioaz gozatzeko. Harmailak bete eta 160 aulki ge-



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorri jendetsua

Abenduaren 22an San Miguel eskolan eta Askin haur eskolan ibili ondoren, 24an Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan genuen. Txalaparta, dantzari, musikari eta kantuen laguntzaz Doneztebeko karriken barrena ibili zen bikote maitagarri hau. Olentzerok igorritako postontziari esker eskutitz guztiak bildu ziren eta eskatutako opari gehienak banatzeko aukera izan dute. Baten bat faltako balitz aurten ekarriko dutela diote Olentzerok eta Mari Domingiri.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kalitatearekiko konpromisoa ziurtagiria San Miguel ikastetxeak

San Miguel ikastetxeak kalitatearekiko konpromisoa ziurtagiria eskuratu du. 2014-2015 ikasturtean kalitatezko kudeaketa baten alde egindako lana aitortzen duten ziurtagiri hau jaso zuen pasa den abenduaren 17an burututako banaketan. Ziurtagiri hau eskualdeko beste hainbat ikastetxeekin batera lortu du. Zorionak San Miguel ikastetxe osoari.

hiago ere bete ziren. Bertaratu zirenak hasieratik giroan sartu ziren eta erran daiteke hagitz grabaketa beroa eta xal- loa izan zela. Pagadi, Zuhaitz, Lizaso eta lantalde osoari herriak eskerrak eman nahi dizkie hain une politak eta barregarriak biziarazteagatik. Urtarrila- ren 24rako aurreikusia dago telebistan saio ho- nen emanaldia.

MALERREKA

Birziklapen etxola erabilgarri dago

TTIPI-TTAPA

Eskoletako errotondaren ondoko berdegunean kokatu du birziklapen etxola Malerrekako Man- komunitateak hondakin berezien bilketa zerbi- tzua hobetzeko helburuarekin.

Etxolak hainbat leihatila ditu eta bakoitzean hondakin mota bat biltzeko irudia eta testua ager- tzen dira. Hemendik aurrera etxean soberan di- tugun hainbat hondakin bertan botatzeko auke- ra izanen dugu.

GIZARTEA → ILBELTZAREN 17AN

Kasino elkarteak urteko batzarra egingen du igandean

Zuzendaritza
Batzordea
berrituko dute

Marga ERDOZAIN

Igande honetan, urtarrilak 17, urteroko batzarra egingen du Doneztebeko Kasino Elkarteak, 12:00etan lehendabiziko deialdian eta 12:30ean bigarrenan.

Jorratuko dituzten gaiak dagokienez, Zuzendaritza batzordearen berritzea, Bazkideen bajak eta bazkide berrien proposamena eta diru balantzea eta gaur egungo egoera iza-

nen dira, erregu eta galderen txandari ekin aitzinetik.

San Silvestre lasterketa

X. San Silvestrea modu ezin hobean igarozen abenduaren 31n. 70 bat haur eta 145 heldu aritu ziren lasterka giro bikainean, eta eguraldiaren laguntzaz. Nesketan Teresa Jadraquek irabazi zuen berriz ere, Saioa Garbisu eta Ainhoa Arretxearen aitzinetik. Mutiletan Antonio Casadok irabazi zuen lehen aldiz. Iñigo Arregi eta Joseba Larralde osatu zuten podiuma.



ARGAZKIA: CD ERREKA

Mendaur kaxkoan agurtu dute urtea Errekako mendizaleek

Urteetako ohiturari eutsiz, Mendaurko kaxkora igo zen Urtezahar egunean Errekako mendizale talde ederra. Gaietan, argazki dotore hau atera zuten.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

Urtarrilaren 12tik aurrera

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

OSPAKIZUNAK → URTE ZAHARRARI ADIO ETA BERRIARI ONGI ETORRI

Eguberriak joan orduko Inauteriak ate joka ditugu

Errege bezperan joareekin beroketak egin ondotik, inauterietako prestatzen ari dira joaldunak eta mozorroak

Arkaitz MINDEGIA

Gezurra badirudi ere jadanik atzean utziak ditugu Eguberriak.

Pulupako ikasle, irakasle eta gurasoek jaialdi haundi batekin hasi zituzten Eguberrietako oporrak. Lehenagotik prestatutako kantak eta dantzak denen aurrean eskaini zituzten. Akitzeko, Guraso Elkartekoek dirua ateratzeko egin zituzten egutegien salmenta eta zarien boletoen zozketa burutu zuten. Bederatzi zariak badute beraien zenbakia eta batzuk ere saridunak:

1. saskia 0794 Ana Belen izan da sariduna; 2. saskia 0300; 3. saskia 0528 Aitziber izan da sariduna; 4. saskia 0806 Edurne izan da sariduna; 5. saskia 080; 6. saskia 0658 Beatriz izan da bi sarien irabazlea; 8. saskia 0504 eta 9. saskia 0019.

Luntx eder batekin eman zioten lehen hiruhilekoari bukaera.

Eguberri bezperan Olentzeroren bixita izan genuen. Arratsalde partean Aurtiz eta Iturenen



UTZITAKO ARGAZKIAK

Olentzerorekin kalejiran Aurtitzen eta Errege bezperan joareekin Ituren eta Aurtitzen.

barna haurtxoek Eguberrietako kantak kantatu ondotik, ilunabar partean Olentzero bere astoarekin batera menditik herriko plazara etorri zen, joare soinuek gidatuta. Plazara sartzean joaldunak eutsitako antortzek argitzen zioten bidea. Haurrak agurtu, solas batzuk egin eta argazkiak atera eta gero, opariak uzteko ibilbideari ekin zion.

JOALDUNAK HAN-HEMEN

Aurtizkoak eta Iturengo joaldunak han eta hemen ere aritu ziren joare soinuak zabaltzen. Aurtizko joaldunak Elizondoko Olentzeroren ongi etorrian eta Ittungo joaldunak abenduaren 22an Arrasaten eta 24an Barañaingo Olentzeron.

SANTO TOMAS

Urtea bukatu baino lehen Abarun aterpetxe-koek hirugarren aldiz Santo Tomaseko festa antolatu zuten. Txistor pintxoaz gain, Zerribingoa eta euskal bes-ta antolatu zuten.

URTEZAHARRA

Ederki bukatu eta hasi dugu urtea, hamabi mahatsak ezkil doinuez janaz eta besta pixkot eginaz. Horretarako aukera eman zuten Itturengo Herriko ostatuak antolatu zuen kotillollak ere.

ERREGE BEZPERA

Errege bezperan ez da kabalgatari izaten ez Aurtitzen ezta Iturenen ere, baina aspaldiko ohiturari jarraituz joare soinuak entzuten di-

ra arratsaldetik goizeko ordu tikiak arte. Arratsalde partean hurrek joareak jarri eta dantzatu zituzten. Gauean Abarunen eta Ittungan herriko ostatuetan antolatuak zeuden afarien ondoren, gazte eta helduek beraien joareak jantziz, herriko kaleak alaitu ondotik Aurtiz, Ituren eta Zubietan barna zabaldu zituzten beraien joare soinuak, bestearekin tartekatuz.

Errege bezperan beroketak egin ondotik Inauterietarako prestatzen hasiak gara, Joaldunen jantzia prestatzen, mozorroak beraien kareta, jantziak bilatzen eta karrozak egiten hasiak... Egitarauaren berri zehatzagoa aldirikari honetako gehigarri berezian duzue.

LANA

1.010 lagun lanik gabe zeuden urte bukaeran

TTIPI-TTAPA

2015. urte bukaeran 1.010 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, azaroan baino 28 gehiago. Milla langabetuko langa berriz gaudituta bada ere, azkeneko urte bukaerei erreparatuta daturik baikorrena da, iazko abenduan baino 174 langabetu guttiago baitira edo 2013koan baino 387 guttiago, errerako.

2015eko abendu-ko gorabeherak kontuan hartuz, 527 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 37 bakarrik mugagabeak.

URTEKO ERREPASOA

2014. urtea 1.184 langabeterekin bukatu ondotik, 2015eko urtarrila berriz ere ilbeltza izan zen eta 74 lagun gehiago izan ziren langabezian, 1.258. Otsailean 1.221era jautsi zen (-37); martxoan 1.212ra jautsi zen (-9); apirilean 1.168 (-44); maiatzean 1.078 (-90); ekainean ere jautsiera nabarmena izan zen eta 2009ko azaroaz geroztik lehen aldiz milla langabetu baino guttiago zituen eskualdeak, 983 (-95); uztailan 981 (-2); abuztuan 994 (+13); irailean eman zen urte osko daturik onena, 962 langabeterekin (-32); urrian 965 (+3); azaroan 982 (+17) eta abenduan 28 gehiago (1.010 denera).

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Lehen aldiz Eguberrietako zuhaitza jarri dute plazan

Txitxillo gaztegunearen eskutik Mendaurrera igo da herritar kuadrila Urtezahar egunean

Fermin ETXEKOLONEA

Zenbait nobedade izan dira Eguberrietan. Lehen aldiz, herritarren eta udalaren artean zuhaitza apaindu dute plazan. Festetan arbola altxatzeko eta inauterietan ez ezik, bertze erabilera eman diote horretarako prest dagoen zuloari. Berezia izan da eta alaitasuna eman dio plazari.

Txitxillo gazte eta haurren guneko Guraso Elkarteak antolatuta Mendaurrera mendi ateraldia egin zuten Urtezahar egunean. 8:30ean plazatik abiatu ziren oinez joan zirenak eta bertze batzuk autoz ltu-rengo enbalteetara joan ziren, handik igotzeko.

Eguberri bezperan Olentzerori eta Maridomingiri ere harrera egin zieten. Herriko etxeke estalpean opariak banatu zituzten.

URTE BERRIAN ERE LANEAN

Txitxillok lanean segitzen du urte berrian ere. Urtarrilaren 3an, Susana ipuin kontalariak ipuinak ingelesez kontatu zituen eskola zaharreko egoitzan. Aurrera begira, San Anton egunerako orri-markatzeko batzuk saltzen ari dira. Euro batean saltzen dituzte eta San Anton egunean zozketatuko dute. Herriko Ostatuan ikusgai dago saskia.

Urtarrilaren 17an ospatuko da San Anton eguna, betiko egitarauarekin. Lehen aziendak emateko ohitura izaten zen, baina hori galtzen joan da. Goizean meza izanen da, trikitilarekin hamaiketako baseliza atarian. Arratsaldean udalak txokolatea banatuko du herriko estalpean eta bidenabar herriko musikariak ere ariko dira ilunabarrean.



ARGAZKIA: ERNESTO DOMINGUEZ

Trikitilariak eta panderojoleak lehen aldiz jarri den Eguberrietako zuhaitzaren aurrean; Olentzero eta Maridomingiri ongietorria eta zubietarrak Mendaurren.



PUNTXAS

Olentzero joan da baino guk egunero lanean jarraituko dugu

Barrio Behobia s/n · 20305 IRUN · 943 63 82 24



EZKURRA

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIEI ERREPASOA

Lehen aldiz Olentzero jarri dute Udaletxean

Koloretako argiekin apaindua

Fernando ETXEBERRIA

Urte berrian sartu garenez, hasteko herritar guztion izenean 2016 zorientzua opa dizuegu irakurle guztioi. Sekula baino gehiago nabaritu da eguberri giroa herrian, Udalak lehenbizikoz Olentzeroa jarri baitu udaletxean, koloretako argiekin apaindua. Detaile polita izan da. Abenduaren 31n, azken urteetako ohiturarekin segiz, talde polita bildu zen Barrankan afaldu eta urte berrira alaita-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA
Udaletxeko balkoian jarri zuten Olentzero dotorea.

sun, kantu eta dantza tartean sartzeko.

Errege bezperan, Elizalde-Etxeberria bikoteak



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Zubi berria, auzolanean eraikia

Auzolanerako tartea ere izan da abenduan. Duela hilabete dezente izan ziren eurite bortitzen ondorioz, egurrezko zubitxo bat eraitsi zen. Boluntario kuadrila bat bildu eta zubi berri bat eraiki dute aurrekoa zegoena baino pixkatxo bat gorago.

Urrezko Ezteiak ospatu zituen elizan. Hurren-

go alean izanen duzue honen berri zabalago.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

Gabon egunean kantari ibili da taldea

Beintzako Ostatuan berendatzen akitu zuten

Arantxa ITURRALDE

Eguberriak igaro dira eta urteroko ohiturari eutsiz, gabon gaueko arratsaldean, Beintza Labaiengo taldetxo bat atera zen kantuan karrikan barrena. Etxez etxe ibili ondoren eta haize hotzari aurre eginez, Beintzako ostatuan berrendu goxo batekin berretzeko aukera izan zen.



Haize hotzari aurre eginez taldetxo polit hau ibili zen karrikan kantari Gabon egunez.

ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

LEITZAKO IHOTEAK

Ilbeltzak 23, 24, 25, 26 eta 27



ILBELTZAK 25, astelehena
09:00etan gazteak elkartuko dira Aurrera parean Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka auzoetara **eskean** joateko. Baserrietan dabilizan bitartean, herrian, **17:00 umeen kalejira** izanen da, musikaz alaiturik. **Ondoren** txokolatada eta goxokiak banatuko dizkiete. **Iluntzean eta gauean** Joxe Mendizabalen musika emanaldia izanen da.



ILBELTZAK 23, larunbata

14:00etan Aurrera elkartearen **bazkaria** izanen da eskean ibiliko direnentzat. **16:00 aldera** eskean hasiko dira herriko etxe-etan. **20:00etatik aitzinera, Ateka-beltzen pesta** izanen da eta **goizaldean kalejira** eginen da plazatik Ateka-beltzera eta ondoren **karaokea**.



ILBELTZAK 24, igandea

12:00 mozerro eta gurdia kalejiran aterako dira Incansables txarangarekin. Etxeko txikienek **txu-txu trenean** ibiltzeko aukera izanen dute eguerdi eta arratsaldean. **14:30 atsauretuek bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta **19:00-23:00** Joxe Mendizabalekin musika.



ILBELTZAK 26, asteartea

09:30ean dute hitzordua mozerroek Erasote auzora abiatzeko **eskean**. **Goizean eta arratsaldean** puzgarriak eta jokoak izanen dira haurrentzat frontoian. **14:00** Aurrerako bazkideen bazkaria izango da eta atsaureak berriz Ateka-beltzen bazkalduko dute. **16:00etatik 18:00etara** jokoak antolatu dituzte frontoian. **18:30 Atsaureen kalejira** musikaz lagunduta. **Ondoren** musika emanaldia izanen da.

ILBELTZAK 27, asteazkena

16:00etan Umeentzako ikuskizuna.



AINART
ILEAPAINDEGIA

ONGI PASA IHOTEAK

Elbarren, 67 behea · LEITZA
948 510 197



ONGI PASA IHOTEAK!

Lizarraga
harategia

"GUREA, KALITATEA"

Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

DENAUTO SAGASPER
Tailerra

Ongi pasa ihoteak!!!

AUTO KONPONKETA

Eluseder Ind. · ARESO · T 948 510 610 · F 948 510 917

Ongi pasa ihoteak!



FISIOTEXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

CPS-1824C/MNA · 026 kolegiatu zenbakia

Bizkortze ariketak · Kirol eta Zirkulazio Masajea · Osteopatia
Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
Etxez etxeko laguntza · Aseguruak
Mutuak · Partikularrak

Huarte Gotzaia, 8 3.C · LEITZA · Tel: 948 510 730

Aritzela

DEKORAZIO
TAILERRA

ONGI PASA INAUTERIAK!

- Etxerako arropa, maindirek, koltxak, nordikoak, mantak, sofarako fundak...
- KORTINAK: ehunak, barrak, mekanismoak, kortinak egiteko pieza guztiak...
- INAUTERITAKO TELAK ETA EUSKAL JANTZIAK
- SUJETADOREAK ETA BAINUJANTZIAK: neurriera eskatzen ditugu, zure forma eta neurriera egokitzten direnak eta oso prezio onean



T. 948 61 06 11 - ariztela2010@gmail.com
Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)

KIDE
aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitopenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihoteak

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 · T.948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Urbietan, 60 - 1ºEzk · T. 943 420 348 F. 943 441 838
izaskun@kide.eus · www.kide.eus

OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 629 418 431 • 606 307 810

SAGASTI
JATETXEA

ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 98 • LEITZA • 948 610 637

**OGI BERRI**
ARTESANOS PANADEROS**KAFETEGI**
OKINDEGIA

948 610 974 | LEITZA



ONGI PASA IHOTEAK!

Melo
Pinturak

T. 609 873 178

LEITZA

www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.comongi pasa
ihoteak!**MAIMUR**

ongi pasa ihoteak!

- Prentsa • opariak • testu liburuak
- Plastifikatzeak • enkuadernatzeak
- Inprenta lanak • fotokopiak

Herriko Plaza
LEITZATfnoa-Faxa:
948 510 146**LEITZELARREA S.L.**

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 • 669 368 991
LEITZA**EZKAIN** eraikuntzak S.L.ongi pasa
inauteak !!Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T./F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com**LEITZAKO IHOTEAK**

Ibeltzak 23, 24, 25 eta 26

Unai ZABALETA

«Eguraldia eguraldi, ez dadila aitzakia izan parte ez hartzeko, atsauretu eta herria kolorez bete dezagun»



Inauteri hitza aditu orduko irribarra datorkio Unairi aurpegira. Zalea da oso «festa parte hartzaileak direlako, oso desberdinak, kalean giro berezia sortzen da» Gainera, atsauretzeara ere oso gustuko du «edozein zarpa hartu, goitik behera jantzi eta kalera ateratzea». Argi du inauterietako urrezko araua horixe dela, «pestaraz sartzeko, pestara hurbiltzeko beharrezkoa da, ihoteak atsauretzeko dira». Alde horretatik, igandeko gurdien desfileari begira, bere ustez, «polita litzake, desfilea ikustera etortzen direnak ere atsauretzeara. Ekitaldi hori ikuskizun hutsa izan beharrean, denok festaren parte bihurtzea. Besterik ez bada txapela bat jantzea, kolorez emateko kaleei». Umetatik izan da inauterizalea, «gogoan dut ikastolan ospatzen ginen festa, urtero ateratzen gi-

nen. Aurreko hilabeteetako prestaketak mundialak izaten ziren!». Helduen orduko atsaureak ere gogoan ditu «jendea oraindik aurpegia estalita nola atsauretzen zen, lehengo inauteria hori zen. Aurpegia estalita, ttutturroarekin, atsotuta... ibiltzen ziren».

ATSAURE ZERRENDA LUZEA

Berak ere, atsaure zerrenda luzea osatuko luke orain arteko guztiak zenbatzen hasiko balitz. Hala ere, «atsaureak berak baino, paperean sartzeko ematen duen aukerak du garrantzia» beretzat. Orain artekoetatik, «gogoan dut desfilea egiten ez zen garaian, traktore bat hartu, gurdia egin eta Felipe Gonzalez eta Aznar elkarrekin sesioan irudikatu genituela, bizkarzain eta guzti». Ingu-rukoen barre algarak ere eragin dituzte maiz «abionetak egin genituen, gu pilotoak ginen eta kalean gora eta behera ibiltzen ginen ziztu batean. Zerbitzariz ere atera ginen patinak jantzita. Pentsatzen jarrita... a ze harrikada ginen, ez dakit nola ez ginen aberiarik egin!».

«Lau egunak oso bereziak dira, laurak bizi beharrekoak eta asteazkenara arte luzatuko balira, egun horretan ere festa egingen nukeen»

Azken urteetan, arrazoi bat eta beste tarteko «atsaureak gutxixeago» prestatzen dituela aipatu du «orain azkeneko momentuan etxera joan eta urte desberdinetako atsaureren puskak hartu eta berri bat osatzen dut. Jantzi beti ere. Osagarriak erosita ematen diet ukitu berezia».

Inauteriak larunbatean hasi eta asteartera arte, «lau egunak bizi» ditu, «laurak oso desberdinak eta bizi beharrekoak dira eta asteazkenara arte luzatuko balira, egun horretan ere festa eginen nukeen».

Inauteriak bizitzeko modua zertan aldatu den galdetuta «garaia aldatu direla» iruditzen zaio «garai batean parranda eta festa latza izaten ziren, astez eta baita gauetan ere. Gauetan orain ez bada larunbata eta asteartean, ez da izaten horrelako zera handiegirik. Gu astelehen eta igande gauetan ederrak eginak gara eta jende askorekin gainera».

INAUTERIA MUSIKARI LOTUTA

Inauteriak eta musika ere estuki lotuak egon dira Unairentzat, «urte askoan txaranga jotzea egokitu zait, astelehenetako baserrietako eskean. Gero txaranga utzi nuenean ordezko lan batzuk egitera ere joan izan naiz. Azken urteetan asteartean Erasotera joaten naiz txistua jotzera eta iluntzean egiten den atsaure kalejiran ere klarinetearekin atera izan naiz». Leitzako inauterei doinua jartzeko eskatuta, «Arbola kantuekin lotzen dira gure inauteriak. Eskelariak kantu horrekin etortzen dira herrira bueltan baserrietatik. Baina egiaz, bestarako abesti guztiek balio dute». Eskean sortzen den giro berezia ere nabarmendu nahi izan du «txistulariek garai bateko kantarik, txistulari zaharragoei ikasitakoak jo eta abesten dituzte. Letra ederrak izaten dira, oso bereziak eta ohitura mantentzen dute».

Dagoeneko atzera kontaketa hasia du «San Sebastianak pasa orduko nabaritzen zait felizadade punttu hori. Egun batzuk lehenago burua lanean hasten zait, zapela hau hartu, honi galtza motz, galtza, gona edo soineko hau jarri behar diot... betaurreko eta aterki hau hartu behar dut». Larunbatean, Aurrerako eskelarien bazkaria prestatzen hasiko ditu inauteriak, segidan etorriko dira mahai inguruko kontuak, atsaureak, parrandak.... «gorputzak nahikoa da esan arte. Denaz gozatu nahi izaten dut, gauean festan ibili eta biharamunean berriz goizean goiz kalera ateratzea». Lau eguneko festaren ondotik, «lehertuta egon arren, etxera noa baina ikaragarritzko penarekin, bukatu diren pena horrekin». Leitzako inauterietan Unairekin topo egin nahi baduzue, has zaitezte trapu eta ileordeen azpian begira edo Erasoteko eskean joan txistu doinuei segika.



Aliprox

Urdastegia | Harategia | Arraindegia | Prustategia

Tel: 948 510 007 · 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa ihoteak!

Dia OKABIO

ihote zoriontsuak opa dizkizuegu!

SUPERMERKATUA KAFATEGIA

T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza

TXOKO taberna

Pintxoak Otartekoak

ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 22 · LEITZA · Tel: 948 510 227

Olaia Bazar

ONGI PASA IHOTEAK

Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Etxeko Tresnak
Garbiketarako Produktuak
Herramientak - Oinetakoak
Pijamak - Osagarriak

Landabekoa - Leitza - T. 948 510 437 - 667 675 463

LEIMEN S.L

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Ihote zoriontsuak deno!!

MUSUNZAR OSTATU-JAETETXEA

ONGI PASA IHOTEAK

facebook
twitter

Elbarren, 14
948 51 06 07
31880 LEITZA

www.musunzar.com

ARANTZAKO INAUTERIAK

Ilbeltzak 21, 22 eta 23

ongi pasa inauteriak!



aterpe

albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

PRIMI
ostatua

ongi pasa inauteriak!

Tel. 948 634 052

Goiko karrika, 7 · ARANTZA



GOIENBURU

iturgintza

iturgintza, kalefakzioa eta gasa

eguzki plakak eta biomasa

egurrezko kalderak eta aeroterma

goienburu@gmail.com

Goienburu, 10 · 31790 ARANTZA · 600 902 723

ongi pasa inauteriak!



ilargi
okindegia

ongi pasa inauteriak!




Enkarguak 948 634 156 · ARANTZA



ILBELTZAK 21, ortzeguna

09:00etan Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik** eskolako neska-mutikoei **bisita** egingen diete bizkarrekoak paratzeko. **Segidan** bi taldetan banatuta Mozorro Zuriak lau baserri auzoetara joanen dira Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilarien laguntzarekin. **Egun guztia baserriz-baserri eskean** ibiliko dira. **Arratsaldean** mozorro **besta** eskolan. **Gauean** Mozorro Zurien **afaria** Primi ostatuan.

garikanorekin. **Gauean** Emakumeen **afaria**. **Gauerditik aitzinera** dantzaldia Gorapean Beñat eta Fernandorekin.



ILBELTZAK 22, ortzirala

Goizean Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik** herrian **barna eskean** etxez etxe eskean, musikariaren laguntzarekin. **Eguerdian** Mozorro Zurien **bazkaria** Burlada ostatuan. **Egun osoan** eskolako neska-mutikoak **baserriz baserri puxka-puxka** ibiliko dira. **Gauean** bertso **afaria** Aterpean Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peña-

ILBELTZAK 23, larunbata

Eguerdian Mozorro Zurien **bazkaria** Pabloenean. **Arratsaldean** herriko **ttiki eta gaztetxo mozorrotuen** kalejira. **17:00etan** Arantzako I. Trikitixa Jaialdia frontoian **Ondotik** herri kirol **saioa** frontoian. **Gauean** Mozorro Zurien **afaria** Ekaitza Elkartean. **Gauerditik aitzinera** dantzaldia Gorapean Oharkabe taldearekin.



Luis
Ibarra

Zurgin lanak orokorrean

636 701 204

luisibarra86@hotmail.es t2. 690 388 263
Salbatore karrika, 28 - 31790 ARANTZA (Na) f

Armairuak
Leihoak
Ateak
Teilatu berriak
Parke flotantea
Tarima
Teilatu
zaharberritzeak



Rafa ERRANDONEA ORDOKI

«Baserri giroa eta baserritarren harrera txapela kentzeko modukoa da»



Odolean zekarren Rafak inauterietarako zaletasuna «**etxean atta-osabak denak mozorro xuri izandakoak, tokatzen zen ni ere zalea izatea. Ttikitan mozorro xuriei inbidiaz begira egoten nintzen**». Hemeretzi urte bete zituenean atera zen lehenbizikoz mozorro xurien taldean eta 12 urtez bestan ibili ondotik, «**31 urterekin**» atera zen azkenekoz. Mozorro xuri bezala «**aunitz disfrutatu dut eta gure egin-beharrak betetzen saiatu naiz**». Gauza jakina da, Arantzako inauteririk ez lego-keela mozorro xuririk gabe, «**dudarik gabe, ezta gure garaian ibili ziren herriko neska gazte haiek gabe ere, beraien doinuekin momentu guziak alaituz**».

Hainbeste urtean bizi izandako anekdotak idazten hasi ezkeru «**liburu potolo bat eskas**» geratuko zitzaiea aitortu digu «**haien artean kontatzeko moduko bat: Baserriz-baserri genbiltzan batean etxeko zapatilla sartu genuen sutondoan zegoen aza eltze barrenean. Beranduago, ondoko baserritik deitu genuen aza ona zegoen edo ez galdetzeko eta etxeko andrearen hitzak hauek izan ziren: *zapatilla labadoratik ate berria genuen ta sekula biño hobea jan dugu aza!*. Eskertzekoa da etxekoandrearen umorea».**

Bere garaiko inauterien eta gaur egungoen artean, alde nabari du «**nere ustez lehen inauteriak gehigo bizitzen ziren, ortzegunetik igandera a tope, astelehena jai edo behar bazen aste guzia hartzen genuen. Orain berriz, ortzegunetik larunbatera eta ia asteleheneko lanorduak burutan...**». Mozorro xurietan, ezkon urtea azken urtea izan ohi da eta bete du errana baina «**inbidia ikaragarria**» izaten du «**lehen kuadrilan ibilitakoak elkarri deitzen diogu ortzegun goizetan; nahi eta ezin**». Inauterietako egunik ederrena aipatzerakoan ere «**dudarik gabe ortzeguna**» eta zehatzago erranda «**ortzegun goizeko gosaria**» aipatu du. «**Baserrri giroa eta baserritarren harrera txapela kentzeko modukoa**» direla nabarmendu du «**beraiek gabe ez legoke inauteriarik**». Eta bere esku balego, «**inauterietan zerbait aldatzekotan ortzeguna 48 ordukoa eginen nuke**». Gaur egun, egunez egun «**ortzeguna inbidiarekin. Ortziralean lagunekin bertso afarira eta juerga pixka bat. Larunbatean familiarekin, arratsaldez kalejiran ibiltzen gara mozorrotuta eta ilunabarrean frontoian mozorro xurien herri kirolak ikustera joaten gara**».



Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

ongi pasa inauteriak!!

froling

Gasa Ura Kalefakzioa

Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
686 23 52 30
patximutu@hotmail.com

ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45 - BERA

TOMAS TELLETXEA
zaharberritzeak

Esperientzia handiz edozein motatako erreformak egiten dira

Salbatore karrika, 22
31790 ARANTZA
Telf.: 686 348 355
tellecheatomas@gmail.com

Ongi pasa inauteriak!!

ARANTZAKO UDALAK

inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei



Lizun
GAZTANDEGIA

ONGI PASA INAUTERIAKI!

Sunbilla · Tel: 948 450 862



SASOI
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 F. 948 456 168
info@sasoi.es

ONGI PASA INAUTERIAKI!



ONGI PASA
INAUTERIAKI!

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

Leku-Eder, Bustitz · 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es · Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 · 699 461 394

SU EGURRA ETA
PIKETEA SALGAI

Bustitz ostatua
ONGI PASA INAUTERIAKI!

PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK
HAMAIKETAKOAK · KAXULAK

T. 948 450 504 - Leku Eder - SUNBILLA



Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAKI!

T. 948 450 399 · 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK · GREMIOEN KOORDINAZIOA
MOTA GUZTIETAKO IGELTSEKITZA LANAK

ONGI PASA
INAUTERIAKI!

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak · Teilatuak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zoruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigoio lanak

T. 699 122 815
31791 - SUNBILLA
(Nafarroa)

SUNBILLAKO INAUTERIAK

Ilbeltzak 29, 30 eta 31



ILBELTZAK 29, ortzirala

09:00etan gazteek **gosaria** Ariztigain kanpinean. **Ondotik** 2 taldetan banatu eta baserrietara joanen dira, Modesto eta Joxe Angel akordeolariarekin. **Bazkaria** Ixtola eta Exkernekobordan. **Arratsaldean** herriko haurrentzako **txokolate** beroa eta **17:00/20:30ean** Agerralde akordeolariarekin dantzaldia frontoian, Guraso Elkarteak antolatuta. **21:30ean** eskean dabiltzanen afaria Itturburun. **Gaean** Emakumeen afaria Ulibeltzak Elkartearen eta afal ondotik **sorpresa** izanen da.



ILBELTZAK 30, larunbata

10:00etan Bustitz ostatuan gosaldun ondokik gazteek **eskean** ibiliko dira Beñat akordeolariarekin. **Ondotik** bazkaria egiten dute Fondan. **17:00/21:00etan** umeentzako **berendua** eta disko jaiak Ulibeltzak Elkartearen. **Gaean** gazteek **afaria** Elortxurin.



ILBELTZAK 31, igandea

11:00etan karrozen **desfilea** opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko ditu Ulibeltzak Elkarteak ikusleentzatean. Desfilea bukatzerakoan **zozketa**: zerria eta bildotsa. **14:30ean** bazkaria Ulibeltzak Elkartearen. **Dantzaldia** Santxotenaren eskutik.



SUNBILLAKO UDALAK

Inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
sunbildar eta
bisitari guztioi



Ainhoa ETXEBESTE ARRETXXEA

«Emakume afaria antolatzen hasi izanak, inauteriak bizitzeko modua aldatu zuen»

Kafe baten buelta sortu zitzairen Ainhoa eta herriko hiruzpalau emakumeri inauterietan Emakume Afaria antolatzeko ideia. Ordura arte «**inauterietan gizonezkoak eskean ateratzen ziren eta ez zen ezer gehiago izaten**». Baina urte hartan, hamabost bat egun lehenago, hiruzpalau emakume inauterietaz hizketan hasi eta «**batek afaria antolatzen ahal genuela, bertzeak mozorrotuak joaten ahal ginela, bertzeak gizonezkoei afaria prestatu eta zerbitzatzea proposatuko geniela... kartelak jarri genituen eta izugarrizko arrakasta izan zuen**». Gaur egunera arte mantendu da arrakasta «**oso giro ona izaten da eta herriko emakumeak egun hori iristeko irrikitan egoten dira**». Afaria antolatzen hasi izanak «**aldaketa handia**» ekarri zuen, «**gaueko giroan nabari da aldea, lehenago eskean ibiltzen ziren gazteak bakarrik ateratzen ziren eta orain berriz, nik uste herri gehiena ateratzen dela afariaren aitzakian**».

Aurreko hilabeteetan «**pereza pixka bat**» izaten duela aitortu arren, «**inauteriak iristen direnean urtero bezala animatu**» egiten dela dio, «**egun alaiak eta oso politak direlako. Jendearen ilusioa eta herri-tarren elkartasuna dira Sunbillako inauterien**

«**Herritarren arteko elkartasuna eta aurretik eta egunean bertan nabari den ilusioa azpimarratu behar dira**»

berezitasunak. Inauterietan hiru egunez luzatzen da besta Sunbillan eta Ainhoaren ustez «**hiru egunek badute bere berexitasuna**». Ortziralean

goizeko bederatzia aldera gazteak gosaltzeko gelditu eta ondoren, baserrietan barna eskean hasen dira «**gure etxera hamaikak aldera etortzen dira. Oso polita izaten da hori, kristoren ambientea jartzen dute**». Ostiralean, «**emakume afaria eta ondotik egiten den festa ere izugarria izaten da**». Antolakuntza lanak tarteko, ortziralean bakarrik mozorrotzeko ohitura du berak «**egun horretan bertan ganbarara joan eta azken orduko lau trapurekin ateratzen naiz**».

Larunbata eta igandeak ere bere xarma badutela dio «**larunbatean kanpotar jendea ere mozorrotuta agertu eta inauteri giroa mantentzen delako. Igandean herritarren ilusioa nabarmendu behar da, karroza atera aurretik gosalduta eta ibilbidea egin ondoren elkarteko bazkarian sortzen den giroa**».



HARATEGIA CARNICERIA

M^a JESUS

Karrika Nagusia, 11 · SUNBILLA
T. 948 451 530 · M. 686 279 252

ONGI PASA INAUTERIAK

ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA
ETXEKO PRODUKTU PRESTATUAK
ZONALDEKO GAZTAK

JANARI-JENDA

MARISOL ONGI PASA INAUTERIAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

Iarreta SUNBILLA BERA

IGELTSU PROIEKTATUA · PLADUR LANAK
ISOLAMENDUAK: Termikoa · Akustikoa

Gorka Arretxea 627.225.514 | Juanen Saralegi 637.921.299
E. iarretaigeltsua@gmail.com

INAUTERIE TAN zure gosari eta bazkariak ARIZTIGAIN KANPINEAN!!

ONGI PASA INAUTERIAK!!

SUNBILLA • 948 450 540
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

MENDEBERRIA eskabazioak S.L.

ONGI PASA INAUTERIAK

GARRAIOKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

trans-amalur S.L. garraioak

LEKU EDER 13 · 31791 SUNBILLA

675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 · 672 098 384

ITUREN, AURTITZ ETA ZUBIETA

Ilbeltzak 28, 30, 31 eta Otsailak 1, 2 eta 3

ALTXUNEA ERRETEGIA
ongi pasa inauteriak!
IREKITA
ostiral eguerditik igande eguerdira,
besta egunetan eta besta bezperatan

Kontsejo, 27 - ITUREN
T. 948 450 410



ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA
ONGI PASA INAUTERIAK

PINTXOAK | BOKATAK | BAZKARIAK | AFARIAK

T. 948 920 948 · ZUBIETA



HERRIKO OSTATUA
ITUREN

T. 948 451 737 · 629 349 713

Pintxoak · Bokatak · Plater konbinatuak · Egunko Menua
Ostirala eta larunbatetan sagardotegiko menua · Igande eta jaiegunetan menu berezia
Enkarguz espezialitateak: bildotza eta oilasko erreza



ongi pasa inauteriak

MINDEGIA ZURGINDEGIA

T. 948 451 906 · M. 689 531 012
31745 AURTITZ
carpimindegia@yahoo.es
www.mindegia.com

ATEAK · TARIMAK · LEIHOAK · TEILATUAK · PARKETAK
ARMAIRUAK · ESKAILERAK · SUKALDEAK
BERRIKUNTZA LEIHO MIXTOAK (EGURRA-ALUMINIOA)



MADERAS SANTESTEBAN

Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak
Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatuak
Osagarriak
Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com




OTSAILAK 1, astelehena

Goizean Zubietako joaldunek, mozorro eta karrozek lagunduta, **bisita** egingen diete aurtiztarrei. Herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik Iturenera joanen dira. **Lasagako Zarandia** parean, Ituren-go joaldunekin elkartu eta herrian barna buelta emanen dute. Joaldunek aperitiboa hartzen duten bitartean, Ituren-go plazan karroza bakoitzak eta **mozorroek** beren **ikusbizuna** egingen dute, joaldunek uxatu baino lehen.



OTSAILAK 6 eta 7, larunbata eta igandea

Kontuen eguna da Iturenen inauterietako azkena. Egun horretan ez da joaririk jotzen. Inauteriak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen, eta Aurtizen igandean. Iturenen bazkaria izanen dute Herriko Etxeko ganbaran. Bazkaldu aitzinetik herriko dantzarien saioa eta bertsolariak eta aizkora apustua izanen dira herriko plazan. Bazkaldu ondotik dantzaldia eta kontuen afaria. Aurtizen xaharren afaria egingen dute igandean.

OTSAILAK 2, asteartea

Goizean Ituren eta Aurtizko joaldunek bisita bueltatuko diete zubietarrei.



OTSAILAK 3, asteazkena

Zubietan hau izaten da inauterietako azken eguna. Eguerdian bazkaldu ondotik kontuak egiten dira. Ondotik joareak jarri eta Aurtitz eta iturenarrei azken bisita egiten zaie ilunabarrean. **Aurtiztar eta iturenarrek** berriaz asteazkenean bazkaria izanen dute eta arratsaldean etxetik ibiliko dira joare eta trikitilariarekin. Ondotik afariak izanen dira elkartean.



ONGI PASA INAUTEAK!

BEROTZA
PELLET

PELLET SISTEMEN SALMENTA, INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)



BEROGAILUA



GALDARA



GALDARA MISTOA



OKINDEGIKO LABEA

Jose Ignacio ARIZTEGI | Iturengo mozorroa

«Inauterietako astelehena urte osoko egun bereziena da»

Ezagutzen dutenek badakite Jose Ignaciok inauterietan mozorrotzea zein gustuko duen. Urte guztian zehar itxarondako egun hauetan «**bestazale eta harrotu**» moduan deskribatu du bere burua «egun horietan bai, dudarik gabe hagitz harrotuta» egoten omen da. Tikitan mozorrotu izanaren oroitzapen gehiegirik ez du, baina «**28-30 urte inguru**» daramatza Iturengo inauterietan mozorrotzen eta «**aunitz**» gustatzen zaio, bai berari «**baita senideei ere**». Ohitura hau «**herentzia moduan**» jaso dutela dio, «**familian baziren gure gisara mozorrotzen ibiltzen ziren saltsero batzuk ere**».

Mozorroa «**azken momentuan**» erabakitzen du, askotan «**egun horretan bertan edo batzuetan larunbateko lehenbiziko afarian solastu eta gero**». Hala ere, beti aurpegia estalita eramatea hagitz garrantzitsua iruditzen zaio, «**aurpegia tapatuta eramatea da mozorroa**». Nahiz eta «**altueragatik edota ibiltzeko moduagatik batzuetan herrikoek badakiten nor naizen**» misterioari eusteko, «**azken momentura arte**» saiatzten da «**kareta ez kentzen**». Ez zaio «**batere gustatzen inauterietan aurpegia bistan ibiltzea**». Joareak jotzeko baino mozorrotzeko «**ohitura handiagoa**» du, baina «**joareak ere ikaragarri**» gustatzen zaizkio. Tarteka, «**joaldunekin batera hartzaz ere bezitu**» izan da.

Iturengo inauteriak «**hagitz herrikoiak dira, famili giroa sortzen da herri osoan**». Jose Ignaciorentzat «**inauterietako astelehena urte osoko egun bereziena da**», bezperan urduritasuna dela eta «**ez da lo ongi egiten**» eta astelehenean bertan «**goiz goizetik denok elkarrekin herriko ganbaran gosaldu**» eta ondotik «**estres pixka bat sortzen da, orduan batzuk mozorrotzera eta beste batzuk joareak jartzera**» joaten dira. Mozorrotzeko «**herriko etxeetako ganbaratara joan, zeozer harrapatu**» eta bezitu egiten dira Iturendarrak. Goizeko ikuskizunaren ondotik, «**4ak aldera herriko ganbaran bazkaltzen da berriro ere elkarrekin eta bertan kriston giroa sortzen da**». Egun hori «**ezin da esplikatu, hagitz berezia da, potentea**». Azkeneko eguna da «**gutxien**» gustatzen zaiona, «**inauteriak akitzen direlako**».

Aurtengoan ere iturengo karriketari topatuko dugu, aurpegia tapatuta inauterietaz gozatzen!



LA MASCARA



Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu

Era guztietako osagarrien salmenta

Makillaje profesionala

www.lamascara.es

mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



Iturengo eta Zubietako Udalek

inauteri zoriontsuak opa dizkizute herritar eta bisitari guztiei



Tresanea LASAITASUN EREMUA
ESPACIOS DE TRANQUILIDAD

PLATER KONBINATUAK

OGITARTEKOAK

ongi pasa inauteriak!



Kontzeju karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287
info@tresanea.com | www.tresanea.com

ileapaindegia
EIDERA
Estetika



Asteartea eta osteguna
GOIEZ
Asteazkena eta ostirala
ARRATSALDEZ
Larunbatetan: GOIEZ
Kontsejo, 6 · ITUREN
T. 630 633 445

abarun
AURTIZKO ATERPEA

Gosariak
Pintxoak
Menuak
Tel: 948 45 00 67

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttppi.eus

**IGANTZIKO TAXIA**Mediku bisitetara | Eskoletara | Lanera
Egun pasa | Bazkari-afariak lasai egiteko
Behar duzuenetarako...

Eramanen zaituztet!

T. 717 716 209 (Ana)

ONGI PASA
INAUTERIAKI!

Ingurumen Zerbitzuak

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA • T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com



TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Piedadeko auzoa, 8 • 31790 IGANTZI
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

IGANTZIKO INAUTERIAK

Ilbeltzak 29 eta 30

**ILBELTZAK 29, ortzirala**

10:00 aldera Berrizaun auzotik hasita, **etxez-etxe eta baserriz-baserri eskean** ibiliko dira gazteak. Herrira bueltan, bidegurutze aldeko etxeetara bisita eginen dute eta gero, Frain auzora joanen dira. **Eguerdian bazkaria** eginen dute. **Bazkalondoan herrian eta Sarrola eta Lasaga auzoetan eskean** ibiliko dira gazteak. **Gauean afaria** eginen dute.

ILBELTZAK 30, larunbata

08:00etan Mozorroak elkartu eta **Irisarri** auzora joanen dira gazteak. **11:00 aldera** herrira bueltatu eta **Unanu auzora** eta **Piedade gainera** joanen dira. **Arratsaldean haurrak kalejiran** ibiliko dira. **Ilunabarrean** etxe etxe eskean ibilita banatuko dituzten **boletoen zozketa** eginen dute gazteek, lehenengo saria bildotsa eta bigarrena ardo lotea. **Gauean afaria** eginen dute.



Ongi pasa inauteriak!

LA VILLA

Ostatua - Jatetxea - Igantzi

ERRESERBAK • T. 948 637 290

ASTELEHENETAN ITXIA

Karrika Nagusia, 14 31790 IGANTZI



IGANTZIKO UDALAK
inauteri
zoriontsuak
opa dizkizue
igantziar
eta bisitari
guztiei

Ongi pasa
inauteriak!**OKILA**
zurgingoiaLander Sein
Mikel ArburuaTARIMAK
LEIHOAK
ATEAK
ESKAILERAK...OBRETAKO LANAK
OROKORREAN607 883 968
Piedade gaina z/g
IGANTZI
lander@okila.eu

Ezaguna da Amaia Zubiria kantaria euskal herrietan, baina nork daki Saldiasen bizitu zela bolada batez? Aitzakia horrekin, elkarriketatxo egin diogu lehengo egunak oroitzeke. Plazan aparkatu, eta “ez da batere

aldatu”, esan digu autotik atera eta lehenbiziko gauza. “Lehen bezala dago hau, etxe hori kenduta beste guziaz lehen bezala dago. Plazako pareta hor izaten zen”, dio Arretxera begira. Memori txarra duela dio, baina segi-

tuan etorri zaizkio hemen egon zeneko kontuak. Herritar batzuek ere gogoan dute nola etorri ziren hiru lagun Tabernera, eta herrian giro handia paratzen zutela, noiznahi antzerkiak eta kantaldiak egiten baitzituzten.

Amaia ZUBIRIA | Abeslaria

«1979-1980ko bueltan etorri nintzen Saldisera, Pello Lizarralde eta Jabier Sabadie adiskideekin»

Markel LIZASOAIN | SALDIAS
Zein urtetan etorri zinen?

Ez naiz ongi oroitzen, baina 1979-1980ko buelta horretan izango zen. Pello Lizarralde eta Jabier Sabadie adiskideekin etorri nintzen. Haiekin ibili nintzen bi-hiru etxetan errentan, oso pobreak ginen eta. Pello eta Xabier irakasleak ziren. Xabier, lan asko egina antzerkian; orain ez dakit haren berri. Eta Pelloen berri, liburuaren bat ateratzen duen bakoitzean. Donostiako Orain antzerki taldean ezagutu genuen elkar, eta oso lagunak egin ginen. Garai hartan, hiru, lau, bost lagun elkartzen ginen etxe batean, ez genuen diru askorik eta; orduan, Pello plaza eskatu zuen Saldisen, eta hantxe etorri ginen hirurak. **Nolakoa gogoratzen duzu herria?**

Herriko etxean hartu genuen ostatu, eta okindegiaz oroitzen naiz, eskolako umeak... Izan ere, eskola herriko etxean egoten zen.

Diskorik grabatu zenuen hemen zinela?
Ez dakit hemen ote gi-

nen, edo dagoeneko ateria zegoen... Hor nonbait ibiliko zen Haizea taldearen bigarren diskoa, *Hontz gaua*. Pellok ere parte hartu zuen. Ikuskizun bat egiten genuen, meza beltzen ingurukoa, eta Pellok deabruarena egiten zuten, sotanarekin eta. *Martxiki korupeko* zen, baina hitzak zaharrak ziren, e! Jon Zabaletak ere parte hartzen zuen ikuskizunean.

Ez zineten gelditzen, orduan...

Bai, Diane 6 zahar bat izaten nuen, eta harekin ibiltzen ginen bate-tik bestera. Auto asko izan ditut nik, denak zaharrak, baina zahar-zaharrak! 4L, Diane...

Herriko jendeaz oroitzen zara?

Bai, izenekin ez naiz asko oroitzen, baina haie-taz bai. Ostatuko amaz oroitzen naiz [Mertzedezena], eta haren seme-alabez, ume batzuk ziren orduan. Nik 30 bat urte izango nituen, eta haiek 10 inguru. Xanti delako bat ere ezagutu nuen, linterneroa bera. Harekin amistadea egin genuen, adiskidetu egin ginen, eta noiznahi

HERRIKO OROITZAPENAK

«Ostatuko amaz oroitzen naiz, eta haren seme-alabez, ume batzuk ziren orduan. Xanti delako bat ere ezagutu nuen, linterneroa bera. Gure adiskide egin zen, eta noiznahi etortzen zitzaizgun etxera bisitan»

etortzen zen etxera; gu joan eta gero, istripu haundi bat izandu zuen, eta gelditu zen elbarri, mugitzen ez zela; gero, herritik kanpora joan zen osasun etxe batera, eta uste dut lortu zuela berriz ere mugitzea. Hurrengo, Imanol kantariarekin etorri ginen afaltzera eta kantatzera ostatura, eta gogoan dut Santi ere hor zela.

Imanol ere izandua da hemen bere gitarrarekin?

Bai, herriko festak-edo izango ziren, eta plaza-za ere atera ginen. Lehenbiziko plazan, eta gero, afarian. Jende gehiago egon zen begira afarian plazan baino! Bai, garai hartan asko kan-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Amaia Zubiria, Saldiasko karrikan.

tatzen nuen Imanolekin. Bera Parisetik etorri berria zen, eta elkarri laguntzen genion.

Eratsunera ere ailegatu zara, ezta?

Bai, lehen ibiltzen nintzen herriz herri kantuak ikasten, kantu zaharrak biltzen, gero diskoetan sartzeko. Aldi batean, Eratsunera deitu ninduten festetara, eta, festak bukatu eta gutxira, berri-erri etorri nintzen Des-karga anaiak grabatzera, Ardoaren kantua eta (“Ardoaren indarra... lari-rari-rara”), Alejandro zurginaren bitartez.

Orduan, izanen duzu etxean eratsundarren grabaketaren bat?

Ez, denak galduta izango ditut. Ez dakizu zenbat etxetan ibili naizen,

ez da posible. Denak galduta. Momentuan ikasten banituen eta gero erreperatorioan sartzeko banituen, ondoren diskoan sartzeko ziren, baina, bestenez ez. Hainbeste galdu dira...

Gaur den egunean ze kantu erreperatorio dabilkizu?

Orain nere kantua egiten ari naiz, nere ikuspegitik egindakoak. Askok maite ditut, eta oso gustura egiten ditut. Hori da nire kontzertua. Edortarekin erreperatorio bat izaten dut, eta taldearekin beste bat. Semearekin kantu zaharrak-eta egiten ditut, batez ere, eta horiek ere oso gustura kantatzen ditut. Baina ez dut inolako arazorik erreperatorioa egokitzeke.

ARKUPEAK

GIZARTEA → 13. BOLETINA KALEAN DA

2016 urtea proposamen berriz betea heldu da

Estreinakoz
literatur, margo
eta argazki
lehiaketak
eginen dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak Elkarteak osatzen duten 43 herrietako ordezkariak bildu ziren abenduaren 17an egindako bileran. Zuzendariaren agurraren ondotik, 13. boletina aurkeztu zuten, 2015 urteko azken seihilekoan egindako jarduerak eta 2016ko lehenengo seihilekorako antolatutako dituzten berri emanaz. Urte zaharreko kontuak errepasatu eta berriari atea zabaltu zioten horrela. Bilera horretan bertan, batzorde berriak Bera, Doneztebe, Zugarramurdi, Leiza eta Iturenen bete gabeko zeuden plazarak osatzeko eta gastu eta sarriren artean oreka lortzeko egindako ahalegina ere aipatu zuten.

Arkupeak Elkarteko kideek dagoeneko esku artean duten boletinean, bazkideen parte hartze maila ere ikus liteke. Bidaietan adibidez, 3.194 pertsonen parte hartu dute. Arkupeakeko mendizale taldea ere, batera eta berriz ibili da, hilabeteko inguruko parajeren bat bisitatu dute eta Donejakue bidea egin eta Baztango Donejakue bi-

deko hiru etapa ere osatu dituzte. Eta ikastaroek ere arrakasta izan dute, 467 bazkide aritu baitira. 10 ikastaro eskaini dira lehenengo seihilekoan eta 324 bazkidek parte hartu dute. Hirugarren hiruhilekoan, 12 ikastaro eskaini dira eta 143 pertsonen parte hartu dute.

Urte berrian ere, ongi pasatzeko hamaika aukera izanen dira. Arrakasta handia duten ohiko bidaiak gain (Xabiererra, Lourdesera, Benidormera, Aralarra, Arantzazura... egiten diren irteerak) berriak ere eskainiko dira. Bertzeak bertze, Dantxarinea, Euskal Kantuen Eguna, Bordeleko azoka, Marques de Riscal upategiak... bisitatzeko aukera izanen da. Ikastarorik ere ez da faltako. Orain artean arrakasta izan dutenak errepikatu eta berriak ere eskainiko dira: altzarien zaharberitze ikastaroa, zizelkatze tailerra eta pirograbatua adibidez.

Berrikuntza gehiago ere badira. Batetik, zonaldeko bazkideak elkartzeko, pintxoren batzuk jan eta kantuan aritzeko bilkurak antolatzeko proposatu dute. Bestetik, lehiaketak ere antolatuko dituzte: euskerak eta gaztelarazko literatura lanak sarituko dituztenak eta baita argazkigintza eta pintura lehiaketak ere.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA
Arkupeak elkarteko herrietako ordezkariak abenduaren 17an bildu ziren Donezteben.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

27 mendizalek egin dute Hendaiaiko hondartzatik Sokoarako bidea

Abenduaren 15ean, 27 mendizalek Hendaiaiko hondartzatik abiatuta ibilbide ederra osatu zuten. Sokoara oinez joan ziren zortzi kilometroko bidea osatuz. Sokoan hamaiketako egin ondotik, bueltakoan Abaddie gazteluan geldialdia egin zuten. Gaztelu barrenera sartzeko aukerarik ez zuten izan ordea, berritze lanetan ari direlako, baina konpondu duten kanpoko alde ederra ikusi zuten. Gero elkarrekin bazkaltzera joan ziren denak eta bertan hurrengo ateraldia zehaztu zuten. Eguraldia lagun bada, abenduaren 19an Larunera igoko dira Beratik. Urte osoko plangintza ere osatu dute eta Txindoki, Aralar, Aizkorri eta Gorbeia irteerak egiteko asmoa dute.

ZERBITZUA → GOIKO SOLAIRUAN

Udaletxean bilera gela bat egokitu eta herritarren eskura jarri du udalak

Erabili ahal izateko eskaera orria eta arau batzuk bete beharko dira

Juana Mari SAIZAR

Udalak, herritarrak biltzeko espazio baten beharra zegoela ikusita, bilera gela bat egokitzea erabaki du. Herritar, eragile eta norbanakoek bildu eta euren gaiak lantzeko espazio egoki bat izatea bermatu nahi da horrela eta horretako beharrezko erremintak eskaintzea.

Udaletxeko goiko solairuko gela txikia egokitu dute eta bertan, ordenagailua, inpresora, mahaia, aulkiak, armairuak... jarriko dira. Bilera gela txukun eta materiala egoera onean mantentzea bermatzeko arau batzuk bete beharko dituzte erabiltzaileek.

Zerbitzua erabili ahal izateko, eskaera orri bat bete beharko da eta hala eskatzen duten taldeei giltzen kopia bat emango zaie eta gelan armariotxo txiki bat izango dute beraien gauzak gorde ahal izateko.

Talde bakoitzak arduradun bat izendatu beharko du, behar izan ezkerer berarekin harremanetan jarri ahal izateko. Arauak errespetatzen ez dituzten taldeei giltzak itzultzeko eskatuko zaie.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Eguberri bezperan, giro dotorean

Auzoz auzo eskean eta kantuan ibili ziren herriko haurrak eta gurasoak abenduaren 24 goizean. Iluntzean berriz, ttikienak ilusioz egon ziren Olentzeroren esperotan eta pare bat kantaren truke, Olentzerok opariak banatu zizkien.

Bilera gela beti zegoen bezain txukun, edo txukunago utzi beharko dute erabiltzaileek eta egutegi moduko bat osatzeko, ohar-taula bat jarriko da. Taula horretan, egingo diren bilerrak, lanketak... apuntatzeko aukera egongo da eta horrela bilera gelaren erabilera zertxo -

bait antolatzeko aukera izango da.

Bilera gelan ordenagailu bat, inpresora bat, berogailu txiki bat, papera, tinta... egongo dira eta zerbait bukatzen denean Udaletxean abixua utzi beharko da.

Ordenagailu bakarra egongo denez, talde bakoitzak bere erabiltzai-

lea izango du, bakoitzak bere pasahitzarekin. Dena den norberaren ardura izango da bere gauzen segurtasun kopia bat izatea, ordenagailuari edozein gauza gertatzen bazaio ere.

Ea denon artean, espazio berri honi probetxua ateratzeko modua bilatzen dugun.

URTARRILAREN 30EAN

'Aiso ezautuz' lehiaketa antolatu da inauterien baitan

Juana Mari SAIZAR

Aresoko Euskara Taldeak herritarren arteko lehiaketa bat antolatzeko asmoa du urtarrilaren 30ean, inauterietako larunbat arratsaldean. *Aiso ezautuz* izena eman diote lehiaketari eta helburua Aresoren inguruko interresa piztu, ongi pasatu, herriko euskara berreskuratu eta herria hobeki ezagutzea da.

Udaletxeko goiko solairuan egingo da lehiaketa eta 3 talde ariko dira jo-

lasean. Talde bakoitza hiru partaidez osatua egongo da eta talde mixtoak izateaz gain, adin ezberdinetako jendez osatuta egotea da jarri duten baldintza: 16-25 urte arteko partaide bat, 25-40 urte arteko beste bat eta 40 urtetik gorako beste bat eduki beharko du talde bakoitzak. Urtarrilaren 10era bitarteko epea zegoen izena emateko. Parte hartuz edo ikusle gisara, seguru giro polita sortu eta gure herriari buruz gehiago ikasiko dugula!

KIROLA

Mendian federatzeko epea zabalik dago

Juana Mari SAIZAR

Aresoko Kirol Elkarrearen bidez, 2016. urterako mendi federazioaren lizentziak loritezke dagoeneko. Urtero bezala, Kirol Mankomunitateak laguntza emanen du eta hala, Areson errolatuta dauden herritarrek %15eko deskontua izango dute A, B eta C modalitatean, udazken aseguruan eta gehigarrietan.

Federatu nahi dutenek, dagokion fitxa bete eta Kirol Mankomunitatearen kontu zenbakietan ordainketa egin beharko dute. Nafar txartela edo FEDME txartela eskuratzeko aukera izango da eta modalitate desberdinen artean aukeratu beharko da. Tarifak eta modalitate bakoitzak bere gain hartzen dituen ekintzei buruzko informazioa udaletxean edo Kirol Mankomunitatean eskura liteke. Kontuan izan behar da, mendi kiroltan aritzen denak mina hartzeko arriskua daukala eta erreskate edota mediku-laguntza behar dezaketen istripuak ere gerta litezkeela. Istripu kasuak bere gain hartzen ditu lizentziak. Gainera, Nafar Goi Mendi Eskolak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu ahal izango dute lizentzia eskuratzeko dutenek eta FEDME lizentzia aukeratzeko dutenek, lurraldetako federazio eta klubek dituzten mendi-aterpeetan deskontuak izango dituzte.

LEITZA

GIZARTEA → ABENDUAREN 18AN EGINDAKO MANIFESTAZIO KOLORETSUAN

Herritarrek babes zabala erakutsi diote Mikel Zabaleta alkateari

Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan du festetako programan idatzitako agurragatik

JM BARRIOLA

Nazioarteko Giza Eskubideen egunean jaso zuen Mikel Zabaletak Espainiako Audientzia Nazionalaren agindua; abenduaren 21ean Auzitegi Nazionalean deklaratzera deitua zegoen. Guardia Zibilak egindako txostenaren arabera, 2015eko festetako programan idatzitako agurrean terrorismoari gorazarre, prebrikazioa eta fondoan malbertsazioa egitea egotzen diote.

Inputazioaren berri jakin zenetik eta abenduaren 21ean Iruñeko



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitian manifestazioko irudi bat, behehian herritar talde bat Auzitegi atarian.

Auzitegi Nazionalean deklaratu zuenera arte, asko izan dira alkatearekiko elkartasun keinuak. Inputazioa «adierazpen askatasunaren

aldeko erasotzat jo» zuen adibidez Leitzako Pesta Batzordeak eta manifestazio koloretsu bat deitu zuen abenduaren 18rako. Bertan 500

herritar inguruk parte hartu zuten eta herriko eragileen babesaren erabatekoa izan zen. Manifestazioaren ondoren emandako prent-

tsaurrekoan Pesta Batzordeak adierazi zuten, «ez da lehen aldiz Leitzako alkate eta herritarrei Madrilerako bidea hartuarazi dietela lege interpretazio injustuengatik». Alkatearen idatzian ez dutela deliturik ikusten gaineratu zuten «ez agurrean egiten duen eskubide zibil eta politikoen defentsan eta ezta pertsona ororen askatasunaren eta giza eskubideen alde egindako adierazpen xamurrean ere». Gainera, «Leitzan, aspalditik bakean bizitzeko hautua» egin zutela azpimarratu eta gisa honekiko prozedura judizialek «tentsioa besterik ez dakartela» ere azaldu zuten. Abenduaren 18ko agerraldiaz gain, Udaleko osoko batzarra ere alkateari babes osoa eskaini zion, EHBilduko zinegotzien aldeko bozekin.

ABENDUAREN 19AN

LeitzEkok urte bukaerako batzarra egin du

JM BARRIOLA

2015 urtean zehar landutako proiektuen balantzea egin eta aldi berean ireki diren lan ildo berriez informazioa jaso zuten Aurrera elkartean bildutako bazkideek. Horretaz gain, datorren urterako lan ildoak lehentasunen arabera aukeratu eta proiektu bakoitza garatuko duen lan taldeak sortu zituzten. Orain artean bezala elikadura eta energia burujabetza lantzeko asmoa dago: asteroko saskia, hilabeteroko eskaintza, Errigorako kanpainak, herriko produktuen azoka, produktuen identifikaziorako pegatinak, Goienerekin antolatutako tailer eta aholkularitza zerbitzua... sustatuz. Mugikortasuna ere landu nahi da tar/tar/kar proiektua martxan jarritz, web orriare-

kin batera. Kontsumo taldearen komunikazioa ere garatu beharreko atala dela ikusita, web/orrialdea martxan jarri eta boletinak osatuko dituzte. Formazioari ere dagokion garrantzia eman nahirik, hitzaldiak eta barne formakuntzarako jardunaldiak lantzen segi nahi dute. Elikadura burujabetzarekin zerikusia duten 3 hitzaldi antolatu dira dagoeneko adibidez. Barne jardunaldiak, administrazio arloa... lan asko atera dira eta aurrera begira proiektu guztiak atera ahal izateko, taldea saretzeko eta eraginkortasunean hobetzeko beharra sentitu zuten. Horregatik, lantaldeak banatuta, azpitaldeak eta dagozkion arduradunak izendatuko dituzte, proiektu guztia ahalik eta ongi-en garatzeko.



ARGAZKIAK: AMAIA IPARRAGIRRE

Urteko azken egunean lasterka!

luz antolatu zuten estreinakoz eta arrakasta ikusita, II. Sansilbestre lasterketa antolatu zuen Amazabal Institutuko guraso elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Parte-hartzaile kopurua ikusita, nabari da badela kirolerako afizioa!

AUZOLANA → ABENDUAREN 26AN

Futbol edo saskibaloian aritzeko pista prest dute herritarrek

Frontoiaren atzeko aldean egokitu da espazioa

Ainhoa ANSA

Eguberrietako oporraldia lanerako ere izan da Aranon. Abenduaren 26an, auzolanean, futboleko edo saskibaloian aritzeko hormigoizko zabaltoki edo pista bat txukundu eta porteriak zaharberitu dituzte. Ume eta guraso dexente bildu ziren eta lanerako gogoz zirela

nabaria da, egun bakarrean bukatu zituzten eta lanak. Goizean porteriak zaharberitzen aritu ondotik, udalak presatutako mokadua jateko aukera ere izan zuten.

Frontoiaren atzeko aldean egokitu da espazioa, aparkaleku bezala erabiltzen zen tokiari eremu koxkor bat kenduta. Herrian ume pila bat dago oraintxe eta hauen eskariari erantzuna emateko hartu da erabakia. Hormigoiarekin zabaltokea udalak egin du eta he-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goian haur eta gurasoak porteriak zaharberitzen. Behean pista berria jarri den tokia.

rritarrek azken txukunetak egin dituzte auzolanean. Hemendik aurrera ekipazioa Olenzterori esker eskuratu-

ko dela esan daiteke, izan ere, azken urteetan Olenzterorekin kantari aterata herrian bildutako dirua erabiliko

da ume zein gurasoek kirola egin edo jolasean aritzeko beharrezkoak duten materiala erosteko.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GOIZUETA

GIZARTEA → ILBELTZAREN 16AN BATZARRA EGINEN DUTE

Kooperatiba moduan funtzionatuko lukeen gasolindegia jarri nahi da

Orain arte emandako pausuen berri emanen dute larunbatean

TTIPI-TTAPA

Herritar taldetxo bat kooperatiba modura edo funtzionatuko lukeen gasolindegia herrian irekitzeko aukerak aztertzen ari da azken hilabete hauetan. Orain arte emandako pausoen berri eman nahian batzarra antolatu dute Eskoletako jangelan ilbeltzaren 16an, larunbat goizeko 11etan.

Sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa

Joan den urtean bezala, Sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa antolatu du Umore Ona elkarteak, interesa duen edonorentzat (ez da beharrezkoa makrobiotikaren inguruan ezagutzak izatea). Urtarrilaren 13, 20 eta 27an egingen da, 18:30etik 21:30era, elkartean.

Gorka Gereño (In-txaurrendoko makrobiotika elkarteko arduraduna) sukaldariaren eskutik ikasiko dituzte janari osasuntsuaren sekretuak. Umore Onako bazkideek abenduaren 26tik 30era izan dute izena emateko aukera, 40 euroren truke.

Bazkide ez direnek, berriz, abenduaren 31tik urtarrilaren 9ra izan dute aukera, 45 euroren truke. Herrian bizi dire-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

50 Hektarea erre ziren Mandoegi inguruan

Abenduaren 16an Mandoegi inguruko hegal aldapatsu batean piztutako suak 50 Hektarea inguru erre zituen. Denetara, 50 bat lagun aritu ziren su garren kontra, Goizueta eta Leitzako boluntarioak eta inguruko suhiltzaile etxeetatik etorritakoak, baina hego haizeak eta orografiak ez zuten sua itzaltzeko lanetan lagundu. Abenduaren 17an 16:30ak aldera lortu zuten sutea kontrolpean izatea. 50 hektarea inguru kiskali dira; pagadiak, iratzeak, txilarrak... eta hiru ardi hilik topatu eta beste batzuk erredurekin agertu dira. Horretaz gain, Eguberri garaian Arantza aldetik Artikutzara ere hedatu zen sua itzaltzen laguntzen ere aritu dira herriko suhiltzaile boluntarioak.

nek lehenasuna izan dute horreterako.

Futbito txapelketa azkarra

Urtarrilaren 30ean futbito txapelketa azkarra antolatu du Umore Ona elkarteak, 16:30ean hasita. Ondoren, afaria izanen da partehartzai-leentzat. Izen ematea urtarrilaren 25a bitarte egin daiteke elkartean. Talde guztietako jokalaririk bakoitzak 6 euro ordaindu beharko ditu txapelketa hasi aurretik (3 euro afari gabe). Egunean bertan txapelketa apuntatzeko aukera izanen da, baina ez da afarira joateko aukerarik izango. 20 minutuko partidak jokatuko dituzte.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Olentzero

Goizuetan ere jaso dute urteroko Olentzeroren bisita. Kantuz eta umore ederrean egin zioten herritarrek ongi etorria Olentzerori. Goizean eskolako neska-mutikoak, gurasoekin ibili ziren kalejiran ikazkina bizkarrean zutela. Ilunabarrean Maridom-ingirekin batera ailegatu zen herrira, ttikienen gozamenerako. Errege bezperako Kabalgatarekin bukatu dira Eguberrietako ospakizunak.

GIZARTEA

Web orri berria martxan jarri du Udalak

TTIPI-TTAPA

Web orri berria jarri du martxan Udalak. www.goizueta.eus helbidean herritar zein bisitarientzat informazio baliagarria bildu dute. Udalarekin lotutako gaiak, herrian eskaintzen diren zerbitzuak, kultur agenda, turismo eskaintza... gaika banatu dituzte edukiak. Horretaz gain, udal-albisteak ere argitaratu dituzte eta azaroko azken astean etxez etxe banatu zen Goizueta Informatzen udal aldizkariaren 1. alea ere web orriaren irakur liteke. Herriko informazioa biltzen duten aldizkariak ere egin die lekua eta argazki galeria ere badu. Momentuz, Azaro Kulturaleko argazkiak zintzilikatu dituzte, baina laister batean bilduma polita osatu nahiko luke.



Web orriaren ataria.

KULTURA → ILBELTZAREN 18TIK 24RA

Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatu dute bigarren urtez

Solasaldiak, aurkezpenak, itzulixkak eta bertze hainbat ekitaldi prestatu dituzte aurtengoan ere



Ekitaldi ugari prest ditu (H)ilbeltza taldeak.

TTIPI-TTAPA

Gan den urteko arrakasta ikusita, Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatu dute ilbeltzaren 18tik 24ra. Egitarau zabalera prestatu dute (H)ilbeltza taldekoek horretarako.

Ilbeltzaren 18an, astelehena, Aste Beltzaren irekiera eta (H)ilbeltza webgunearen aurkezpena egingen dute Elizondoko liburutegian 19:00etan.

Ilbeltzaren 19an, asteartea: Idazleekin solasean ekimena Xabier eta Martin Etxeberria anaiekin, *Gizon gogoraren sekretua* liburuari buruz Arizkungo medikuaren etxean 19:00etan.

Ilbeltzaren 21ean, ortzeguna, *Jose Antonio Loidi, Angelita arre-*

baren begietatik solasaldia Irurritako Jauregiarten 19:00etan.

Ilbeltzaren 22an, ortzirala, *Akabaila beltzak zinemaren* solasaldia Harkaitz Canorekin, Elizondoko Arizkunenean 19:00etan.

Ilbeltzaren 23an larunbat goizeko 11tan *Beltzean beltz... eta Jim Thompson* mahai ingurua: Xabier Olarra eta Miel Angel Elustondorekin Arizkunenean.

14:00etan bazkaria Erlategi elkartearen (txartelak eskuratzeko idatzi *ilbeltzabaztanen@gmail.com* helbidera).

16:00etan liburu aurkezpenak elkartearen be-

- Jon Alonsoren Bel-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Recurut egitasmoa Pirinioz gaindiko bideak berreskuratzen

Kontrabandorako ez ezik, lanerako edo gerratik ihes egiteko erabili ziren mugaz gaindiko bideak berreskuratu nahi dituzte Zaragozako eta Paueko unibertsitateek eta Aitiip Fundazioak bultzatutako Recurut egitasmoak. Horren baitan, Elizondoko Beartzun auzoan barna Baxenafarrora heltzen zen Etxaideko bidearen hasieran informazio panela jarri dute, bertze zenbait lekutan bezala. Pirinioz gaindi 1930 eta 1970 urteen artean erabili ziren migrazio bide horien berreskurapen historikoa da egitasmo honen xede nagusia eta, bidenabarkoan, langile, emigrante eta gerrako iheslariarentzat mugaren kontzeptua hutsala dela adieraztea.

tzaren koloreak (nobela beltzari buruzko oharrrak).

- Jon Arretxeren *Estolda Jolasak*.

- Gotzon Barandiaranen *Gidariaren okerra*.

Ondotik, Koldo Almandozen *Columba Palumus* laburmetrairenen aurkezpena.

20:00etan *Susmagarrien gaua* Jauregiarten.

Ilbeltzaren 24an, igande goizeko 11tan Kronika beltz baten itzulixka, Erratzuko Plazatik abiatuta. 14:00etan Pikinika Erratzuko lixutegian. Euskal Nobela Beltzaren Astea akitzeko, 19:00etan irakurraldi musikatua Idoia eta Mikelekin Jauregiarten.

UDALA

Herrilurrak digitalizatzen hasi da

TTIPI-TTAPA

Baztango herrilurren edo komunalen kudeaketa hobetu behar dela denen ahotan dago eta bide horretan, udalak Nafarroako Gobernuko herrilurren zerbitzuarekin bialarako herrilurren digitalizazioa hasi du. Herrilurren digitalizazioak informazioa eguneratzeaz gain, informazioaren traktatza lasterragoa ahalbidetuko du herritarren eskariei zerbitzu hobea emanez eta, batez ere, herrilurren kudeaketa eraginkorrago egingen duten ordenantza zehatzagoak egitea erraztuz. Modu horretan Nafarroako Gobernuko teknikariak joan den mendeko 80. hamarralditik honat emandako aprobetxamenduak digitalizatzen hasi dira. Sigpac programa informatikoan aprobetxamendu bakoitza nori eman zaion, noiz, eremuaren neurriak, aprobetxamendu mota eta planoak aipatu programan sartzen ari dira. Lehen zati honek urte osoa eramanen du. Ondotik gainerako aprobetxamenduen digitalizazioarekin segituko dute.

MENDI
ostatu
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

ORBELA
SENDERSMIA ABERRIKIA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

BAZTAN

GIZARTEA → URTARRILAREN 4AN AGERRALDIA

Lekarozko Aroztegiko egitasmoarekin Gobernuak aitzinera egitea salatu dute

Abenduaren 30ean hartu zuen erabakia Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Aroztegiko egitasmoarekin aitzin egitea erabaki du abenduaren 30ean. «UGPS-a beza bideratzea hasiera batean UPNren gobernuak abiatu zuen arren, Geroa Bairen gobernuak hartutako erabakia bitartez, bidegabekeria hau babestea erabaki du», Aroztegia eta Gero zer? Plataformak, Sustrai Erakuntza fundazioaren laguntzarekin salatu duenez.

Plataformak oroitarazi duenez, «UPNk hauteskunde bezperetan tarrapatata hartutako erabaki honek herritarren eta tokiko erakundearen erabakitzeko eskubidearen gainetik pasatzea izan du helburu». Orain, Eguberrietako giroan Geroa Bairen gobernuak gauza bera egin duela jakinarazi dute, «presaka eta korrika, Baztango Batzar Nagusiak zein Lekarozko herriaren eskaerari uko eginez, gutxi batzuen interes espekulatzailak herritarren interes orokorren gainetik jarri ditu».

Batzar Nagusiak eta

Lekarozko herriaren eskaeratik aparte aste batez 900 sinadura bildu zituzten Gobernuari UGPSa gelditzeko eskatuz. «Lekarozen, 359 biztanle dituen herri batean, 228 etxebizitza egiteak ez du inongo justifikazio sozialik», aipatu du Plataformak.

Etxebizitzak kenduta, Udalak proiektua garrantzeko aukera eman zion promotoreari baina enpresak uko egin zion eskaintza honi. «*Aldaketaren Gobernu*a babestu dutenen alderdien artean Geroa Baik bakarrik egin du inposizio eta *pelotazo* honen alde. Beraz, noren interesak defendatzen ditu gobernu honek?» galdegin dute.

ERABAKI POLITIKOA

Iruñetik erabaki tekniko delako aipatu duten arren, erabaki politikoa dela uste dute taldeok. Erabaki honek atzera egin ezean, «espediente honen arduradun izan diren Isabel Elizalde Landa Garapen, Ingurugiro eta Tokiko Administrazioaren kontseilariaren eta Manu Aierdi Nafarroako Gobernuaren lehendakari ordea eta Ekonomia Garapenerako kontseilariaren» berehalako dimisioa eskatu dute.

Nafarroako Gobernuaren akordioaren aurka epaitegietara jo dute eta «Nafarroan inpo-

DATUA

228

ETXEBIZITZA

egiteak ez duela justifikazio sozialik dio Aroztegia eta gero zer? Plataformak

satzen ari diren makro proiektu espekulatzaila guztiak gelditzeko lan egiten eta erregimenaren jokabide guztiak salatzen» segituko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aroztegia eta gero zer? Plataformak eta Sustrai Erakuntza fundazioak Gobernuaren erabakia salatu eta epaitegietako bidea hartu dute.

BATZAR NAGUSIAK ERE

Gobernuaren erabakia arbuia du

TTIPI-TTAPA

Batzar Nagusiak eta Lekarozko herriak Aroztegiako UGPSari buruz Nafarroako Gobernuari aurkeztutako errekerimendua onartu ez dela jakin ondok, Batzar Nagusiak ilbeltzaren 4an egindako bilkuran mozio bat onartu zuen, aldeko 17 boturekin, kontrako 7 eta 6 abstentzioekin. Mozio horrek Geroa Bairen gobernuak hartutako erabakia guztiz arbuia du, «eta herritarren hitzari kasurik egiten ez dion neurrian, gobernu bera gaitzesten». «Aldaketa Belateko tuneletan gelditu da. Baztaneratz ez da iritsi» dio onartutako mozioak.

ETXEETAKO HONDAKIN BERDEEN BIRZIKLAPENA BULTZATZEKO

Birringailu bat jartzen du Udalak herritarren eskura

TTIPI-TTAPA

Etxeko birringailu bat eskuratu du Udalak herritarrei maileguan utzi ahal izateko. Zerbitzua erabili ahal izateko eskaera Udaletxean egin behar da. Birringailua garraiatzeko erraza eta elektrikoa da (230V). 35mm arteko abarrak xehatu edo birrintzeko ahalmena du eta honekin etxeetako kimaketa hondar tikiak birziklatzea lortu nahi da. Abarrak dituzten herritarrek eskaera egin dezakete.

Material birrindua etxeko konpostagailuan gai idor bezala erabiltzeko arras aproposa da eta honela etxeko hondakin organikoekin batera birziklatu ahal izanen dira. Ekin-tza honekin oraindik ere karrikako edukiontzietan agertzen diren abar mukuruen pilaketa saihestu nahi da eta bide batez hauek etxean bertan probesteko aukera eskaini. Gai organikoaren zikloa Baztanen bertan hersteke aukera bat gehiago eskaintzen da honela, etxeko hondakin berdeen konpostia ere bultzatuz.

KIMAKETA HONDARREN BILKETA ZERBITZUA

Udalak hondakin kudeaketa zerbitzua hobetzen jarraitzeko helburuz, etxeetako edo partikularren kimaketa hondarren bilketa zerbitzua paratu du martxan urtarrila eta otsailan Baztango herri guztietan.

Kimaketa hondarrak dituzten partikularrek Udaletxean egin beharko dute zerbitzuaren eskaera (bertaratu, telefonoz edo posta elektronikoz).

Hondakin hauek herri bakoitzean Udaletik zehaztuko den puntu eta epeetan utzi beharko dira eta ongi eta txukun pilatu edo bilduak egon beharko dira hauen bilketa eta ondorengo birrinketa errazteko. Kimaketa hondakin hauek auzo konpost guneetan egituratzaile bezala erabiliko dira.

Erran bezala, eskaera Udaletxean egin behar da 948 580 006 telefonoan (Miren) edota *hondakinak@baztan.eus* helbide elektronikoa.

GIZARTEA → IAZ EGINDAKO LANEN TRUKE

Kultur elkarteek 24.800 euroko dirulaguntza jasoko dute

Baztandarren
Biltzarrak 6.000
euro jasoko ditu

TTIPI-TTAPA

2015eko jardueri dagozkien dirulaguntzak eman dizkie Balleko Etxeak herriko kultur erakundeei. Denera 24.878 euro banatu ditu.

Elizondoko Abesbatzak 3.081 euro jasoko ditu, Baztango Lore emakumeen elkarteak 539 euro, Baztandarren Biltzarra elkarteak 6.000 euro, Baztango Bertso Eskola elkarteak 1.460 euro, Irurritako Dantza-

riak elkarteak 1.786 euro, Legate elkarteak 231 euro, Baztango Dantzarriak elkarteak 3.958 euro, Itxusi Elkarteak 340 euro, Elizondoko Re-creo bandak 196 euro, Hamabortz ama bat-ek 700 euro, Jo ala Jo Kultur Taldeak 3.260 euro, Irurritako Guraso Elkarteak 874 euro, Elizondoko eskolako Guraso Elkarteak 1.102 euro, Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak 738 euro eta Erratzuko Guraso Elkarteak 573 euro.

NAZIOARTEKO ELKARTASUNA

2015 urtean landutako nazioarteko koo-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Bertan elkartearen 500 euroko balea Ramontxo Garmendiari

Bertan Merkatari eta Zerbitzuen Elkarteak Eguberrietako kanpainaren baitan zozketatutako 500 euroko erosketa balea Ramontxo Garmendia Zelaieta elizondarrari egokitu zaio. Bertan elkarteak 3.000 euroko balioa duten sari zuzenak eta 15.000 boleto banatu ditu bezeroen artean eta 500 euroko erosketabalea ere zozketatu du. Bertan Elkarteako presidente den Lourdes Anduezak eman dio erosketa-balea Garmendiari.

peraziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko subentzioak ere onartu ditu Udalak. Denera 38.866,50 euro bideratu ditu Balleko Etxeak.

Frantziskotar Kontentualei 2.404,10 euro emanen zaizkie; Garabideri 1.815,80 euro, Behar Bidasoari 2.321,60 euro, Infancia

sin fronteras taldeari 2.118 euro, El Salvador Elkartasunari 2.585,60 euro, Madre Coraje elkarteari 2.074 euro, Ambala elkarteari 1.951,10 euro, Benito Menni Fundazioari 1.738,40 euro, Anarads elkarteari 2.503,1 euro, Bonal Fundazioari 2.338,10 euro, Mugarik Gabe elkarteari 2.640,70 euro,

Saharaztan-i 2.475,70 euro, Itaka Escolapios elkarteari 2.308,70 euro, Vicente Ferrer Fundazioari 2.342,50 euro, Delwende elkarteari 2009,50 euro, Nuevos Caminos elkarteari 1.457,90, Segunda Familia elkarteari 1.745,90 euro eta Asambleari por la Paz erakundeari 2.036,70 euro.

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

BAZTAN

GIZARTEA → ILBELTZAREN 7AN AURKEZPENA

Baztango Bilgune Feminista sortu dute

Emakumearen zapalkuntzari aurre egiteko helburuarekin

TTIPI-TTAPA

Baztanen urteak daramatzate emakumeen eskubideen defentsan, emakumeen aurkako erasoak salatzen eta emakumeak ahalduzko talde desberdinetan lan egiten. Urteetan, Martxoak 8 eta abenduaren 25eko jardunaldiak antolatu dituzte, bertzeak bertze, «emakumeok pairatzen dugun zapalkuntza, egiturazko zapalkuntza dela ikusaraziz, eta ez kasu isolatuak, sinestarazi nahi diguten bezala». Bertze kasu batzuetan, emakumeen arteko harremanak sendotu eta elkarlana bulkatu dute. «Baztango plazetan Mutildantzekin eman diren bazterketak zein erasoak ere salatu ditugu, baita emakumeok bestetan, nahi dugunarekin eta nahi dugun bezala, eremu publikoan parte hartzeko dugun eskubidea aldarrikatu ere». Aurten berriz, Emakumeen Mundu Martxako hainbat jarduerak antolatu dituzte, Martxoak 8, Azaroak 25, Eguzki Lore, Plazara Dantzara, Abortatzeko Eskubidearen Aldeko Ekimena,

EMM..., borroka eta lan hauek guztiak beren fruitua eman dute, eta horrek berak eraman gaitu emakumeak antolatu eta Baztango Bilgune Feminista sortzera», ilbeltzaren 7an egindako agerraldian adierazi dutenez.

Aurkezpen agerraldian aipatu zuten, «zoritzarrez Baztanen ere emakumeon zapalkuntza eguneroko ogia da. Aunitzetan, gizonezkoek baino guttiago kobratzen dugu lan bera egiteagatik. Eskualde osoko lantegi handietan oraindik ez dira emakumeak kontratatzen. Bertze aldetik, historikoki emakumeok aitzinerat eramaten ditugun zaintza lanetan eramaten den esplotazioa eta aitortza eza dago. Baserrietan ematen diren kondizioak ere lotsa-mangarriak dira, esplotazio gehienak gizonen izenean egonik, diru laguntzetara zein kotizazioetarako emakumeok aukerarik izan gabe. Adibideak pilaka daude eta jasanezina den egoera batera eraman gaitu sistema honek».

Honi denari aitzin egiteko, «eta duintasunez eta eskubide guztien jabe garen herritarrek bezala bizi nahi dugulako», antolatu dira Baztango Bilgune Feministan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erratzuko II. Paxaka txapelketa jokatu dute

Erratzuko Paxaka txapelketaren bigarren edizioa jokatu da, sei talderen parte hartzearekin. Pilotari guztiak baztandarrak ziren, Arraioz, Elizondo, Erratzu eta Iruritakoak. Abenduaren 12ko finala Oscar Urrutia (Irurita), Miguel Etxandi (Erratzu) eta Juan M^a Maiak (Elizondo) 9-8 irabazi zioten Gorka Urtasun (Irurita), Gariquito Antxorena (Erratzu) eta Kaiet Itoiz-i (Erratzu). 3. posturako lehian, Joxe Itoiz (Erratzu), Manu Irigoien (Erratzu) eta Joseba Urtasunek (Irurita) 9-7 irabazi zieten Xabi Barberena (Irurita), Jagoba Ramos (Irurita) eta Marcos Aizpuruari (Erratzu). Txapelak eta sariak Koldo Uribetxebarria Erratzuko alkateak banatu zituen. Gero poteoa izan zen fanfarrearekin eta afaria Elkartearen.

ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLAN

Nafarroako Enpresari Elkargoaren bisita jaso dute

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolan Nafarroako Enpresari Elkargoaren ordezkarien lehen bisita izan dute. Eskualdean egiten duten lehen bilera honetan informazio trukaketa eman da eta erakunde honek Lanbide Heziketa ikastetxeak eta enpresekin egin dezaken bitartekaritza lana ere azaldu da. Elizondoko Lanbide Eskola laister eskualdeko lehen Zentro Integratua izanen da eta honekin batera barne organo kolegiatua den Kontseilu Soziala eratuko da. Bertan ikastetxeordezkariak, Hezkuntzakoak, Sindikatuetakoak, Enplegu zerbitzukoak eta Enpresari Elkargoko ordezkariak protagonismoa hartuko dute Zentru Integratuaren eskualderako eskainiko duen formakuntza eskaintza aurreikusitako bideratzerakoan.

Maite Ariztegi, Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendariak aipatu duenez, «gure ikastetxean biziki eskertzen dugu hurbilketa hau eskualdean Lanbide Heziketa inguruan gure eskaintza hobetzen eta osatzen laguntzeko aukera bezela ikusten baitugu».

«Akreditazioa, zertifikazioak eta formakuntza Duala dira aitzinera jartzen ahal ditugun ekimenak eskaintzak bihurtuz –dio Ariztegi-. Eskualdeko enpresekin elkarlana errazteko Enpresari Elkargoaren eskaini digun bitartekaritza hau baliagarria izango zaigu eta erakunde honek bertze eskualdeetan duen esperientzia gure eskualdean ere baliatzeko aukera polita izango dugu».

FLASH

San Anton

landean ospatuko dute San Anton Eguna Elizondon. 11:00etan Zopak izanen dira, 12:00etan bertsolariak eta 13:00etan Zahar Etxearen aldeko zozketa.

Antzerkia Iruritan

Ilbeltzaren 17an, igande arratsaldeko 7etan *Putinen guardasola* helduentzako antzerkia ikusgai izanen da Iruritako Gizarte Bilgunean. Sarrera doan.

Gizakunde

Ilbeltzaren 23an Gizakunde Eguna ospatuko dute Erratzuko Kultur elkarteak antolatuta. 20:00etan kanposantutik abiatuko da ibilbidea Erratzun barna, etxex etxeko eskea, sagardantza eta mozorrodantzekin. Afaldu baino lehen Jantziloren epaiketa bertsolariekin eta 22:00etan afaria Etxelebertzeko txokoa.

GIZARTEA → OIARTZUN-SARA, SARA-ZUGARRAMURDI ETA URDAZUBI-KANO ETAPAK

Donostiako europar hiriburutzak Xareta ere hunkituko du aurten

600 kilometroko oinezko bidearen etapa batzuk gure inguruan egingen dira irailean

TTIPI-TTAPA

“Donostia Europako Kultur-Hiriburua 2016” dela eta, gure lurraldean egingen dituzten ekitaldi batzuk aurkeztu zituzten museoko auditorioan abenduaren 15ean.

“2016 Bidea” izena du ekitaldiak, eta euskal herria kurrituko duen oinezko 32 etapa dira, denetara 600 kilometro. Igandero egingen dira, martxoan hasi eta urrian finituz.

Gure zonaldean egingen diren hiru etapa aurkeztu zituzten: Oiartzun-Sara, Sara-Zugarramurdi, eta Urdazubi-Kanbo. Irailean egingen dira, eta aintzinago xehetasun gehiago emanen ditugu.

Euskal Harriaren ABD-ak

Euskal Harriaren ABD-ak filma abenduaren 18an ikusgai izan ginen Museoko auditorioan. Jende azkarki hurbildu zen eta sorpresaz beteriko ikuskizuna izan zen, ez baitzen usaian ikusten dugun filma horietako bat.

Euskal herriko hainbat herrik parte hartu



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

Museoko auditorioan aurkeztu zituzten irailean egingen diren ibilaldiak.

zuten, bakoitzak laburmetrai bat eginez. Euskal “abezedariorak” dituen letra bakoitzeko, herri batek laburmetrai bat eginga zuen (labur-laburra, 5 minutu gehiezin).

Eta adibidez gure herri hurbilekoenak, Sarakoek eta Lesakakoek egindakoak ikusi genituen. Sarakoena, hiltzaille bati buruz; eta Lesakakoena, olentzerori buruz.

Ione eta Oaia gazteak jendaurrean kantari

Azken hauetan musikari eta kantari berriak «sortzen» ari zaizkigu herrian, Urte hasieran *Ostion* eta *Toomaxa* taldeak eman ziren ezagutzera; gero udazkenean *Los duendes* rumba estiloan aritzen diren Ione eta Agus izan genituen; eta gan den abenduaren 6ean Ione eta Oaia bikote gaxtea, jende aintzinean kantatzera ausartu ziren.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Ione eta Oaia bikoteak kantaldi pulita eskaini zuen Graxianan eta txalo zaparrada handia jaso zuen.

Egun horretan, Graxiana aterpetxeak antolatutako ekitaldien artean, borts kantuko emanaldi tiki bat egin zuten. Aski puliki aritu ziren eta txalo zaparrada bat jaso zuten.

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI

AZPIEGITURAK

7'5 milioi euro bideratuko dituzte tunelak hobetzeko

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 7,5 milioi euroko inbertsioa baimendu du N-121-A errepideko (Belate, Almandoz, Oieregi eta Sunbilla) tuneletan jarduketan plan bat egiteko, 2004an ezarritako Europako gutxieneko segurtasun-baldintzei egokitu behar zaizkienak: bazterbide berriak, drainatze-sistemak eta toxikoen ebakua-zioa, suteei aurre egiteko kableak, suteak itzaltzeko sistemak eta larrialdiko hornidura elektrikoak... Inbertsioak 2016 eta 2019 artean egingen dira.

Manu Aierdi, Garapen Ekonomikorako presidente ordeak ezagutzera eman du jarduketa-plana abenduaren 30ean. Gure eskualdeko errepideetako tunel horietan 214.000 euroko inbertsioa egingen dute 2016an; 2017an, ordea, 2.161.000 euro inbertituko dira, 4.125.000 euro 2018an eta 985.000 euro 2019an.

6,6 milioi euro ere erabiliko dira Leitza-rango Autobiako hiru zubiak (Astomela, Kasarna eta Larrazpi) datozen hiru urteetan konpontzeko (2016-2018).



Belateko tunel sarrera.

URDAZUBI

GIZARTEA → ABENDUAREN 13AN EMAN ZIREN SARIAK

Benta Pacok irabazi zuen Dantxarineko Pintxoaren II. Hamabostaldian

Ahatearen Taloa izan da pintxo irabazlea eta Benta Peiok aipamen berezia jaso zuen

Txomin Iribarren pintxo irabazlearen bila ibili ziren bentaz benta, auto dotorean.

Honako ostatu eta benta hauek parte hartu zuten pintxo lehiaketan: Lapitxuri, Agus, Landibar, Patxi, Peio, Paco, Mikelenborda eta Pantxo.

Benta Pacoko David Bidaurre irabazleak Ahate Taloa aurkeztu zuen. Pintxo ahateaz egindako hanburguez eta saltsa eta artoarekin erakutsi zuen. Aipamen Berezia Benta Peioko pintxoarentzako izan zen, otarrainkza eta txibiaz egina. Epaileek pintxoaren maila oso ona zela aipatu zuten.

Pintxoak dastatu zituztenen artean Nutrikuko landa etxe batean bi pertsonendako aste-burua ere zozketatu zen.



ARGAZKIA: ALFIL COMUNICACION

Benta Pacoko David Bidaurre eta arreba, pintxo irabazlea aitzinean dutela. Beheitan, epaimahaikideak bentaz benta besta giroan, erabakia hartzen.

Amado Elians izan zen irabazle. Facebook birtartez parte hartu zuten artean, berriz, jate-txe irabazlean bi pertsonendako otordua Jon Zelaietak irabazi zuen.

Ba al zenekien

Nafarroako III. Laburmetrai lehiaketan, José Carraleroren zuzendaritzapean Urdazubian irudiak grabatu zituen 'Mil kilómetros' filmak eskuratu duela argazki onenaren saria.



JATEKOA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinetik
 2 km.tara

PLATER KOMBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac prêt à porter restaurant supermarché tabac cadeaux maroquinerie

KULTURA → URTEKO KULTUR EGITARAU

2016an ere toki zabala euskal kulturarentzat Larreko kulturgunean

Euskal xerriaren kalitatea aitortzeko

Franck DOLOSOR

Euskarak eta euskal kulturak leku aipagarria izanen dute herriko etxeak prestatu duen kultura programazioan. Ereiaroa arte, kantua, dantza eta antzerkia izanen dira, bertzeak bertze, Cathy Biscay Senpereko kultura ardura-dunak prestatu duen programazioan. Urtarrilaren 31n, 17:00, Psirc konpainiak Acrometria zirko ikusgarria proposatuko du Larreko gelan. Ondotik, Elirale edo Maritzuli dantza konpainiak agertu dira gure herrian. Otsailaren 21ean, 16:00etan, Sen-

pere aldeko kantuzalek preziatuko duten kantaldia entzuten ahaliko da, Carrère familia, Pil Pil eta Kartsuki taldeekin. Xehetasunak eta programazio osoa www.larreko.fr webgunean eta sare soziale-tan.

Auzapezaren agiantzak

Urte berri kari hautesiek agiantzak eskaintzeko ohitura hartu dute azken urteetan, bertzeak bertze, landu nahi dituzten proiektuak aipatzeko. Senperen urtarrilaren 16an larunbatarekin finkatua da hitz ordua goizeko 11etan. Hautetsi, herritar eta elkar-teei idekia den ekitaldian Pierre Marie Nousbaum auzapezak bere lan taldearen xedeak aipatuko ditu.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Alain Rousset sozialista Akitaniako eskualdeko presidente hautatua laugarren aldikoz urtarrilaren 4ean. 183 hautetsien artean, 10 Ipar Euskal Herrikoak dira, hauen artean Ande Sainte Marie eta Alice Leiciagueçahar ekologista.

HAUTESKUNDEEN ONDOTIK

Alain Rousset Akitaniako presidente

F. DOLOSOR

Alain Rousset sozialista Akitaniako eskualdeko presidente izendatu dute laugarren aldikoz Bordelen. Ezker anitzak abenduko hauteskundeak irabazi zituen bozen %44ekin zentro eskuinak 10 puntu gutiago izan zituelarik. Senperen sailkapena desberdina izan zen zentro eskuinak bozen %42,08 bildu baizituen ezker anitzak %38,76 izan zuelarik. Fronte Nazionala eskualde kontseilurat sartu da beriz, aldi honetan 29 ordezkarekin, hauen artean bi Ipar Euskal Herrikoak dira. Lehen aldia da Marine LePenen alderdiak ordezkartza erdiesten duela euskal lurretan. Eskuin muturra goiti ari da alde guzietan, Senperen ere kasik bortz bozetik bat eskuratu baizuen, 432 boz denerat, 2010ean 77 zituelarik. 2012ko hauteskunde presi-

dentzialetan FNaren errekorra izan zen gure herrian Marine LePen hautagaiak 464 bildu zituelarik.

Zerrenda abertzalerik ez da aurkeztu aldi honetan baina Abertzaleen Batasuneko bozeramaile ohia hautetsi bilakatu da Bordelen, hautagai baitzen independente moduan ezker anitzarekin. Ande Sainte Marie landibartarrak dio kalitateko laborantza herriko eta iraunkorren alde lan eginen duela Akitanian. Hurbiletik segituko du ere Akitania-Euskadi euroeskualdearen haunditzea laster Nafarroa Garaia ere bertan sartuko baita. Alain Rousset presidente sozialista pozten da elkarlanean aritzea Iñigo Urkullu lehendakaria eta Uxue Barkos presidentarekin elgarrekin Europako euroeskualderik haundiena osatuko baitute.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 23an
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa - LEKAROZ | 948 452121 - 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

SARA

GIZARTEA → URTARRILAREN 23AN

Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa egun bakarrean

Eguna ongi bukatzeko Angeluko Les frères Ingalls cajun taldeak kontzertua emanen du

Joana GERENDIAIN

Urtero bezala herriko etxeko edantegiak bere mus txapelketa antolatzen du baina aurten usaian ez bezala egun bakar batez iraganen da, urtarrilaren 23an larunbatarekin. Txapelketa goizeko 10etan ha-

siko da, eguerdian janaria eskainia izanen zaie jokalariei eta finalak iluntzean jokatu dira. Eguna ongi bukatzeko, gaueko 9:30ean, Angeluko *Les frères Ingalls* cajun taldeak kontzertu bat emanen du. Izenak urtarrilaren 21a baino lehen eman behar dira ostatuan edo 05.59.54.25.19 zenbakira deituz, 13 euroko parte hartzea galdegin da pertsona.

Hinka taldearen kontzertua

Urtarrilaren 24an, igande arratsaldeko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Telethon jendetsua

Jende frangok parte hartu du Telethonaren kariatara antolatutako ekitaldi ezberdinetan: 150 bat pertsona hurbildu dira Larrunera igotzeko, 50 bat bat krakadara eta 22 bazkarira. Jendea eskuzabala izan da ere, 400 euro bildu dira pastiza salmentari esker eta 3.500 euro emanak izan dira elkarteari.

5etan kontzertua eskainiko du Hinka taldeak Santa Katalina kaperan.

Pilota kontuak

Pleka trinketeen esku huskako Frantziako xapelgoko partidak jokatu ziren urtarrilaren 2an. Orain, apirilaren 23ra arte Joko Berri xapelketa jokatzeko ari dira, asteartean 19:30e-

an, ortzegunetan 18:00etan eta igandetan 10:00etan.


Spar denda ideki dute

Abenduaren erditsutik, Lur Berri gelaren azpikaldean, Spar dendak bere ateak ideki ditu. Azkaineko neska bat da denda honen buru eta Sarako bi neska

enplegatzen ditu. Tokiko ekoizleekin lan egitea erabaki du eta erosketak etxetara eramateko zerbitzu bat ere proposatzen du.

Denda astelehenetik larunbatera goizetan 8:30etik 12:30era eta arratsaldetan 3:30etik 7:30era idekia da eta igande goizetan 9etatik 12:45 arte.

Rekordatorioak
egiten ditugu

 ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458



Feliciano ZUBIETA SANZBERRO

Etxalarren, 2015eko abenduaren 6an,
81 urte zituela

Zure begien dizdira eta
ezpainetako irria
beti gurekin egonen dira
amatxi maitagarria.

ETXEKOAK



Lorentxo APEZETXEA ZUBIETA

Goizuetan, 2016ko urtarrila

Nahiz eta 222. aulkia
hutsik gelditu,
gure artean
egongo zara beti.

UMORE ONA ELKARTEA



Martzutzak
OSPAKIZUNETARAKO
JANTZIEN LIKIDAZIOA
♥-%50 ♥-%60 ♥-%70
Urtarrilak 15 eta 16
10:00-20:00 irekia
f Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Martin Txapartegi eta **Dina Aracely Marengo Monjarez**, Sarakoak, abenduaren 12an.

Raul Fernandez Velasco eta **Olatz Maculet Pascual**, Lesaka eta Donostiakoa, abenduaren 5ean.

Iñaki Avila Ramajo eta **Ainhoa Olai-zola Rojas**, Irungoak Artikutzan, azaroaren 18an.

Urko Ikardo Enparan eta **Eva Maria Campo Muller**, Hondarribia eta Irungoa, Arantzan, abenduaren 19an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Beñat Ugarte Almandoz, Arantzakoa, azaroaren 28an.

Leire Perotxena Abete, Elizondokoa, abenduaren 4an.

Oinatz Arrastoa Agerrebere, Arraiozkoa, abenduaren 15ean.

Isaac Rapata Pepene Castaingt, Sarakoa, azaroaren 4ean

Charlyne Monce, Sarakoa, azaroaren 21ean.

Raphael Barbier, Sarakoa, abenduaren 3an.

Nahia Ordoki Carrera, Lesakakoa, abenduaren 2an.

Erika Andiarena Mindegia, Doneztebekoa, abenduaren 18an.

Narrea Etxeberria Martin, Elgorriagakoa, abenduaren 25ean.

Aisha Sow Altzu, Iturengoa, abenduaren 27an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Gertrudis Iturralde Zozaia, Arraiozkoa, abenduaren 2an, 92 urte.

Clara Mitxeo Oteiza, Legasakoa, abenduaren 2an, 91 urte.

Marcelino Mariezkurrena Baleztena, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 2an, 77 urte.

Miguel Mitto Ariztia Mendiburu, Azpilkuetakoa, abenduaren 3an, 45 urte.

Manuel Igoa Mitxelena, Lesakakoa, abenduaren 5ean, 87 urte.

Feliciana Zubieta Sanzberro, Etxalarkoa, abenduaren 6an, 81 urte.

Jose Mikelarena Inda, Berakoa, abenduaren 7an, 90 urte.

Severiana Fagoaga Garralda, Zubietakoa, abenduaren 9an, 93 urte.

Juliette Ayerra Valle, Elizondokoa, abenduaren 9an.

Jose Ramon Huizi Iparragirre, Goizuetakoa, abenduaren 9an, 90 urte.

Fermin Jaunsaras Iparragirre, Almandozkoa, abenduaren 18an, 92 urte.

Francisca Etxeberria Telletxea, Igantzikoa, abenduaren 20an, 88 urte.

José Rendo Regos, Leitzakoa, abenduaren 21ean.

Felisa Ondikol Gragitena, Elizondokoa, abenduaren 22an, 84 urte.

Jean Louis Larrondo Onabarro, Elizondokoa, abenduaren 25ean, 81 urte.

Martin Gartziaarena Mariezkurrena, Leitzakoa, abenduaren 27an, 74 urte.

Fermin Gomez Zubiri, Aresokoa, abenduaren 28an, 85 urte.

Beñi Labaien Iñigo, Iturengoa, abenduaren 28an, 75 urte.

Escolástico San Julian Arnau, Lesakakoa, abenduaren 28an, 84 urte.

Marcelle Andrée Souny, Sarakoa, azaroaren 26an, 99 urte.

Joset Aguirre, Sarakoa, azaroaren 28an, 66 urte

Jean Baptiste Pery, Sarakoa, abenduaren 17an, 69 urte.

Luis Mari Garaikoetxea Etxenike, Elizondokoa, abenduaren 30ean, 56 urte.

Maria Fermina Plaza Lasset, Almandozkoa, abenduaren 31n, 93 urte.

Natividad Etxeberria Zozaia, Zozaia, urtarrilaren 1ean, 91 urte.

Maria Angeles Lasarte Sagastibel-tza, Leitzakoa, urtarrilaren 2an, 87 urte.

Salvador Arozena Iribarren, Doneztebekoa, urtarrilaren 4an, 78 urte.

Fermina Etxarte Elizondo, Berrizaungoa, urtarrilaren 4an, 87 urte.




Joxe MARITORENA «Morkotz»

*Goizegi joan zara
gure ondotik,
zailegi izanen da
zu gabe bizitzerik.*

*Landagaintako askatasuna
biziko duzu hurbiletik
baina zure maitasuna
balore eta sinismenik,
ez dugu inoiz ahaztuko
gure bihotzetik.*

ZURE FAMILIA



Joxe MARITORENA LARRALDE «Morkotz»

*Momentu gogor honta gure eskerrak,
baserriar maitemindua zagon artzaiari
Bere Intzola Yasola konkorra suizi-lepo
Solaz batian Larhun-a.*

*ta han zabiltzan betizu sasiardi ta potokak
beharko ditugu hire aholkuak
begiratoki berri hortatik.*

*Ez etsitzeko baserrian tinko
egin behar diren lanekin segitzeko.*

ZURE LAGUNAK

PILOTA → ABENDUAREN 19AN BERAKO EZTEGARAN

Bortzirietako eskuz binakako XV. txapelketako finalak jokatu dituzte

Martin Goikoetxea argazkilaria omendu du Bortzirietako pilota elkarteak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz binakako XV. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte abenduaren 19an Berako Eztegaran pilotalekuan.

Ttikiak: Amaiur Martinez eta Aimar Otxandorena (Lesaka), 18 – Urko Olaizola eta Unax Bereau (Lesaka), 11.

Umeak: Beñat Ber-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Txapeldun, txapeldun ordeak eta partehartzaile gaztetxoak, sariekin.

tiz (Irun) eta Andoni Latorre (Bera), 18 – Ion Urkiola eta Koldo Lakar (Bera), 10.

Kimuak B: Mattin

Altxu eta Lander Etxenike (Igantzzi), 18 – Joseba Telletxea eta Asier Martin (Etxalar), 12.

Kimuak A: Oihan

Etxeberria (Oartzun) eta Beñat Apezetxea (Goizueta), 18 – Adei Villamea eta Jon Pagola (Bera), 6.

Haurrak: Xabier Telletxea eta Koldo Bizente (Etxalar), 18 – Unax Villamea (Bera) eta Iker Etxebeste (Irun), 9.

Gazteak: Enaitz Telletxea (Igantzzi) eta Aimar Ariztegi (Baztan), 22 – Mikel Eltzaurdia eta Harri Maritorea (Bera), 13.

Txapelketan parte hartu duten pilotari ttikiak orogarririk jaso zituzten eta horretaz gain, Bortzirietako pilota elkarteak omenaldia eskaini nahi izan zion txapelketa guztietan laguntzaile izan duten Martin Goikoetxea Goiko argazkilaritari, erretiroa hartu duelako.

PILOTA → ABENDUAREN 20AN FINALAK

Baztanen ere binakako txapelketa jokatu dute

107 bikote aritu dira

TTIPI-TTAPA

Txaruta elkarteak antolatutako Baztango 34. Eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten abenduaren 20an Elizondoko eta Iruritan. 107 bikote partehartu dute guztira.

Umeak B: Ultzamako Aimar Iribarren eta Oi-

han Belarrak 18-9 irabazi zieten Oronozko Joel Garaikoetxea eta Elizondoko Oier Zelaie-tari.

Kimuak B: Tafallako Eneko Elizondo eta Eneko Ruizek 18-5 irabazi zieten Irurietako Aritz Bikondo eta Ander Lakostari.

Haurrak B: Oartzungo Mikel Aranburu eta Gexan Albisuk 18-14 irabazi zieten Paz Zigan-



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Txapelketan parte hartu duten pilotari Elizondoko frontoian jaso zituzten sariak.

dako Jon Lakabe eta Julen Sarasari.

Kadete B: Oartzungo Ekaitz Salaberria eta Jon Iñarrak 18-12 irabazi zieten Añorgako Manex Albeniz eta Iñaki Urbieta-ri.

Umeak A: Beteluko Igor Nazabal eta Arribeko Julen Sotilek 18-14 irabazi zieten Elizondoko Aimar Obregon eta Iru-

ñeko Dani Sanchez-i.

Kimuak A: Irungo Unai Amianok eta Añorgako Julen Orbegozok 18-11 irabazi zieten Elizondoko Ibai Ballarena eta Oihan Obregonari.

Haurrak A: Zizurko Josu Igoak eta Elizondoko Axier Ballarenak 18-5 irabazi zieten Oartzungo Ekaitz Sein eta Josu Aburuzari.

Kadete A: Lizarrako Santiago Yanizek eta Iruñeko Beñat Santamariak 18-3 irabazi zieten Javier Bobadilla eta Ramon Jimenez errioxarre.

Gazteak: Igantziko Oihan Canabal eta Iruñeko Pablo Cordonek 22-7 irabazi zieten Hernaniko Endika Arizmendi eta Ander Lazkanori.

ERREMONTEA → ABENDUAREN 26AN

Ezkurra eta Endikak irabazi dute binakako txapelketa

Bosgarrena du doneztebarrak, lehenbizikoa saldiastarrak

TTIPI-TTAPA

Erakustaldia eman zuten Ezkurak abenduaren 26an Galarreta pilotalekuan. Endika laugun zuela, 40-24 irabazizieten Matxin III.a eta Ioni. Garaipen honekin, Binakako bosgarren txapela jantzi zuen doneztebarrak, bere ibil-

bideko hamaseigarrena. Endika saldiastarrarentzat, berriz, lehenbizikoa izan da, duela bi urteko finala galdu baitzuen.

Ezkurra eta Endika ziren faboritoak eta partidako lehen tantoak oso parekatuak izan ziren arren, aldea egin eta nagusitasunez lortu zuten garaipena (40-24).

Matxin III.ak eta Ionek ongi hasi zuten finala, 5-2 galtzen joan ondotik 6-7 irabaztera pasaz. Ezkurak eta En-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bikote bikaina osatu dute Endikak eta Kotetok.

dikak ez zioten garaipenari ihes egiten utzi nahi ordea, eta markagailuari buelta eman eta zuloa handitzea lortu zuten. 17 tanto lortu zituz-

en doneztebarrak, eta lau pilota galdu. Endikak ere final ona jokatu zuten, 11 tanto lortuta, hamar galdu arren. Azkenean, pozik biak.

ILBELTZAREN 9AN

Paxaka txapelketa 11 hirukoterekin abiatu da

TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 9an Baztan-Errekako Paxaka Txapelketaren hamaseigarren edizioa hasi da eta otsailean akituko da. Hameka hirukotek eman dute izena. Aipatzekoa da Erratzuko bi taldek lehen aldiz parte hartuko dutela txapelketa honetan. Horietaz gain, Iruritik sei talde aurkeztu ditu (batzuetan Elizondoko jokalariekin), Doneztebek bi eta Arraiozek bakarra. Iru-rita eta Erratzuko frontoietan jokatuko dituzte partidak.

Martxoan, berriz, Laxoa Txapelketa abiatuko da.

ERREMONTEA → EGUBERRIETAKO TXAPELKETA

Xanti Uterga frontoi laburreko buruz burukoan nagusi izan da

30-15 irabazizion Labriteko finalean Urriza faboritoari

TTIPI-TTAPA

Ezustea eman zuten abenduaren 20an Xanti Utergak eta nagusitasunez irabazi zuten Eguberrietako frontoi labu-

rreko erremonete txapelketa. Doneztebarrak partida perfektua jokatu du eta 15 tantutan utzi du Urriza faboritoa.

Egia da frontoi laburrean bi erremontelari hauen arteko aldea murrizten dela, baina halere Urriza zen faborito. Utergak, ordea, ez zion inolako aukerarik eman. Sakatzerako orduan,



UTZITAKO ARGAZKIA

Uterga txapeldun eta Urriza azpitxapeldun, Eguberrietako frontoi laburreko txapelketan.

aunitz aldatzen joan zen Uterga bere lehen kolpea eta aldea hartu zue- nean, dena ongi atera zitzaion. Hormabikoekin maisu aritu da eta izugarrizko aldea atera du (20-9). Hor izan du

erreakzio tiki bat Urri- zak (21-12) baina Uter- gak berriz sakea har- tzerakoan zuzen joan da garaipenera (30-15).

Frontoian aditzen ze- nez, Utergak horrela jo- katuz gero, frontoi la-

burreko txapelketa lau aldiz irabazi zuten Urta- sunek bakarrik egin dezaioke aurre. Nork daki, beharbada aurten izanen da norgehiago- ka hau ikusteko auke- ra.

ARIZTEGI, Maika

Euskal Herriko kokxor biltze txapelketa irabazi du Igantzin hamalau garren aldiz. Nafarroako ingude txapelketa ere irabazi zuen.

**ARIZTEGI, Xabier**

Etxalarko harrijasotzailak lehen aldiz Nafarroako txapelketa irabazi du. Denera 5.362,5 kilo jaso zituen Santxin-ek Iruñeko Sanferminetako saioan. Josetxo Urrutia izan zen bigarren.

BAZTAN F.T.

Ustekabeen hirugarren mailara igo da Baztan Futbol Taldea; jubenilak ere lehen mailara igo dira eta lehen aldiz emakumeen taldea zelairatu dute.

**BENGOETXEA, Oinatz**

Aurrelari leitzarrak eskuz binakako txapelketa irabazi zuen Untoria-ekin. Buruz buruko finalerako txartela ere lortu zuen, baina lesio baten ondorioz ez zuen jokatzetik izan.



Maika Ariztegi eta Fernando Etxegarai kokxor biltzen Euskal Herriko txapelkun Igantzin.

**BETI GAZTE**

75. urteurrena ospatu du Lesakako elkarteak hainbat ekitaldirekin. Kirol arloan, sokatira taldeak eman dizkio garraipenik handienak, Nafarroako txapelketa eta Euskadiko 4x4koa irabazi berri baititu. Orain, Euskadiko txapelketa nagusiaren ondotik, Mundukoan parte hartuko du otsailean Hollandan.

ERREKA

Doneztebeko elkarteak 2014ko Nafarroako kirol klubik onenaren saria jaso zuen otsailaren 9an Iruñean.

ETXEGARAI, Fernando

Hainbat mendi lasterketan punta puntan ibiltzeaz gainera, Sarako Kontrabandisten Lasterketa irabazi du.

naerdiko mozteko 4 ordu, 21 minutu eta 21 segundo behar izan zituen.

**EZKURRA, Koteto**

Profesionaletan 25 urte bete dituen urtean, bere izenjarri diote Doneztebeko udal pilotalekuari. Lesioek uzten diotenean oraindik maila handia erakusten du eta binakako txapelketa irabazlea izan da Endikarekin.

IBARGARAI, Xabi

Munduko buruz buruko pala txapelketaren finalera ailegatu zen bigarren urtez segidan Erratzuko pilotaria, baina galdu egin zuen Pablo Fusto argentinarraren kontra. Binakakoan bai, Munduko txapelkun suertatu zen Fusto berarekin bikote eginez.

IRURITA

Baztan-Errekako laxoa txapelketa hamargarren aldiz irabazi du Iruritik,

abuztuaren 1eko finalean Donezteberi 9-6 irabazita Iruritan bertan. Xabi Barberena sakalaria, Gorka Urtaşun numeroa (finaleko guntelari onena izendatu zuten) eta Jagoba Ramos eta Egoitz Prim koartokak aritu ziren talde txapelketa. Josu Prim herritarrari ere omenaldi tiki bat egin zioten.

**KANFLANKA, Jon**

Lehen aldiz Nafarroako sega txapelketa irabazi du leitzarrak. Bost urtez jokatu gabe egon ondotik, uztailean 5ean jokatu zen txapelketa Azkaraten eta leitzarrak 200 kiloko aldea aterazion Mikel Berakoetxeari.

KENPO

Gero eta zabalkunde handiagoa duen kirola da gure inguruan eta Espainiako txapelketan, hainbat domina eskuratu zituzten, tartean, urrezkoa Aroa Canabal



Iruritik irabazi du laxoa txapelketa, finalean Doneztebe menperatuta.

eta Beñat Yanci igan-tziarrek.



LANDIRIBAR, Lander

2014an azpitxapeldun izan ondotik, iaz Nafarroako lasto altxatze txapelketa irabazi zuen lehen aldiz kirolari amaiur-tarrak, Iruñeko Sanferminetan egindako saioan (13 altxaldi eta 20 segundu gehiagotan hurrengo). Iñigo Goienez herritarra bigarren izan zen (13 altxaldi) eta Igantziko Eneko Tellexea hirugarren (8).

LARRALDE, Joseba

Manttaleko mendi lasterkari beratarrik urri-ri Mendira Joan Etorria lasterketan nagusitu zen Etxarrin, Nafarroako mendi lasterketan zirkuituko azken proban. Lehenengo aldiz irabazi du 40 urteko historia daukan proba hau. Irailaren 26an Olazti-Urbasa proba ere irabazi zuen.

LARRETXE, Donato

Latasa Memoriala irabazi zuen Sunbillan Arria V. arekin bikote eginez eta hain zuzen, gipuzkoarraren kontra jokatu eta irabazi du Tolosan urteko azken apustu ikusgarria.

MANTTALE

Berako mendi lasterketa taldeak hamar urte egin dituenean, 10x100 erronka erraz bete eta ehun lasterketa baino



10x100 Erronka bete du Manttaiek bere hamargarren urteurrenean.



Larretxea eta Arria V, Tolosako apustua bukatuta.

gehiagotan parte hartu dute bere korrikalariak. Nafarroako txapelketa ere irabazi dute taldeka bigarren aldiz, bakarkako bertze zenbait garapenen artean.

NAFARROA

2010. urteaz geroztik lortu ez zuen garaipena lortu zuen herrialdeen arteko herri kirol txapelketan irailaren 19an Eli-

zondon. Hamar kirol-tatik bortzetan nagusitu zen.

SALABERRIA, Iker

Hainbat txapel lortu ditu. Kadete mailan binakako txapeldun izan zen Jon Mariezkurrenarekin bikote eginez eta gazte mailako lehen urtean, Guillermo Mazo Nafarroako lau eta erdiko txapelketa irabazi du.



Nafarroa garaile izan da Herrialdeen arteko herri kirol txapelketan.



URRUTIA, Josetxo

Lehen aldiz Nafarroako eta Euskadiko ingude altxatze txapelketak irabazi ditu leitzarrak Iruñeko Sanferminetan eta ekainaren 26an Diman.

UTERGA, Xanti

Doneztebeko alkate izan baino lehen buruz buruko Master txapelketa irabazi zuen, finalean Endika saldiastarrari irabazita. Buruz buruko ofizialean galdutako egin zuen Urrizaren kontrako finala, baina Eguberrietako frontoi laburkoan irabazi dio.

SAN MIGUEL, Julen


2014an buruz buruko irabazi eta binakakoan finalista izan ondotik, urte bukaeran Oriamendi 2010 enpresak ez zion kontratua berritu, «zenbaitetan kantxan erakusten duen portaeragatik».

SOUZA, Xanta

2014an bezala, Euskadiko txingara eramate txapelketa irabazi berri du lesakarrak abenduaren 20an Asteasun. Laugarren txapela du.

URRUTIA, Endika

Urte polita osatu du erremontelari saldiastarrak eta Ezkurrearekin batera lortutako binakako txapelarekin borobildu du. Bere lehen txapel ofiziala izan da.



ZUBIRI, Aritz

Urte borobila osatu du Goizuetako erremontelariak, duela bost urte profesional egin zenetik onena. Hiru hilabeteren buruan bi txapel jantzi zituen: martxoan promesas txapelketa, Otaegirekin bikote eginez eta ekainean promozio txapelketa, Ansa II. arekin batera.

urtarrilak 14 - urtarrilak 28

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eu edo 948 63 54 58

Antzerkia



IRURITA | 2016.01.17

Euskal ereserkiaren bilaketa komikoa

Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreek *Putinen guardasola* antzezlanaren taularatuko dute, urtarrilaren 17an Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean.

Musika



BORTZIRIAK | 2016.01.16 eta 23

Trikiti doinuez gozatzeko aukera bikoitza

Urtarrilaren 16an Lesakako Harriondoan ospatuko da Nafarroako II. Trikitixa jaialdia. Eta Arantzan urtarrilaren 23an estreineko antolatutako dute jaialdia.

Tailerra



ETXALAR | 2016.01.16

Xaboa nola egiten den ikasteko aukera

Berako Monika Agirrerekin, urtarrilaren 16an hasi eta hainbat astez, larunbatero egiten dira saioak. Guzira 4 saio izanen dira, dohainik.

ZUBIETA

Santa Anton eguna

Urtarrilaren 17an, egitaraua 23. orrialdean.

Ikuskizunak

SENPERE

'Akometria' zirko ikusgarria

Urtarrilaren 31n Larreko gunean 17:00etan Psirc konpainiaren eskutik.

Inauteriak

ARANTZA

Urtarrilaren 21etik 23ra.

LEITZA

Urtarrilaren 23tik 27ra.

ERRATZU

Gizakunde

Urtarrilaren 23an. Erratzuko Kultur Elkarteak antolatuta, 20:00etan hasiko dira ekitaldiak.

SUNBILLA

Urtarrilaren 29tik 31ra.

ITUREN, AURTITZ ETA ZUBIETA

Ilbeltzaren 28, 30, 31 eta otsailaren 1, 2 eta 3an.

IGANTZI

Ilbeltzaren 29 eta 30ean.

ARESO

Ilbeltzaren 29 eta 30ean.

Jaialdiak

LESAKA

Nafarroako II. Trikitixa Jaialdia

Urtarrilaren 16an, 18:00etan Harriondoan.

ARANTZA

I. Trikitixa Jaialdia

Urtarrilaren 23an, 17:00etan frontoian.

Tailerrak

GOIZUETA

Sukaldaritza makrobiotikoa

Urtarrilaren 13, 20 eta 27an, Umore Ona elkartearen 18:30etik 21:30era.

ETXALAR

Xaboa egiten ikasteko tailerrak

Urtarrilaren 16, 23, 30 eta otsailaren 6an. Dohainik.

Solasaldiak

ARIZKUN

'Gizon gogorraren sekretua' liburuaz

Urtarrilaren 19an. Idazleekin solasean saioa Etxeberria anaiekin. 19:00etan medikuaren etxeko liburutegi beltzean.

IRURITA

'Jose Antonio Loidi, Angelita arrebaren begietatik'

Urtarrilaren 21ean. Jauregiarten 19:00etan.

ELIZONDO

'Akabaila beltzak zineman'

Urtarrilaren 22an.

Harkaitz Canok gidatuta, Arizkunenean 19:00etan.

Zinea

ELIZONDO

'Columba Palumus'

Ilbeltzaren 23an, Koldo Almandozen labor-metraiaren aurkezpena. Erlategi Elkartearen

Antzerkia

IRURITA

'Putinen guardasola'

Urtarrilaren 17an, 19:00etan Damaso

Zabalza Gizarte Bilgunean.

Bertsolaritza

ESKUALDEA

Bardoak taldekako bertso ekimena

Urtarrilaren 22an Donamariako herriko ostatuan 19:30ean eta Berako Katakua ostatuan 21:30ean izanen diren saioekin emanen diete hasiera hirugarren edizioari. Eskualdeko hurrengo saioa urtarrilaren 29an, 22:00etan Leitza

Atekabeltz gaztetxean izanen da. Informazio gehiago 19. orrialdean.

Ospakizunak

LESAKA

Santa Anton eguna

Urtarrilaren 17an, Informazio gehiago 13. orrialdean.

ELIZONDO

Santa Anton eguna

Urtarrilaren 17an, urteroko ohituraz zopak, bertsolariak eta zozketa.

PROPOSAMENA

BAZTAN

Euskal nobela beltzaz gozatzeko aukera

Beltzez jantziko da Baztan ilbeltzaren 18tik 24ra arte. Bigarren urtez, Euskal nobela beltzaren Astea antolatu du Baztango Irakurle taldeak. Euskal literatura beltza ardatz hartuta, solasaldiak, aurkezpenak, itzulixkak eta bertze hainbat ekitaldi antolatu dituzte. (H)ilbeltza beltzaz webgunearen aurkezpena ere egiten dute, abenduaren 18an Elizondoko liburutegian 19:00etan.



Musika

BERA

Tempora

Urtarrilaren 16an,
20:00etan Kultur Etxean. Sarrerak: 6 euro.

LESAKA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Lesaka eta Doneztebeko abesbatza kantuan

Urtarrilaren 21ean,
20:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Sarrera: 6 euro.

IRURITA

Irakurtaldi musikatua

Ibeltzaren 24an,
19:00etan Idoia eta Mikelekin Jauregiarte taberna kulturalan.

SARA

Hinka taldearen emanaldia

Urtarrilaren 24an,
17:00etan Santa Katalina kaperan.

Kirola

GOIZUETA

Futbito txapelketa azkarra

Urtarrilaren 30ean
Umore Onak antolatuta
16:30etik aurrera.

ESKUALDEA

XVI. Paxaka txapelketa

Urtarrilaren 9tik otsailaren 14ra
Ligaxkako lehenengo faseko partidak.

SARA


Joko berri xapelketa

Apirilaren 23ra arte,
Pleta trinketeen partidak jokatzeko ari dira. Asteartean 19:30ean, ortzegunetan 18:00etan eta igandetan 10:00etan.

Ekitaldi gehiagoren berri izateko, begiratu: **erran.eus** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Izarra eta astoa

ARNAL, TXABI

Ibaizabal, 2015

Musika



Esna

ESNE BELTZA

Autoedizioa, 2015

Internet



Goizuetako Udalaran web orri berria

WWW.GOIZUETA.EUS

Gaueko zero ilunean gaizki itsatsita zegoen izar txiki bat askatu eta Lurrera jausi zen. Ez zuen, ordea, edonon lur hartu. Planetako toki posible guztietatik... ezetz asmatu zein aukeratu zuen!

6 urtetik gorako haurrei zuzendutako liburua da, nor bere burua ezagutzea helburu duena. Txabi Arnalen hitzak Jon Gilen ilustrazioekin osatu dituzte.

Hernaniko taldearen bosgarren lana, disko bikoitza izango da, eta berezitasun nabari bat izanen du, bi diskoak ez dira eta batera argitaratuko. Lehenbiziko diskoa abenduaren 11az geroztik dago saltokietan eta bigarrena 2016ko maiatzaren kaleratuko dute. El Canijo de Jerez, La Pegatina, Zoo edota Green Valley moduko musikari ezagunen kolaborazioak jasotzen dituzten zortzi abesti berri biltzen ditu *Esna* bildumaren baitako lehenbiziko diskak. 2013an argitaratutako *Gora!* diskoa bezala, Paxkal Etxepareren estudioan grabatu dute Bardozen (Lapurdi). Luis Toledo diseinatzailea arduratu da diseinuaz.

Goizuetako udalak web orri berria jarri du martxan. www.goizueta.eus helbidean herritar zein bisitariarentzat informazio baliagarria bildu dute. Udalarekin lotutako gaiak, herrian eskaintzen diren zerbitzuak, kultur agenda, turismo eskaintza...gaiak banatu dituzte edukiak. Horretaz gain, udalalbisteak ere argitaratuko dituzte eta azaroko azken astean etxeko banatu zen Goizueta Informazio udal aldizkariaren 1.alea ere web orrian irakur liteke. Herriko informazioa biltzen duten aldizkariak ere egin die lekua eta argazki galeria ere badu. Momentuz, Azaro Kulturaleko argazkiak zintzilikatu dituzte, baina laister batean bilduma polita osatu nahiko lukete.

Nire aukera



Jone URTXEGI
Igantziako gaztea

«Eskea hagitz polita izaten da, gazte guztiak koadrila bat bihurtzen garelako»

Hamasei urte zituela hinauterietan eskean hasi eta «oraindik ere hortxe» ibiltzen da igantziako gaztea. «Inauterietan pasatu ondok utzi behar nukeela pentsatzen dut batzuetan, baina usainak ailegatzen hasten deenean...» oraindik gogoan pizten da, beraz aurten «13. urte eskean aterako naiz». Eskean joateko «mairuz ibiltzen gara eta norberak bere jantzia egiten du». Duela 13 urte, «16 urte nituela lehenbiziko aldiz orratza hartu eta nire ilusio guztiarekin lehenbiziko trajea egin nuen eta oraindik horrekin ibiltzen naiz. Gogo aunitzekin egin nuen». Eskea «besta hagitz polita izaten da, gazte guztiak bat garelako, koadrila bat gara denak». Janaria, edaria eta dirua jasotzen dira, baina «saldo bero-beroa izaten da gehien eskertzen duguna». Ortziral arratsean adibidez, «zopa izaten dugu afaltzeko eta horrek berpiztu egiten gaituela uste dut». Eskean ibiltzeko ohitura «ezin da galdu, betirako segitu behar du». Giro ederra sortzen baita «kiritixa eta panderoarekin dantzan baxerri-baxerri ibilita».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Pisu salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mogleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mogleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 65.000 euro. ☎646 774117.

DONOSTIA. Gros auzoan, kale peatonalean, 70 m²ko pisua salgai. Erabat berritzeko. 2 logela, komuna eta sukalde oso handia ditu. Igogailuarekin. ☎635 706374.

LEGASA. Baserría salgai, mogleztatua. 3 solairu ditu, 110m²koako bakoitza eta 6.000m²ko lur eremua. ☎607 446909.

ELIZONDO. Pisu salgai. 90 m²ko azalera. 1. solairua. Hall, 2 logela, 2

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

bainugela, egongela handia, sukalde ederra eta ekipatua. Balkoia eta 15 m²ko sabaia. Kafekazioa berritua (gas naturala eta kondensaziozko galdara berria). Toki lasaia eta erdigunetik 5 minutura. ☎609 004983



LESACA. Plaza zaharrean lau urte dituen 75 m²ko atikoa salgai, egurrezko sabaiarekin, egongela polita eta goxua. Bi logelekin, komuna, eta egongela-jangela-sukalde dena toki berean dituen; garajea, trastelekuak, eta bizikletak-sille-tak gordetzeko gela ere baditu. Igogailuarekin. Etxe aitzinean parking bat dago. Komodidade

guztiak biltzen ditu orokorrean. Etxea berri berria dago. 210.000 euro. ☎666 115642.



LESACA. Pisu berria salgai, 2007. urtekoa, garaje plaza eta trastelekuarekin. Igogailua ere badu. Mogleztatuta dago, 3 gela eta 2 komunekin. Terraza zabala du. Futbol zelai eta osasun etxearen ondoan. 165.000 euro. Ikustea hobe. ☎605 762880.

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

BERA. Legia karrikan pisua errentan ematen da. 3 logela, 2 komun eta trastelekuarekin. ☎678 363398/ ☎678 305250.

BERA. Logelak eta apartamentua errentan emateko. Interesatuak deitu ☎654 385363.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan eman nahi da. 3 logela, 2 bainugela, egongela handia, 2 balkoi, igogailua eta berogailua. Deitu 15:00etatik aitzinera. ☎628 512905.

ORONAZ-MUGAIRI. pisu berria errentan eman nahi da, mogleztatua, igogailua eta berogailuarekin. Sukalde-egongela, bainu bat, logela bat eta trastelekuak dauka. 350 euro. ☎663 312557.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

LESACA edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi da. ☎642 993776. Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. ☎655 028593

Baztan eta inguruan errentan hartzeko pisu bila nabil. Altzaririk gabe baldin badago ere berdin hartuko nuke. ☎646 330956

GARAJEAK/LOKALA

errentan emateko

DONEZTEBE. Herri sarreran dagoen 165 m²ko lokal komertziala errentan eman edo saldu nahi da erretiroagatik. Hagitz argitsua da, erakusleiho ederrekin. Negozio ugaitarako aproposa da. Interesatuak deitu konpromisorik gabe ☎630 510918. .

**ZERBITZUAK**

psikoanalista

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2-D - ELIZONDO

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abenduaeren 18tik 25era bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 30 €

Zerri gizena
0,947 € kiloak.

Zerramak:
0,340 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,06

1.koa 3,90

2.koa 3,62

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,24

1.koa 3,97

2.koa 3,66

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 160,00

idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,60/7,60

8-10 kilokoak: 6,00/6,20

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Ingelesko eta txinera-ko klaseak ematen ditugu Beran, Agerra auzoan. 40 euro hilabetea. Irakasle titulatuak eta atzerrian ibiliak. ☎600 309807.



LANA

eskariak

Bera edo Lesaka inguruan lan egiteko emakumea eskaintzen da. Etxeko lanak egin, adineko jendea zaindu, bulegoak garbitu... ☎948 630914/ ☎678 903294.

17 urteko neska prest dago lan egiteko, haurrak zaintzen, dendaren batean... **Malerreka aldean.** ☎650 080499.

Baztan eta inguruan orduka lan egiteko eskaintzen naiz, adinekoak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Eskertuko nizuke telefono honetara deitzea ☎639 311479.

Zaintza lanetan esperientzia duen emakumea eskaintzen da **adinekoak edota haurrak zaintzeko.** Orduka edo internamoduan aritzeko, Elizondo eta inguruko zonaldean. Interesa dutenek deitu mesedez ☎632 626760.

LANA

eskaintzak

LESAKA. Atxaspi hotolean garbitzailea behar dugu. Interesatuak deitu ☎948 637536/ 647 456611 edo idatzi hotela@atxaspi.com-era.

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea behar da ostiral, larunbat eta igandeetarako. ☎948 599039.

Harreran lan egiteko pertsona bat behar da Etxalarko bentan. Eus-

kara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa jakitea beharrezkoa da. Interesatuak bidali curriculum info@etxalar.com helbidera.

DANTXARINEA. Mikelen borda bentan langilea behar da, ostatuan lan egiteko. Frantses pixka bat dakiena eta esperientzia duena. Egunez lan egiteko, gauz ez. Interesa dutenek deitu telefono hauetara ☎690 388134 /☎948 599045.

MOTORRAK

salgai

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa

RENAULT CLIO - 2011
5 ATE - KONSUMO OSO TXIKIA

VW SHARAN DSG - 2011
KANBIO AUTOMATIKOA - 7 PLAZA

OPEL COMBO - 2011
5 ATE - TURISMO KLASIFIKAZIOA

Irun-Iruña errepidea N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

ANIMALIAK

salgai

SUNBILLA. Zakurkumeak salgai. Ama Border Collie eta atta euskal artzain zakurra. ☎609 047743.



ALKAIAGA. Lesakan bi ahuntz ñaño beren umeekin salgai. ☎948 630945.

ANIMALIAK

oparitzeko

LEITZA. Bi hilabeteko artzain zakurra oparitzeko. ☎948 510224.

Zortzi urteko zakur emea oparitzeko. Mesizoa, Setter eta Podencko arrazen nahastea. ☎688 607751.

DENETARIK

salgai

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



DONEZTEBE. Hiru sukalde ditugu salgai. Diseinu modernoa, Silestone enzimarekin, kalitate handikoak. Ez ezazu galdu aukera bikain hau! Informazio gehiagorako ☎630 510918.



Korg X3 teklatura saldu edo piano digital batez aldatu (Yamaha P35) nahi nuke. Urteak ditu baina hagitz egoera onean dago, ia ibili gabea. ☎607 269294



ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Salako armairua, ma- haia eta 6 aulki, egoe- ra oso onean, salgai daude, prezio interes- garrian. ☎628508300



Akaziazko 200 pikete salgai. 1,80 metroko al- tuera dute. ☎627 133010.

DENETARIK

bertzelakoak

BERA. Martxan dago- en ostalaritzako nego- zioa errentan eman nahi da. ☎605 864355.

IRUN. Erdigunean da- goen taberna errentan eman nahi da. Diskote- ka baten eta Renfeko tren geltokiaren ondo- an dago. Ekipatua, la- nera sartzeko moduan! ☎636 858512.



ARANTZAKO UDALA

Egiturazko aldaketa sektorizatu gabeko A lurzoru urbanizagarrian

Hasierako onespena

Arantzako Udalak, 2015-eko abenduaren 11n egin- dako bilkura arruntean, erabaki zuen hasiera ba- tean onestea egiturazko aldaketa Arantzako Arau Subsidiarioetako sektori- zatu gabeko A lurzoru ur- banizagarrian.

Lurraldearen Antolamen- duari eta Hirigintzari bu- ruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74.1.a) artikuluan xedatu- takoa aplikatuz, espedia- tea hilabetez egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofi- zialean argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunek eskura izan- nen dute espedita Uda- laren bulegoetan, egokiak iruditzen zaizkien alega- zioak aurkez ditzaten.

Arantzako, 2015.12.24 Al- katea, Juan Miguel Al- mandoz Mitxelena

← hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa **erran.eus** en

IRAGARKIA

2 aldizkaritan eta interneten

10
EURO

urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Aunitz urtez **GURUTZE!** Kosta zaigu baina badugu argazkia beste pare bat urterako... Ongi pasa eguna eta muxu haundi bat! Laster arte!



Arantzako **OSKITZ** eta **SUHARRI MADARIAGA OTEG**ik 10 urte bete dituzte abenduaren 29an, beraien amarekin batera. Zorionak hiruei eta muxu haundi bat Alazne, Beñat eta Aiertzen partetik.




Arantzako **IRAIK** abenduaren 21ean 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez etxekoan partez. Muxu haundi haundi bat.



Arantzako **IKER**rek abenduaren 21ean 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez etxekoan partez. Muxu haundi haundi bat.



IRAI eta **IKER AROZENAK** urteak bete dituzte abenduaren 21ean. Aunitz urtez bikote!!! Disfrutatu eguna eta hagitz ongi pasatu.



Igantziako **JON ARANGUREN**ek 3 urte beteko ditu urtarrilaren 14an. Muxu potolo bat bere bi amaxi eta gurasoen partetik.



MIKEL SAN SEBASTIANEK urteak bete ditu urtarrilaren 11n. Aurten ere etxetik urrun egonen zara egun horretan baina elkartasunak ez du mugarik. Zihur egon maitasunarekin zure ondoan izanen garela. Famili osoaren partez besarkada haundi bat. Aski da!!!! Euskal presoak eta iheslariak etxera!!



Elizondoko **LEIRE URREAGA IBARRAK**, abenduaren 13an urtea bete zuen. Zorionak Sunbilla eta Elbeteko familiaren partez eta muxu potolo bat zure ahizpa Janireren partetik!



ENAITZ AGESTA PETRIRENak abenduaren 29an 3 urte bete ditu. Zorionak Berako aitaxiren partetik.



Elkoko (Nevada) **MICHELE YGOAK** 21 urte bete ditu abenduaren 26an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Kisses for you



Zubietako **LUHAIA FAGOAGA BABAZEK** abenduaren urteak bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat atautxi-amaxi, izeba-osaba, atxa eta ama eta berexiki anaia Egoi eta Eñaut lehengusuen partetik.



Nor ore dira tximeleta eta txakur polit hau? 7 urte beteko dituzte urtarrilaren 19an. Aunitz urtez Berako eta Sunbillako osaba-izebak, lehengusina-lehengusuak, atautxi-amaxiak eta nola ez gurasoen partetik. Muxuak eta egun ederra pasatu.



Sunbillako bi printzesita hauek urtarrilaren 19an 7 urte beteko dituzte. Argazkian beraiekin ageri den lehengusu Ibairen partez aunitz aunitz urtez. Denok elkarrekin ospatuko dugu. Zazpi mila muxu lehengusinak!



ARRATE ITURBIDE OLAZABAL gure igantziar xalxerak 2 urte bete ditu urtarrilaren 7an. Zorionak!!! Mila muxu ta besarkada goxo bat atato, ama eta Txaskiren partez. Segi irriz egunero orain arte bazala potolo :-)



AURKENE ITURRALDE EZCURRAK 3 urte bete ditu abenduaren 30ean. Aunitz urtez bihurri. Hiru muxu haundi zure familia guztiaren partez berexiki Eneritzen partez. Ongi ongi pasa zure eguna.



ANDER URBISTONDO ALTZUGUREN beratarrak bi urte bete ditu abenduaren 29an. Zorionak familia guztiaren partez.



Urtarrilaren 7an gure nixka igantziar bihurri eta berritsuak 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu erraldoi Lesakako Bekarrotako familia guztiaren partez!



Leitzako **XUBAN** eta **ALAI**A TELLETXEAK 8 eta 5 urte beteko dituzte datozen egunetan. Mila kilo zorion!!!!!!!



Berako **LEXURI PEREZ ALEJOSEK**, gure etxeko tikiak, 6 urte bete ditu urtarrilaren zortzian. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik eta berexiki hainbertze maite duzun zure ahizpa Eneritzen partetik.




Abenduaren 27an urtea beteko du gure **EKAITZEK!** Zorionak eta aunitz urtez Arantzako familiaren partez. Aunitz matte zattu!g!



Donamariako **IRATI SARRATEAK** 9 urte beteko ditu urtarrilaren 29an. Muxu haundi bat familiaren partetik. Zorionak!!



Etxalarko gizontxo honek urtarrilaren 21ean 6 urte beteko ditu! Zorionak **ANDER** eta 6 muxu haundi zure izeba kuttunaren partez!!



Urdazubiko **AINHIZEK** urtarrilaren 2an urtea beteko du. Muxu haundi bat aittatto eta amattoren partez!



Ongi etorri **XANET** eta zorionak gurasoei! Aurteangoan zuena bai loteria! Muxu haundi bana Aresoko kaxkotik!



Berako **NAIKE ERKIZIA ORDOIK** abenduaren 25ean 9 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Aurtizko **NAIKARI** urteak bete du. Muxu haundi bat atautxi, amaxi eta izeba-osaben partetik. Txokolate goxoa prestatu!



Aurtizko **NAIKARI ALTZURI MIDEGI**AK urtarrilaren 12an urtea beteko du, aunitz urtez eta muxu potolo bat atxa, ama eta ahizpa Laieneren partetik.



Doneztebe - Ezkurrako **IRAI**DE **GOGORTZA ETXEBERRIAK** 2 urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu asko etxeko panpoxarentzat!



Zorionak etxeko sorgintxoar!!!!!! Urdazubiko aitaxi-amaxi eta osaba izeben partez!!!!!! Muxu haundi haundi bat!!!



Doneztebeko **AIMAR IRIARTE MIKELAREN**ak urtarrilaren 8an bi urte beteko ditu. Zorionak Sunbillako eta Arantzako familiaren partetik, eta berexiki atxa, ama eta zure arreba Nahiaren partetik. Muxu handi bat potolo!



Zorionak **LOREA SALDIAS MAKAZAGA!** Gure neskak 6 urte bete ditu abenduaren 31n. Muxu potolo bat Ituren eta Goizuetako familiaren partetik!



Zubietako **ENAITZ ELIZALDE MARI**EZKURRENak urtarrilaren 18an 3 urte beteko ditu. Zorionak Zubietako eta Ezkurrako familia guztiaren partez; berexiki zure lehengusu Janire, Aimar, Maddi Nahia eta Marenen partez. Merendu goxo goxoa prestatu potxolo!!



Gure neskatxa **ALAI** **ALDUNTZIN NAVASEK**, urtarrilaren 3an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu potolo bat amona xarra, pesau, attuna, amona, osaba, izeba eta Aintziraren partez. Disfrutatu sorgintxo!!!



PABLO IRAZOKI **OLAIZOLARI** urte berri on bat desiatzen diogu bihoz bihotzez. Segi irri polit horrekin. Urdazubiko familiaren partetik.

TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!
Baztan - Bidasoako Renault Zerbitzu ofizial
 bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen
 guztirako, etorri gurera.



RENAULT
Passion for life



SERVICIO POSVENTA Renault
 Renaultek gomendatzen du 

  renault.es/posventa

TALLERES SANTESTEBAN, S.A.
 Leitzako Errepidea, 80. Tel. 948 450 282. 31740 DONEZTEBE

2016 - URTARRILA

• BERRIAK •

 **ttipi-ttapa**

Liderrak
gure eskualdean
eta baita azterketa egiterakoan
CIESeK Nafarroa Garaiko
mendialdean
hartu duen
111 udalerrien eremuan ere



Gure inguruko albistek

EXTRAAA!
Ttipi-Ttapaekin
zure iragarkiak eragin
haundiagoa du



Ttipi-Ttapa
28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	15.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	11.000 irakurle
MARCA	4.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
EL PAIS	1.000 irakurle
EL MUNDO	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle



SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%49,40
EMAKUMEAK	%50,60

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%12,30
25-34 URTE	%14,90
35-44 URTE	%19,70
45-54 URTE	%17,60
55-64 URTE	%17,70
+64 URTE	%21,80

IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%3,30
LEHEN IKASKETAK	%15,10
LANBIDE HEZIKETA	%23,40
BATXILERGOA	%26,80
UNIBERTSITATEA	%31,40

Datu iturria: CIES, 2015eko bigarren neurketa

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

ZOZKETAK

652. ALEKO
IRABAZLEAK:

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE

72673111-B

epemuga 04/2016

Zk. 123456

ttipi-ttapa

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

koskontako bidea 7 LESAKA

T 948 635 458 | F. 948 635 457

info@ttipi.eus

erran.eus

Gabonetako sari bereziak:

Sari handi-handia 1

M^a Jose Bertiz | SUNBILLA

Sari handi-handia 2

M^a Carmen Etxebertz | ALMANDOZ

Sari ttikia 1

Ana M^a Arregi | DONEZTEBE

Sari ttikia 2

Margarita Telletxea | LEITZA

Zorionak!!

DESKONTUAK

IPARLA
kirolak

ELIZONDO | %8, 30€tik gora

Zaldúa
argazkilariak

DONEZTEBE/ELIZONDO
%10, produktuetan

elika
Dietetika eta elikadura

BERA | %5, kontsultan

Aritzela
DEKORAZIO TAILERRA

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan
%10, 50€tik gorako erosketetan

Garbi
drogeria - lurrindegia

LEITZA | %10, 30€tik gorako erosketetan

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
ARRAZPIA | 1010

KAMISETA BAT

Onddo ta punto

www.onddotapunto.com



AQUARIVM
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN



2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com



2 LIBURU | Erein argitaletxea

"Intemperies" | "Gure etxea"
www.erein.eus

2 SARRERA
Sorginen Lezeak
www.turismozugarramurdi.com



MARIMOTOTS LIBURUA + MARGOTZEKO 2

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

www.katxiporreta.com



ARKUPE
Gozotegia · Txokolategia

TXOKOLATE LOTEA
Arkupe

www.arkupegozotegia.com